

21

21
euskara

EZTABAIDARAKO GAIAK

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzea
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

“XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK”

EZTABAIDARAKO GAIAK

*EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA*



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia:	I.a, 2008ko azaroa
Ale-kopurua:	1.500 ale
© erantzunena:	Egile bakoitza
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.net/euskara21
Azala:	Ainhoa Arroyo
Diseinua eta maketazioa:	Junkal Motxaile
Inrprimaketa:	RGM, S.A. Pol. Igeltzera, Pab. I bis – 48610 Urduliz-Bizkaia
ISBN:	978-84-457-2850-5
Lege gordailua:	BI-3629-08

AURKIBIDEA

HITZAURREA

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea II

GAITEGIA

1. Euskarazko ekoizpena eta euskararen osasuna	15
2. Hiztun kopurua eta euskararen erabilera	23
3. Hazkunde kuantitatiboa eta gainbehera kualitatiboa	31
4. Administrazioa eta euskara: botere publikoen jarrera	37
5. Hizkuntza gaitasuna	44
6. Euskara eta <i>titulitisa</i> edo “titulu-grina”	50
7. Eleaniztasunaren aurkia eta ifrentzua	55
8. Erabilera: legea, inposaketa, koertzioa	61
9. Progresibotasuna	67
10. Euskararen berezko guneak	73
11. Gramatikakeriako morrontzak	77
12. Euskararen noranahikotasuna	83
13. Eskolaren lana	87
14. Espazioak euskalduntzea	94
15. Gizarte osoki elebidun bat imajinatzen	99
16. Administrazio publikoak eta hizkuntza-eskakizunak	106
17. Administrazio eta herri-mugimenduen arteko harremana	III
18. Euskararekiko axolagabekeria eta euskararen politizazioa	119
19. Euskara indarberritzeko bakoitzaren egitekoez	126
20. Esfortzu handia, sari herdoila	130
21. Kontsentsuaz	135
22. Euskararen etorkizuneko erronkak	139

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE OSOKO KIDEAK

1. Lehendakaria: Juan Jose Ibarretxe Markuartu jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
2. Lehendakariordea: Miren Azkarate Villar andrea, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua.
3. Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
4. Joseba Erkizia Itoitz jauna, HABEko zuzendari nagusia.
5. Julian Beloki Gerra jauna, Eusko Irratia S.A.ko zuzendari-koordinatzailea, Euskal Irrati Telebistako zuzendari nagusiak aukeratua.
6. Joseba Alkalde Amutxategi jauna, Lehendakariordetzako idazkari nagusia, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak aukeratua.
7. Pedro Otxoa Bernales jauna, Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak aukeratua.
8. Jon Urrutia Mingo jauna, IVAPeko zuzendari nagusia.
9. Lorena López de la Calle andrea, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, Arabako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
10. Miren Dobaran Urrutia andrea, Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
11. Estibaliz Alkorta Barragan andrea, Euskara zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
12. Jokin Bildarratz Sorron jauna, EUDELeke elkarteburua, Euskal Udalen Elkarteko ordezkaria.
13. Andrés Urrutia Badiola jauna, euskaltzainburua, Euskaltzaindiko ordezkaria.

Hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artetik organo honen 2007ko urriaren 24ko Aginduaren bitartez izendatuak:

14. Dorleta Alberdi Aretxederreta andrea
15. Sagrario Aleman Astiz andrea
16. Kike Amonarriz Gorria jauna
17. Aurelia Arkotxa andrea
18. Inazio Arregi Gordo jauna
19. Joseba Arruti Lafuente jauna
20. Nerea Azurmendi Zabaleta andrea
21. Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna
22. Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea
23. Allande Boutin jauna
24. Ana de Castro Rubalkaba andrea
25. Gotzon Egia Goienetxea jauna
26. Ana Eizagirre Garate andrea
27. Aingeru Epaltza Ruiz de Alda jauna
28. Lore Erriondo Korostola andrea
29. Malores Etxeberria Arrese andrea
30. J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna
31. Estitxu Fernandez Maritxalar andrea
32. Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna
33. Jokin Gorozika Bidaurrezaga jauna
34. Fernando Iraeta Kintela jauna
35. Jean Claud Iriart jauna
36. Odile Kruzeta Olañeta andrea
37. Miguel Lazpiur Lamariano jauna
38. Miren Elixabete Larrinaga Artetxe andrea
39. Anjel Lertxundi Esnal jauna
40. Koldo Martinez Urionabarrenetxea jauna
41. Ludger Mees jauna
42. Mertxe Mugika Balanzategi andrea

43. Imanol Murua Uria jauna
44. Eneko Oregi Goñi jauna
45. Rosa Miren Pagola Petrirena andrea
46. Carlos Ruiz Gonzalez jauna
47. Pello Salaburu Etxeberria jauna
48. Miriam Urkia Gonzalez andrea
49. Ana Urkiza Ibaibarriaga andrea
50. Jesus Uzkudun Illaramendi jauna

Eusko Legebiltzarrak proposaturik izendatuak:

51. Iciar Lamarain Cenitagoya andrea
52. Alberto Lopez Basaguren jauna
53. Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea
54. Txomin Peillen Karrikaburu jauna
55. Tomas Uribeetxebarria Maiztegi jauna

Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatua:

56. Erramun Osa Ibarloza jauna, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendaria

**“XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN
OINARRIAK” IZENeko BATZORDE-ATAL BEREZIA**

Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-ataleko lehendakaria
Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria
Kike Amonarriz Gorria jauna
Aurelia Arkotxa andrea
Joseba Arregi Aranburu jauna
Mikel Basabe Kortabarria jauna
Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna
Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea
Ana de Castro Rubalkaba andrea
Ana Eizagirre Garate andrea
Lore Erriondo Korostola andrea
Miren Dobarán Urrutia andrea
Gotzon Egia Goienetxea jauna
Malores Etxeberria Arrese andrea
Ramon Etxezarreta Aizpuru jauna
J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna
Itziar Idiazabal Gorrotxategi andrea
Iciar Lamarain Cenitagoya andrea
Gorka Landaburu Illaramendi jauna
Miguel Lazpiur Lamariano jauna
Anjel Lertxundi Esnal jauna
Jose Luis Lizundia Askondo jauna
Alberto Lopez Basaguren jauna
Lucía Martínez Odriozola andrea

Koldo Martinez Urionabarrenetxea jauna
Jasone Mendizabal Altuna andrea
Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea
Xabier Mendiguren Bereziartu jauna
Ludger Mees jauna
Mertxe Mugika Balanzategi andrea
Pedro Ochoa Bernales jauna
Eneko Oregi Goñi jauna
Carlos Ruiz Gonzalez jauna
Pello Salaburu Etxeberria jauna
Tomás Uribeetxebarria Maiztegi jauna
Ana Urkiza Ibaibarriaga andrea
Andres Urrutia Badiola jauna
Jesus Uzkudun Ilaramendi jauna
Mikel Zalbide Elustondo jauna

BATZORDE-ATAL IRAUNKORRA

Oinarrizko Txostena prestatu duena

Aurelia Arkotxa andrea
Lore Erriondo Korostola andrea
Alberto Lopez Basaguren jauna
Eneko Oregi Goñi jauna
Pello Salaburu Etxeberria jauna

Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria
Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-atalburua

HITZAURREA

Patxi Baztarrika

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta “XXI. Mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” batzorde-atal bereziko batzorde iraunkorreko buru

“XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” aztertu eta finkatzeko Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak 2007ko urriaren 25ean abiarazi zuen gogoeta eta eztabaida prozesuaren hirugarren argitalpena da esku artean duzun hau. Argitalpen sorta horretan lehenak, 2008ko maiatzean argitaratu genuena, gogoe-ta bideratzeko berariaz sorturiko batzorde-atal bereziko batzorde iraunkorrak idatzi zuen Oinarrizko Txostena bildu zuen, liburuki ba-tean euskaraz eta gaztelaniaz.

Aipatu txostenaren inguruko gogoetaren harian batzorde-atal bereziko kideek eginiko ekarpenak bildu zituen bigarren argitalpe-nak, bi liburukitan, euskaraz bat eta gaztelaniaz bestea.

Bigarren argitalpen hori du abiaburu, hain zuzen ere, hiruga-rren argitalpen honek. Izan ere, batzordekideen ekarpen mamitsuen inguruko eztabaida ordenatzeko asmoz, batzorde-atal bereziak zera erabaki zuen 2008ko urriaren 19ko bilkuran: batzordekideen ekar-penetatik abiatuta, gai eta kezka nagusiak gogoetarako gidoi batean biltzea, eta, ondoren, sintesi lan horrek sorturiko gaitegia batzorde-kideei helaraztea, hauek idatzizko iritzia eman zezaten.

Hogeita bi gaik osaturiko gidoi horri batzordekideek emaniko erantzunak biltzen ditu, hain zuzen ere, liburu honek, eta hori da, beraz, zeure gogoeta propiorako eskaintzen dizugun material abe-ratsa.

Material honekin eta aurretik argitaratutakoekin batera, esku-ra dituzu, baita ere, gogoeta prozesuan zehar Euskara 21 webgu-nean, azaroaren 18ra bitartean, sartu diren 10.000tik gora bisitariek,

29.000 inguru bisitaldietan bisitaldietan, egin dituzten ekarpen ugari eta askotarikoak.

Garbi dago, horrenbestez, benetako interesa piztu duela Euskara 21 gogoetak, eta interes hori bera da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimen hau, zilegi ez ezik, zeharo premiazkoa egiten duena. Denon eginkizuna baita, askotan adierazi dugunez, XXI. mende hasiera honetako demokraziak, euskarak eta eleaniztasunak behar duten hizkuntza politikaren eduki eta lerro nagusien oinarriak finkatzen laguntzea, gogoeta eta eztabaidaren bidez.

**“XXI. MENDE HASIERARAKO
HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK”
EZTABAIDARAKO GAIAK**

I. EUSKARAZKO EKOIZPENA ETA EUSKARAREN OSASUNA

Euskarak lehen baino osasun hobea duela frogatu nahirik, euskal produkzioak gora egin duela esaten digu txostenak. Ba al dago, ordea, kausa-ondorio argirik, bataren eta bestearen artean? Ekoizpena baino gehiago, ez ote da kontsumoa kontuan izan behar dugun datua hizkuntzaren osasuna neurtzerakoan? Eta, edonola ere, kalitatez ere euskal kultur ekoizpenak gora egin duela asumituz, zer pisu dute kalitatezko ekoizpenek ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan?

KIKE AMONARRIZ

- Pentsatzekoa da euskal produkzioak gora egiteak zerikusi zuzena duela euskararen osasunaren hobekuntzarekin. Produkzioaren gorakadaz hitz egitean, ordea, zertan oinarritzen garen azaldu beharko genuke, kasu bakoitzerako neurgailu egoikiak erabiliz: liburuak badira, titulu kopuruaz edo ale-kopuruaz ari garen; Telebistaz ari bagara, kate kopuruaz, emisio-orduez edo ekoizpen propioaz ari garen...
- Bestalde, produkzioak bezainbat edo gehiago arduratu behar gaitu kontsumoak. Nolanahi ere, bi alderdi hauek elkar eragiten dute, euskarazko merkaturua zabaltzeko derrigor eskaintza bera ere zabaldu egin beharko baita.
- Gurea bezalako hizkuntza komunitate txiki batean, lehentasun osokoa iruditzen zait ahalik eta hartzaile kopururik handienara iritsiko diren produktuak ekoiztea. Eta honekin batera, hizkuntza

komunitatearentzat estrategikotzat jotzen diren kalitatezko produktuak (minoritarioak) sustatzea.

- Eta merkatua zabaldu ahal izateko, guztiz beharrezkoak zaizkigu:
 - Teknika zientifikoetan oinarrituriko ikerketa-merkatuak.
 - Kontsumo-indize fidagarriak.

KOLDO BIGURI

Jakina interesgarria litzatekeela ezagutzea kontsumoaren berri, eta horretarako agian bilatu beharko da sistemaren bat, enpresek beren ekoizpenen kontsumo zehatza zein den esan dezaten (liburugintzan, adibidez). Bestalde, ekoizpena handitu egin da, bai zenbatekoan eta bai nolakoan ere; baina iruditzen zait oraindik gutxi dibertsifikatuta dagoela (liburu asko, musika asko, baina ikus-entzunezko gutxi, informatika-programa gutxi, adibidez).

ANA EIZAGIRRE

Bai, kontsumoa handitu bada euskaraz saltzen diren liburuak irakurtzeko direlako, osasuntsua izango da. Irakurleen kopurua da kontuan hartu behar dena esaterako.

Ekoizpena dena den aurrekoarekin lotuta joan beharko lirateke alde batetik baina bestetik kalitatezko ekoizpenak derrigorezkoak dira hizkuntzaren garapenerako.

En todos los momentos históricos el desarrollo de la lengua no es solo para su uso diario sino para el futuro que se quiere conseguir. La lengua necesita una producción de calidad que la desarrolle y la mantenga en una posición adecuada a las necesidades del desarrollo universal.

Medir, calibrar ese desarrollo es competencia de la administración y de las entidades científicas y universitarias.

Por ello es necesaria una producción propia en todos los ámbitos de la vida que desarrolle la lengua cara a las necesidades del mañana.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

EUSKAL MARKETING PROPOSAMENA

Eskaintza eta eskaera arteko erlazioa, ekonomiaren oinarrietako bat dela esan ohi da, eskaerarik gabeko eskaintzak porrot egiten duela era arinegian baieztatuz.

Baina marketin adituek eskaera sortu eta eragin daitekeela frogatua dute, produktuak azken hitza ez duela agerian utziz.

Euskarak bizitzaren eguneroko arruntean euskarazko ekoizpena ezinbestekoa duela esateak ez dio eztabaidari ekarpenik egiten, baina gakoa, nire ustez, egungo eta epe ertaineko euskaldun merkatuaren aldagaiak identifikatzean eta aldagai horien arteko erlazio sistemikoa argitzean dago, eta honi buruzko marketin azterlana ezinbestekoa dugu.

ITZIAR IDIAZABAL

Euskararen osasuna neurtzeko ekoizpena eta kontsumoa, biak neurtu beharko liratekeela uste dut. Ekoizpenen Kalitatea, berriz, gauza guztietan bezala, ahuldutako hizkuntza baten produktuetan zaindu beharra ezinbestekoa da. Baina kalitatea zeri deitzen zaion eta nola neurtzen den argi egon behar du, izan ere, hizkuntza kontuetan nahi duenak nahi duen bezala neurtzen du hizkuntzaren kalitatea, eta badaude, adibidez, gramatika baino irizpide egokiagoak hizkuntzaren kalitatea neurtzeko.

Nolanahi ere, ekoiztutako produktua, bere osotasunean neurtu behar da kalitatearen aldetik, eta bai, badago zer begiratu eta zer hobetua. Euskarazko telebista/k, irratiak, argitarapenak eta gainerako kultur emanaldiak neurgarri zorrotzagoak beharko lituzkete. Eta audientzia edo jende arrakasta ez luke neurgarri bakarra izan behar. Arlo bakoitzean adituen iritziak behar lirateke delako kalitatearen neurketa irizpideak erabaki ahal izateko.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Industria eta merkataritza alorretan, produktoreak ekoizpena eta kontsumoa biak izan behar ditu kontuan. Kontsumoa sustatu ere, baina ez ekoizpen stocka ateratzeko soilik. Hemen ere, planifikazioan dago gakoa.

LUDGER MEES

Hemen egiten den galderak, neurri batean bederen, galdera erretorikoak direla iruditzen zait. Edozein hizkuntzatan, hizkuntza horren osasuna neurtzerakoan eta etorkizunari begirako diagnostikoa egi-terakoan, bi aldagaiak hartzen dira aintzat. Alde batetik, ekoizpenak gora egin badu, horrek esan nahi du nonbaiten badagoela ekoizpen hori kontsumitzen duenik. Halere, jakin badakigu euskarazko produktuak kontsumitzen dituen merkatua halabeharrez merkatu distortsionatua dela, herri erakundeek ematen dituzten diru-laguntzek distortsionatutako merkatua, hain zuzen. Horrek esan nahi du ekoizpenaren zati bat diru-laguntzak eragindako ekoizpena izango dela neurri handi batean, eta ez kontsumitzailearen eskariak. Hemen gauzak dezente findu beharko genituzke euskarazko produktuak kalitatezkoak izan daitezen eta diru-laguntzen makilarik gabe merkaturatzeko bidea egin dezaten.

Beste alde batetik, ordea, hizkuntza baten garapen prozesuan merkatua ez genuke jainkotu beharko. Izan ere, beste hizkuntza guztien garapen historikoan gertatu ohi den bezalaxe, euskarak ere behar ditu punta-puntako kalitatezko produktuak, nahiz eta guztiz minoritarioak izan. Laburtasunaren mesedetan, adibide bakarra baino ez dut aipatuko hemen: Euskal Herriko Unibertsitatean orain dela gutxi Biokimika arloko ospe handiko eskuliburu oso mardul bat argitaratu berri dugu euskaraz. Liburuaren ekoizpenaren gastuak –ingelesetik egindako itzulpena barne– 80.000 € baino gehiagokoa izan da. Diru hori ez dugu inoiz berreskuratuko salmenten bitartez

eta EHUK egin izan ez balu, segur aski inork ez zuen egingo. Hala ere, liburua ikusi duten euskaraz diharduten gure aditu eta irakasle guztien arabera, argitalpen honekin terminologia eta kontzeptu-lan erraldoia egin da, ikasgeletan eta laborategietan urteetan eragin handia izango duena. Beraz, laburbilduz, euskarazko ekoizpena gehiago merkaturatu behar bada ere, merkatu handirik ez duten produktuen beharra ere bada.

JASONE MENDIZABAL

Hizkuntza komunitate baten osasuna edo bizindarra neurtzeko adierazle asko egon daiteke. Euskal hizkuntza komunitateak euskaraz sortzeko eta ekoizteko duen gaitasuna, zalantzarik ez dut, komunitate honen bizitasunaren adierazle garrantzitsua dela. Egiten zaigun galderari erantzunez, aipatzen diren bi adierazlearen artean aukeratzekotan, biak (ekoizpena eta kontsumoa) sustatu behar ditugula esango nuke eta bien arteko lotura den hedapen lana gehituko nuke lehentasunen artean.

Edonola, kultur kontsumo hutsetik harantzago joan diren estrategien alde egin behar da. Kultur sorkuntza eta kontsumoa jarduera gozagarriekin harremana izateaz gain, bestelako funtzio garrantzitsuei lotuta ikusten dut, bai funtzio sinbolikoei (hizkuntza komunitate modura kultur jarduerak funtzio sinbolikoak dituela ukaezina baita) baina baita komunitatea bera egituratu eta harreman sareak indartzearekin, zein gizarte mailako bestelako garapen faktore batzuekin lotutako funtzioei ere. Hortaz, ekoizpen kontzeptua sormenarekin lotuta ulertu behar bezala dela uste dut eta ekoizpena bera ez ezik, ekoizpen (sormen adierazpen) hori eman dadin baldintza egokiak ere eman behar dira gizartean, euskal hizkuntza komunitatean oinarrituta gure kasuan.

- Euskarazko **kultur sormena** sustatzea: sormena zentzurik zabalean, ekoizpen handiak ez ezik, herritarren parte hartzea ekartzen duten sormeneko ekimen herrikoiak. Tokian tokian emango

direnak eta bestelako sortze/ekoizpen/berrikuntza giroak ekarriko dituztenak. Sormen tailerrak, elkarlaneko sorkuntzazko jai eta adierazpenak... Azken finean, euskal hizkuntza komunitatearen sormen gaitasuna elikatzea ekarriko duten ekimenak.

- Kultur **ekoizpena**: alde batetik gure kulturarekin lotutako ekoizpenak sustatu beharko lirateke, bertako kultur adierazpenen sortze eta birsortzea lantzen dutenak. Probestu erdarazko ekoizpenek nekez beteko dituzten hutsuneak: euskararen esparru geo-demografiko txikia abantaila bihurtu eta ahalik eta atarramendurik handiena atera: tokikotasuna, gertukotasuna (geografikoa eta afektiboa), 'geuretasuna' (bereziki euskararekin lotutakoa) ... orain arte ere sarri erabili diren ezaugarri/balore horiek kultura korrante globalen baloreekin uztartzeko eta globaltasun horren testuinguruan balio erantsi gisa aurkezteko estrategiak bilatu. Bestetik, **kontsumo masiboko euskarazko kalitatezko ekoizpenak** sustatu beharko lirateke. Kontsumo masibokoa izateak ez du esan nahi produkzio erraldoiak izan behar direnik, horiek ere beharko baditugu ere, ezta ezinbestean zabalkunde eremu handietara zuzenduta egon behar direnik ere. Kontsumo masiboa eman daiteke baita ere herriko edota eskualdeetako eremuetan eta horren adibideak izan daitezke esate baterako herri aldizkariak. Ekoizpen masibo hauen bidez, helburua litzateke euskaldun ahalik eta gehienengana euskarazko sormen adierazpenekin heltzea. Eliteari begirako ekoizpenak lagundu behar ez direnik ez nuke esango, baina lehentasunak jartzekotan aurreko bietan jarriko nukeela azpimarratu nahi dut.
- Ekoizpenen **hedapen** ahalik eta handiena, herritarrengana hurbilduz, eskura jarritz eta kontsumo parte hartzailea erraztuz. Honek berebiziko garrantzia dauka ekoizpena kontsumoarekin lotuko bada. Zenbaitetan gure ekoizpenak atzerrira eramaten ditugu, bertan ekoizpenok ezagutarazteko sareak antolatu aurretik. Ekoizpenak prestigiatu behar ditugu, baina kontsumitzeko aukerarik ezean ez dugu askorik lortuko. Bide

osagarriak dira. Horixe baita ekoizpen horren funtzioa, norbaitek kontsumitzea, norbaitek gozatzea eta lehentasunezkoa da bide horiek erraztea. Hedapenari lotuta leudeke plaza/areto/antzoki egokiak (sortzailearentzat zein hartzailearentzat) eskaintzea, baldintza onak, komunikazio bide egokiak, hedapenerako sare zabalak... aurreko hori guztia hedapen lana ez ezik, kalitatearen adierazle da.

MERTXE MUGIKA

Euskal mundura erakartzeko ideia ohikoa izaten da “mundu berria” deskubritzearena. Ez dut uste eragile klabea denik, baina bere papertxoak eduki dezake.

PEDRO OTXOA

Jatorrizko ekoizpenak sortzaileen osasun maila adierazten du. Kalitatezko ekoizpenek mundu sinbolikoan egiten dute ekarpena. Kontsumoa, berriz, ezinbesteko elementua da euskarazko kultur merkatua sendotzeko. Kontsumoa bakarrik azpimarratuta, euskarazko gizarte klonikoarekin konformatuko ginateke, hizkuntza elementu sinboliko bakartzat hartuz. Beraz, biak dira kontuan hartzekoak.

TOMAS URIBETXEBARRIA

Gaiaren azken galderari erantzunez, kultur ekoizpenak beharrezkoak bihurtu dira gure gizartean eta eragin handia izan dezakete hizkuntza indarberritzeko. Baina kultur ekoizpenen ezinbesteko eta oinarrizko baldintza kalitatearen maila ona da, zeinahi dela ere erabiltzen den hizkuntza. Kalitatea izanez gero, oso mesedegarriak dira darabilten hizkuntzari dagokionez, euskara gure kasuan, hizkuntzaren maila jasotzen delako, zernahitarako eta edonon baliagarri dela agertzen delako, harrotasuna ere sortzen duelako eta euskara eza gutzen ez duena ere erakar dezakeelako. Kalitatea falta bada, beste guztiak, hizkuntza barne, hoberenean ere alferrikakoak dira.

ANA URKIZA

Ez dut uste kausa-ondorio argirik agertzen duenik produkzioaren gorakadak. Hala ere, produkzioaren igoerak, nire ustez, zera esan nahi du:

- a. Euskal produkzioaren aldeko apustua egin dutela bai erakunde publikoek eta baita enpresa pribatuek, eta erabaki hau ezinbestekoa da euskara bultzatzeko.
- b. Euskal produkzioak ez luke gora egingo ekoizpen horren atzean merkatu potentzial bat ez balego.

Kontsumoa eta ekoizpena, datu biak dira, nire ustez, beharrezkoak euskararen osasuna neurtzeko. Zeren eta:

- a. Kontsumoak datu erreala ematen digu, hau da, benetan euskaraz bizi edo kontsumitzen duen kolektiboaren datua. Hala ere, euskaraz ez kontsumitzeak ez du esan nahi, halabeharrez, euskaraz ez dakigunik edo euskara erabiltzen ez dugunik.
- b. Ekoizpenak, ordea, euskaraz bizitzeko gai denarena ematen du, potentzialtasunarena. Eta baita euskaraz ekoizteko dugun ahalmenarena.

Ekoizpenak beti izan behar du kalitatezkoa eta, batez ere, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan. Bestela, kalitatea nahi duenak beste hizkuntzetan ekoiztutako produktu edo zerbitzuak nahiko ditu eta euskaraz kontsumituko dutenak, militantziagatik baizik ez baita izango.

Dena den, ahuldutako hizkuntza batean egokituko den kultur ekoizpenak, biziko bada, hizkuntza bat baino gehiagotan ekoiztu beharko du. Kalitatezkoa den kultur ekoizpen horrek, ordea, euskaraz ez ezik beste hizkuntzetan ere ondo funtzionatuko duenez, arriskua dago erdararen aldeko joera areagotzeko (errentagarritasuna estakuru).

2. HIZTUN KOPURUA ETA EUSKARAREN ERABILERA

Egia al da milaka hiztun berri irabazi dituela euskarak 25 urteotan? Bai, baldin eta hiztun hitzarekin “euskaraz dakiena” esan nahi badugu. Ez dago horren pareko baieztapenik egiterik, aldiz, hiztun hitzarekin “euskaraz egiten duena” esan nahi bada. Euskaraz egiten dutenak etxean, kalean, lanean eta astialdian ez dira neurri berean ugaritu.

Zein lirateke 3 lehentasunak ezagueratik erabilerrako jautsian?

KIKE AMONARRIZ

- Irakaskuntza sistema “zuzentasunaren” parametroetatik “egokitasunaren” parametroetara bideratzea, “Hizkuntza kalitatea”-ri buruzko txostenean genion bezala. Lehentasuna komunikazio-gaitasuna hobetzea izatea, eta ez horrenbeste hizkuntzaren zuzentasuna bermatzea. Orduan esaten genuen bezala, egokitasuna lehenestean, zuzentasun-parametroak ere hobetzea ekarriko du gainera, gure ustez.
- Eskola orduz kanpoko jardueretan eta kultur nahiz zerbitzuen eskaintzan (lehentasuna haur eta gazteei emanez) erakargarria izango den euskarazko eskaintza bermatzea eta sustatzea. Ikastetxeen, Udalen eta erakunde desberdinen arteko koordinazioa oso lagungarria gertatuko da horretarako.
- Erakunde desberdinetan (administrazioa, lan-mundua, elkar-teak, etab.) erabilera-planak modu koordinatuan planifikatu eta sustatzea, berauetan garrantzi berezia emanez motibazioaren lanketari.

KOLDO BIGURI

Nire ustez, euskarak hiztun pasiboak ere behar ditu erabilera bermatzeko, kontraesana badirudi ere. Izan ere, euskara nola edo hala ikasi ondoren, jende asko dago euskaraz zuzen hitz egin edo idazteko gai (izango) ez denik; baina ondo ulertzen badute, bermatu egiten diote komunikazioa euskaraz zuzentzen zaizkionari. Gehiago zaindu beharko genituzke hiztun pasiboak, eta beharbada hizkuntza ezaugarrien artean sartu, kategoria berri gisa

ANA EIZAGIRRE

1. Euskara guneak zabaltzea: familian eta eskolan euskaraz egiten dutenak ez dute kalean eremu zabalak euskaraz jarraitzeko. Zinea, diskotekak, kirola...
2. Haur eta gazteek erabiltzen dituzten joko-tresnen ekoizpena. Hizkuntzaren garapena eta hezkuntzaren printzipioak beti joan behar dira batera? Gustatzen ez zaizkigun tresnak euskaraz topatzen ez badira merkatuan erdaraz erosiko dituzte. Neurria topatu behar diogu honi.
3. Euskara ez dakitenekin euskararen garrantzia landu, euskararen defendatzaile bihurtu. Dokumentuak esaten duen moduan euren patrimonioa dela ulertuz, euskararekiko inplikazioa sustatu.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

HIZTUN GEHIAGO, EUSKARA GUNEAK ETA LIDERGOA

Ondoren seinalatutakoek gutxieneko adierazpenen batzuk behar dituzten arren, honatx nire ustezko hiru lehentasunak:

1. Hiztun kopurua handitzen segitzea, handitu nahi dugun gizarte mailako erabilerak abagune handiagoak izan ditzan:
 - Haurrak eta gazteak (DBH amaitzean, denak euskaldunak).

- Horien gurasoak (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan saiatuta)
 - Herri zerbitzuetan diren profesionalak (Osasuna, Garraioak, Jende aurreko espazioak...).
2. Euskara guneak ugaritzen segitzea,
 - euskaraz dakienak euskarazko aukera izan dezan,
 - ikas berriak aritzearen balio praktikoa egiazta dezan
 - eta ez dakienak haien existentzia ezagutu dezan.
 3. Liderren euskarazko jarduna azkartzea, kantitatez eta kalitatez, bereziki ikus entzunezko hedabideetan ari direnena, ahozko zein idatzizko agerraldietan,
 - Herri ordezkartzaren guneetan (Lege Biltzarra, Batzar Nagusiak ...)
 - Herri kudeaketaren lanetan (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak ...)
 - Alderdi, Sindikatu, Enpresari, Finantza erakunde ... adierazpenetan.

ITZIAR IDIAZABAL

1. Modu malguan bada ere, euskaraz jakitea eskatu den lanpostuetan, (irakaskuntzan, administrazio ezberdinetan) langile horien erabilera neurtu egin behar litzateke.
2. Euskararen irakaskuntza alorrean, hasi haur eskolatik eta unibertsitatera, eta gainerako irakaskuntza maila edo molde guztietan (euskaltegi eta prestakuntza berezietan) ahozko mintzoari eman behar zaio lehentasuna, modu (genero, testu-molde) formalak eta ez formalak garatu behar dira, bakoitza bere erabilera testuinguruan, jakina, eta irakaskuntzaren maila guztietan.
3. Ahozkoaren irakaskuntzarako eta ebaluaketarako (erabileraren neurketa, tartean egongo litzateke) ikerketa ahalegin berezia bultzatu behar da hizkuntzalaritza alorrean eta didaktika alorrean. Baina, hizkuntza erabileraz ari gara, erabilera berezitu eta kokatuaz; ahozkoaren gramatika formak zeintzuk diren jakin

behar da, baina ez du zentzurik mintzoa isolamendu formalizatuaren baitan soilik lantzeak ez bada testu edo erabilera molde jakinetan nola gauzatzen den aztertzen.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Euskalduna “vascongado” izan da mendez mendetan, Nafarroan batez ere “pueblos vascongados y pueblos romanizados”, hauek erdaldunak, alegia. Orain “vascófono”. *“hiztuna”* eta euskalduna euskaraz dakiena da, gutxi edo asko hitz egin. Batzuk aukera ugari edo urri izan.

LUDGER MEES

Inork ez daukagu filosofoen harria, baina nire ustez ondorengo puntuak dira gakoak:

- a. Euskararen erabilera prestigiatzea (ospe eta eragin handiko pertsonen adibideak jarriz; iritzi sortzaileak);
- b. Lehen esan bezala, batez ere gazte jendearentzat produktu eta zerbitzu erakargarriak sortzea;
- c. Zuzentasunaren paradigma leundu eta erabileraren paradigma indartu (euskara komunikazio-tresna bezala erabiltzea bera da sustatu behar dena, nahiz eta erabileraren hedatze hori maiz zuzentasuna eta garbitasunaren kalterako izan).

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Nire ustez hiztunen kopurua ugartu da, eta Txillardegik matematikoki egiaztatu duenez euskaldun elebidunen eta euskaldun orekatuen erabilera-tasak oso altuak dira eta nekez izan daitezke askoz hobeak.

Horregatik ezagueratik erabilerarako jauzian hiru lehentasunak hauek dira:

- a. Euskararen kalitatea hobetzea.
- b. Aukerak nabarmen ugaltzea, euskal zirkuituak indartuz eta gehituz.
- c. Erdal elebakarren diktadura murriztu eta saretzeko ahalgina.

JASONE MENDIZABAL

Erabilerarako jauzian honako lehentasunak jarriko nituzke: aukerak sortu, harreman sareak eraiki eta motibazioa sustatzeko programak bultzatu.

1. Euskaraz bizitzeko aukerak sortu

- Aisialdirako programak sortu eta bultzatu adin tarte guztiak aintzat hartuta. Lehentasunez haur eta gazteei begirakoak (sortu+egungo eskaintzak lehentasunez euskaldunduz) baina ahaztu gabe gaztetxoentzat eredu diren helduen aisialdirako eta kultur kontsumo eta sormenerako aukerak.
- Entitateei begirako erabilera programak martxan jarri: lehentasunez herrian/auzoan gertukoak zaizkigun esparruetan eta baita lan munduan ere. Entitate txikietan (elkarte, ostalaritza, merkataritza) borondatezko hitzarmengintza bultzatuz eta handiagoetan (enpresak, hedadura handiko merkatal zentruak..) erabilera sustatzeko plangintzak bultzatuz. Eremu euskaldunetan bereziki aukera hauek bermatuta egon beharko lirateke. + udala eta gertuko administrazioa, osasuna.
- Kontsumorako aukerak sortu: euskarazko ekoizpena (kontsumo masibokoa lehentasunez) eta euskarazko hedabideak (kontsumo masibokoak ere lehenetsiz). Hedabideen kasuan, euskarazkoak ez diren hedabide publikoak ere euskararen normalizaziorako tresna bezala erabili beharko lirateke.

2. Harreman sare euskaldunen eraikuntzarako ekimenak

- Euskara Elkarteen sustapena: herriz-herri hizkuntza komunitatea trinkotzeko baliagarriak izateaz gain, herritarren protagonismoa eta atxikimendua lantzen dute. Gai-nontzeko puntuetan jasotzen diren helburuak jorratzen dituzte baita ere: euskaraz bizitzeko aukerak sortzen, mintzapraktika egitasmoak antolatzen eta sentiberatze ekintzak antolatzen.
- Mintzapraktika egitasmoen ildotik modu orokorrean zein fokalizatuan (giza talde zehatzei egokitutako aldaerak): helduak, gazteak, gurasoak, hezitzaileak, lankideak...

3. Motibazioa sustatzeko programak

- Oro har euskaldun izatearen kontzientzia hartzeko eta erabilerara jauzia egiteko sentiberatze programak: TELP, Reflect, norbanakoen curriculum linguistikoen lanketa, euskararen historia, oinarrizko soziolinguistika ikastaroak...
- Ezin ahaztu daiteke euskal hizkuntza komunitatearen aniztasuna eta euskarara hurbiltzeko motibazio anitzak daudela. Motibazio “arinenetatik” abiatu eta motibazio “sendoago”-tara (erabilera eguneroko eremu gertukoetaraino / intimoetaraino eramatea) bidaiatzeko prozesuak aztertu eta horien arabera plangintzak jorratu beharko lirateke.
- Gizatalde zehatzei zuzendutako sentiberatze programak: gurasoak (familia transmisioa eta guraso arteko hizkuntza ohiturak), hezitzaileak, gazteak, beste hizkuntza komunitateak (gaztelerazkoak zein besteak)... Azken hauekin lotuta errekurso praktiko zehatzak ere eskaini beharko lirateke.
- Erreferentzialak izan daitezkeen esparruetan eredugarriak diren (euskaldun izateaz gain euskaraz bizi direnak) ekimenen gizarteratzea: sortzaile euskaldunak, politikari

euskaldunak, kirolari euskaldunak... Honetan hedabideek zeresan handia daukate.

GARBIÑE MENDIZABAL

Hiztun kopurua eta euskararen erabilerari dagokionez, 3 lehentasunak markatzerakoan, kalea eta lan-eremua dira irabazi beharrekoak.

MERTXE MUGIKA

Zein lirateke 3 lehentasunak ezagueratik erabilerarako jautzian?

- Euskaraz benetan funtzionatzen duten harreman-sareak eta zirkuituak.
- Euskaldunon “komunitatearen” bizitasuna eta erakargarritasuna.
- Hizkuntza erabiltzeko gaitasuna. Beraz, ezer ez dakitenek ikasi beharra dute.

PEDRO OTXOA

Erabat normala da elebidun batek bere lehen hizkuntzan hitz egiteko joera izatea, errazago komunikatzen baita lehen hizkuntzan bigarrenean baino. Lehentasunak ezagueratik erabilerarako jautzian hauek lirateke:

- Onartzea ahalegin berezia eskatzen ari gatzaizkiela.
- Bere burua eroso sentitzeko baldintzak sortzea.
- Euskal mundua zabalagoa eta erakargarriagoa bihurtzea.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Ezagueratik erabilerara jauziaren lehentasunak:

Lehenengoa da, eta ezinbestekoa, euskararen erabilerari eustea euskara berez egiten den herri eta eskualdeetan. Horrek beharantz egingo balu, gainerako bitartekoek porrot egingo lukete uste

baino lehenago. “Eutsi”, hots, lagundu, bultzatu, indartu, eta euskararen erabilera ezaugarri bizi eta estimagarrien bezala hartu. Eta horretarako, elementu nagusia udalek behar dute izan eta edozein plangintza udalekin eta mankomunitateekin batera egin behar dira, beti ere toki horietako elkarte eragileen partaidetza osoz.

Bigarrena: Beti eta nonahi –Administrazioarekin lotzen diren zerbitzu guztietan, erakunde ofizialetan, aurrezki kutxa eta banketxetan– euskaraz egiteko aukera lehenengo aditzera ematea, nahiz sarreran, nahiz telefonoz, nahiz beste edozein harrera motatan.

Eta alderantziz ere berdin: euskaraz atendituak izan nahi dutenek eskain/eska dezatela, formak zainduz, euskara erabiltzeko nahia. Honek uste baino gehiago lagunduko lieke askori erabilerara jauzia egiten. Sinplea dirudien arren, eragingarria gertatzen da.

Hirugarrena: Irudimena jarri eta gazteekin batera lan eginez bide berriak ireki.

ANA URKIZA

Ezagueraetik erabilerarako jauzia bermatzeko lehentasunak honakoak lirateke:

1. **Aisialdia eta kultur ekoizpena:** aisialdia bizitzeko eta kultura kontsumitzeko orduan, hizkuntza erreferentziala euskara izatea.
2. **Erreferente politiko eta instituzionalak:** bai politikariak eta bai herri erakundeak erreferente izan behar zaizkigu hizkuntza politikaren inguruan: bai euskara erabiltzen dutelako, bai euskara bultzatzen dutelako.
3. **Hezkuntza eta lan-mundua:** ikasketa oro euskaraz egin ahal izatea eta euskaraz gaitutako gazteek (batez ere) lanean ere euskaraz bizitzen jarraitu daitekeela kontzientziaztea eta ahalbidetzea.

3. HAZKUNDE KUANTITATIBOA ETA GAINBEHERA KUALITATIBOA

Hizkuntza politikaren lehentasunen artean euskaraz dakiten hiztunen kopurua ahalik bizkorren hazteak ala euskaraz nagusiki ari diren eremuak zaintzeak izan behar du?

Euskaraz dakitenen kopurua haztea hartu da lehentasuntzat, euskaldunenak diren eremuak bigarren maila batean utzirik?

Bi kontzeptuak kontrajarrita daude, osagarriak dira, ala bietako bati eman behar zaio lehentasuna?

KIKE AMONARRIZ

- Uste dut bi kontzeptuak osagarriak direla. Bizi garen gizartean ez dago “eremu isolaturik”. Baserririk urrunenean bizi dena ere “kalean” bizi da gaur egun. Horregatik, “eremurik euskaldunak” halakoak izaten jarrai dezaten ezinbestekoa izango zaigu euskararen ezagupena hedatzea. Bestalde, euskara ikasten dutenek praktikarako eremu erreferentzialak izan behar dituzte, non euskara ohiko erabilera hizkuntza bakarra (edo nagusia) izango den.
- Nolanahi ere, edozein esparrutan gertatzen den bezala, badaezpada ere, aurrena daukagunari eustea komeni (nagusiki euskaraz ari diren eremuak), eta horrekin batera eremu eta hiztun berriak lortzea. Bereziki zaindu behar ditugu, euskarak betidanik izan dituen edo irabazi dituen eremu eta esparruak.

KOLDO BIGURI

Euskara familian jaso duten euskaldunen erabilerak izan beharko luke lehentasuna, horiek direlako hizkuntza erabiltzeko erraztasunik handiena izango dutenak eta atxikimendu handiena izango diotenak. Baina euskara ikastera iristen diren bestelako hiztunei euskara gehiegizko zama gerta ez dakien ere ahaleginak egin behar dira, errazenera joko baitute bestela: erdarara eta euskarari ezinikusia hartzera. Beharbada hiztun berriak bilatu nahi izan dira, baina zein neurritan aurkitu dira hizkuntzarekiko atxikimendu sendoa duten hiztun berriak?

ANA EIZAGIRRE

Ez dira kontrajarriak, osagarriak baino. Hiztunen kopurua hazten den heinean, euskaldunen euskaraz hitz egiteko aukerak zabaltzen dira eta era berean ikasten ari direnen praktikatzeko eremuak handitzen dira.

Ez dakit neurtzen bati edo besteari eman behar zaion indar gehiago baina tokian tokiko gauza dela deritzot.

Adibidea: Bilboko Miribila-San Francisco auzoa oso lotuta dago "Bilbao la Vieja"rekin. Hemen euskaldun anitz bizi dira, euren artean euskaraz egiten dutenak eta auzoan lan asko egiten dutenak. Miribilan ez badugu euskara hiztunen kopurua zabaltzen egoera ez da aldatuko, hau da bi gizarte esparru mantenduko dira. Era berean euskaldunek ez badute ikusten euren seme-alaben euskara maila mantentzen dela, alde egingo dute eta auzoa geratuko da orain hamar urte zegoen moduan.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

GEHIAGO ETA HOBETO

Hizkuntza-estrategiaren alde kuantitatiboan apustu egin beharra, pasa den mendeko erdialdean bizi zen larrialdiari emandako erantzuna da. Orduko gizarte-ekimenak dira ikastolak eta euskaltegiak, 1978aren osteko euskal botere publikoen aurrekoak, alegia.

Eta estrategia horrek izan du ondorio nabari bat, besteak beste, azken hogeita hamar hauetan: bi eremu horietako bakoitzean, Administrazio publikoaren eskolekin eta euskaltegiekin lehia bizian jardunez, “nork euskaldun gehiago” gizartera ekarri, nork euskal gizarte-babesa lortzeko. Eskola erlijiosoena, beranduago kontua da.

Lehiaren koordinatu horietarik kanpo egon den Lanbide Heziketaren erdal egoera, goian esan den froga-agiri onena da, Administrazio publikoaren eskolek ez zuten norekin lehiatu beharra, eta horien euskalduntzea eginkizun dugu.

Beraz, hazkunde kuantitatiboan segitu beharra dago, jardun estentsiboan, hiztun kopurua handitzen, alegia. Eta kalitatea hobetzearen bidean, jardun intentsiboan, eskolaldirako euskal curriculumean adierazitako komunikazio kompetentziak ditugu ikertoki, jardun eremu eta erronka.

Gehiago eta hobeto egiteko dagoen hori ere lehian, jakina, denok irabaziko dugun lehian.

ITZIAR IDIAZABAL

Bi kontzeptuak osagarriak dira duda barik. Zaila da kalitatea kantitaterik gabe, alegia dakitenen kopurua zabaltzen ez bada nekez gartuko da erabilera aberatsa. Azken batean, erabilera dagoen heinean, aberasten da hizkuntza bat. Eta erabilerak, guztiak dira baliagarri; behartuta edo legearen agindupean sortutakoak ere, ganoraz egin eta onartzen diren heinean behintzat, kalitaterako prozesuan murgildu daitezke. Esan nahi dena da, eskolan edo administrazioan ere, gauzak ondo egiten badira, erabilera indartzen (ziurtatzen, hobesten, saritzen) bada, erabilera horrek ekartzen duela erraztasuna, eta ondorioz erabileraren gehitzea eta aberastasuna.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Euskaraz nagusiki ari diren eremuak zaindu behar dira eta, honetaz, ez dela ongi planifikatu esango nuke. Beraz, eskualde euskaldunek beharko lukete lehentasuna, adibidez, Lea-Artibai, Urola Kosta,

Aramaio-Legutio. Bi kontzeptuak ez daude kontrajarrita, osagarriak baitira. Hori bai, Enkarterri eta Arabako Errioxan beste erritmo eta plangintza batez gobernatu behar da.

LUDGER MEES

Euskararen inguruko eztabaida askotan bezalaxe, hemen ere gezurrezko kontraesan bat sortu dugu. Nire ustez, aipatzen diren bi helburuak ezinbestekoak bezain osagarriak dira. Izan ere, euskara hedatzen ez bada ahalik eta gehien, eremu euskaldunak azken finean indioen erreserbak bilakatuko baitira. Eta bestetik, euskara garatu eta landua duten eremu horien ezean, hizkuntza garatzen ari diren eremuetako hiztunek ez lukete erreferentziarik izango. Bien arteko dinamika sortu behar da, jakinda Barakaldon egiten den euskara inoiz ez dela Baztanen egiten denaren parekoa izango, are gehiago, ez luke beste horren kopia izan beharko.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Nire ustez biak dira indartu beharrekoak, eta ez dut onartzen kontrajartzea, zeren eta bietan jo baitaiteke aurrerago, nola epeak zehaztuz eta bitartekoak gehituz. Bi kontzeptuak ez daude kontrajarriak, baizik eta osagarriak dira. Horregatik ez dut ulertzen zergatik batzuek sustatzen duten irakaskuntzan B2tik B1era helburuak erasiteko planteamendua.

JASONE MENDIZABAL

Biak dira osagarriak, zalantzarik gabe. Bi lan ildoak dikotomia modura azaltzea ez da egokia. Langabeziaren kontrako borrokan, adibidez, ez da esaten: zer da hobe, lanpostu berriak sortzea edo lehendik daudenak mantentzea? Ba hemen berdina planteatu beharko litzateke.

Hiztunen kopurua hazteko (bai ezagutza eta bai erabilerari dagokionez) lana behar-beharrezkoa da, hizkuntza komunitate gero eta zabalago bat oinarri sendoagoa izango baita normalizaziorako.

Hizkuntza komunitate zabalagoetan harreman-sareak gehitu egingo dira, gehiago sortu eta kontsumituko da euskaraz,...

Horrekin batera, behar-beharrezkoa da euskaldunak diren eremuak (gune fisiko eta funtzionalak) babestea. Sinbolikoki duten balioaz gain, trakzio funtzioa ere betetzen dute eremu hauek.

GARBIÑE MENDIZABAL

Bi kontzeptuak osagarriak dira, bakoitzari dagokion eremuan eman behar zaio lehentasuna. Esan nahi da, euskaldunak diren eremuak zaindu egin behar direla derrigorrez, askotan hizkuntza normalkuntza ere ez dutela behar pentsatzen baitute, euskaraz egiten dutelako natural. Hemen adibidea jarri nahiko nuke, herri txiki euskaldun batean bertako alkateak esaten zuen ez zutela hizkuntza politikarik behar, herritar guztiak euskaldunak zirelako, baina gero arrandegian “HAY SARDINAS” bezalako kartelak azaltzen ziren.

Aldi berean, euskaraz dakiten hiztunen kopurua haztean ere jarri behar dira indarrak, izan ere, aipatutako herri txiki horretara, etxebizitza merkeago dagoelako kanpotik etortzen badira erdalduinak, eta horiek euskalduntzen ez badira, pixkanaka “kutsa” dezakete euskal giroa.

MERTXE MUGIKA

Euskaraz dakitenen kopurua haziko da euskaraz funtzionatzen duten eremuak eta pertsonak ugari, ireki eta gizartean esanguratsuak diren neurrian.

PEDRO OTXOA

Ez dago bat ere garbi diagnostiko hori: euskararen hazkunde kuantitatiboa eta gainbehera kualitatiboa.

Euskararen “arazoak” euskararen hazkunde demografiko, geografiko eta funtzionalarekin lotzen dira. Baina “arazo” horiek haz-

kunde arazoak dira, ez galera arazoak. Euskara ez da inoiz salbatuko hazkunde arazorik gabe.

Benetako galera arazoak “euskaldun zaharren” eremukoak dira, gehienbat. Eta arazo horiek larriak dira euskarak estatus ofiziala ez duen lurraldeetan.

TOMAS URIBEETXEARRIA

Lehentasuna euskara irakasteari eman zaio, eta, ziurrenez, lehenengo fasean hori zen beharrezkoena. Dena den, aipaturiko bi kontzeptu horien artean ez dago kontrajarpenik, osagarriak eta elkarri laguntzen diotenak baitira.

Euskaraz dakiten hiztunen kopurua hazteak bere bilakabidea du, eta horri ohiko laguntzak eskaini behar zaizkio jarrai dezan bere bidetik. Ez nuke, beraz, bi egiteko horien arteko lehentasunaz arazorik planteatuko hizkuntza politikaz ari garenean, biak direlako maila berdinean zaindu beharrak.

Baina euskararen erabilera indartzearen eremura mugatuz, euskaraz egiten dutenen eremuari eman behar zaio pisu berezia, baina hori ere tokian tokiko egoeraren arabera, euskaraz egiten ez den tokietan hiztunen kopurua gehitzera jo beharko baita.

ANA URKIZA

Nire ustetan, bi kontzeptuak osagarriak dira edo eta batera landu beharrekoak, hau da, hizkuntza politikak bi lan paralelo egin behar ditu: batetik, euskaraz dakiten hiztunen kopurua hazi eta, bestetik, eremu euskaldunak zaindu.

Helburuko publiko ezberdinak dira, premia ezberdinekin; eta hizkuntzari dagokionean ere, ekinbide ezberdinak eskatzen ditu.

4. ADMINISTRAZIOA ETA EUSKARA: BOTERE PUBLIKOEN JARRERA

Euskara normalizatzeari eta prestigioa emateari begira, arduradun politikoek ere dagokien erantzukizuna onartu behar dute. Jendartean pisu handia duten eragileak dira, eta, iritzi sortzaile diren neurrian, ezinbestean elebidunak izan beharko litrateke. Izan ere, badirudi euskara agenda politiko askotatik desagertzeaz gain, administrazio, alderdi politiko edo eragile sozio-ekonomikoetako arduradun askoren kezketatik oso urrun dagoela.

Ba al da gako zehatzik euskara agenda politikoetan sartzeko?

KIKE AMONARRIZ

- Batetik alderdi eta eragile politikoek euskara erabili egin behar dute eta erabilarazi beren eragin esparruan. Horretarako, arduradun horiek euskara jakin egin beharko dute, erabili, eta gutxienez, erabilera ez oztopatu.
- Hizkuntza politikak zentraltasuna irabazi behar du erakunde politiko, sozio-ekonomiko eta administratiboan eguneroko funtzionamenduan:
 - Euskararen erabilera bermatuz.
 - Eztabaidatzen diren gai desberdinetan eta hartzen diren erabakietan, euskararen erabilera, presentzia eta eskaintza bermatuz.
- Azken batean, administrazioak, alderdi politikoek eta eragile sozio-ekonomikoek hizkuntza politikaren aitzindaritzza hartu be-

har dute; euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzen ez dituzten jokabideak baztertuz eta agerian utziz.

- Erreferentzia bezala, interesgarria iruditzen zait emakumeen eskubideen alde aurrera eraman den estrategia aztertzea.

KOLDO BIGURI

Erabilera da gakoa. Eta erabilera zuzena, zehazki. Zenbat politikari euskaldunek esaten dituzte, egiten dituzten jendaurreko ekitaldietan, aurkezpen hitz batzuk euskaraz eta gero gainontzeko guztia erdaraz? Gehienak.

ANA EIZAGIRRE

Gizarteak euskarari lehentasuna (duen balioa barneratzea) ematen dionean hasiko dira politiko batzuk bere agendan sartzen.

Oraindik ez da ulertzen, gizarte esparru zabal batean, arautu dezakegula euskararen erabilera edo ezaguera “berdintasunaren” arauak jarri ditugun moduan. Demokrazia edo ekitate printzipio bezala ez ikusteaz gain oso urduri jartzen dira. Ez dut uste politika bakarrik dagoenik tartean. Beldur bat ikusten da posizio horien azpian, konfiantza falta...

J. IÑAKI ETXEZARRETA

LIDERREN EUSKARAZKO JARDUERA PUBLIKOA

Gaitegi honen bigarren puntuan eskatzen zitzaizkigun hiru lehentasunetako bat, Liderren euskarazko jarduna azkartzea, seinالاتu dut.

Gizarte demokratikoen ezaugarrietan sakontzearekin batera (genero berdintasuna, alboratutakoen gizarteratzea, kohesio soziala...) datozen neurri zehatzak (genero, sexu, ondare eta abar) euskarazko jardun publikora ekarri beharrean gaude, geure liderren hizkuntz portaeretan konpromiso handiagoak eskatuz (hautagai/hautetsien eta goi karguen euskaldun kopuruetan, hauek burutzen

dituzten ahozko adierazpen publikoen proportzioetan, euren artean eszenifikatzen dituzten jende aurreko eztabaidetan...).

Lehentasun honetan ere, kantitatearen aldeko lana bultzatuko nuke.

ITZIAR IDIAZABAL

Bai, badira zenbait baldintza, garai batean, (orain 25 urte, esate baterako) garbi zeudela ziruditenak, baina orain ahaztu direla diruditenak.

- Nola da posible euskaraz ez dakien, eta ikasten ahalegintzen ere ez den lehendakari gai bat aurkeztea, eta inork hori ez salatzea?
- Agenda politikoetan sartu beharko litzateke zer egiteko prest dauden, eta orain arte zer egin duten, eta zergatik ez duten egin beharrekoa egin orain arte. Erantzukizunak ere agerian egon behar dute. Asmo onak adieraztea erraza da, baina ez dira sinesgarriak erantzukizunik gabe agertzen badira.
- Euskararen erabilera bultzatze aldera, bada, beste leku batzuetan ere onartu izan den egitasmo bat, alegia euskaraz hitz egitea nahi duenak agerian jarriko duen nolabaiteko ikurraren kontua. Uste dut, gainera, markatu behar litzatekeena ikasle izaera litzatekeela. “Ikasten ari naiz” edo antzeko zerbait, euskaldun guztiok onartzeko modukoa izan behar lukeela, izan ere maila batean edo bestean, bizitza osoan baikara gure hizkuntza/tzen ikasle.

JOSE LUIS LIZUNDIA

“desagertzeaz gain ...” ondoren, “gubernuetako, diputazioetako eta udaletako agintariek, Parlamentuetako, Batzar Nagusietako eta Udalbatzako taldeek, alderdi politiko...” tartekatuko nuke, Europako edozein sistema demokratiko homologatuen gisa. Badago gako

zehatzik euskara agenda politikoetan sartzeko, hots, hiritarrok bozkatzen dugunean hautagaien euskaltzaletasun praxiari, ideologiari baino gehiago begiratzea, hau kontutan izanda ere.

LUDGER MEES

Lehenik eta behin, ez zait iruditzen –euskararen errealitate soziolinguistikoa ezagututa– “arduradun politikoak ezinbestean elebidunak izan beharko liratekeenik”. Horrek esan nahiko luke biztanleriaren bi heren res publico-aren kudeaketatik at uztea eta hori demokrazia batean ezin da onartu. Beste kontu bat da hiritarrok alderdi politikoek euskararekiko erakusten duten konpromisoaren seriotasuna irizpide honen arabera neurtzea. Hau da, zer sinesgarritasuna dauka bere ordezkarien artean euskaldunik ez edo euskaldun gutxi daukan alderdi batek? Eta zer sinesgarritasuna dauka euskararen aldarrikapena eten gabe ahoan eduki ohi duen alderdi batek bere kanpoko agerraldietan eta barneko bizitzan hizkuntza hori erabiltzen ez badu?

Bestetik, azken bolada honetako gertakariak ikusita, ez dut uste “euskara agenda askotatik desagertzen” ari denik. Kontrakoa gertatzen ari da: dirudienez, hauteskundeak irabazi ahal izateko euskararen aldarrikapena beharrezkotzat jotzen da arduradun politiko askoren partetik. Beraz, kontu ez da galdetzea nola sartu behar den euskara agenda politikoetan, baizik eta nola ekidin –printzipioz adostasuna bilatu behar duen– euskararen inguruko eztabaida sentsibilitate desberdinen arteko zatikatzaile bihurtzea.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Emakumearen presentzia kuotaz onartu den modura, politikoek euskara ezagutu eta jendaurrean erabiltzea ere kuotaz arautzeak normala izan beharko luke, beste errealitate batzuetan bezala.

Funtzio publikoa eta funtzio publikoa herritarren zerbitzuan daude (edo beharko lukete), hiritarrak zergaz ordaintzen baitituzte.

Horrek alderdien euskalduntze-planak eskatzen ditu, epe eta bitarteko zehatzekin, eta askok erabiltzen dituzten diskurtsoekiko koherentea izango den praxia.

JASONE MENDIZABAL

Bai, zuzendaritza politikoeak erabaki irmoa hartzea euskara lan hizkuntzat hartzeko eremu politiko-ekonomiko-instituzionalean. Behin erabaki hori hartuta, beste guztia, hau da, epeak, eritmoak, baldintzak... berez etorriko/negoziatuko lirateke. Baina erabakia zuzendaritza horiena da, ez euskararen aldeko eragileena. Hauek hori iradoki, aholkatu... dezakete baina ez dago euren esku. Beraz gakoa bakoitzak bere gain du.

Berdintasun-legeak ustez legez egin ezin zitekeen zerbait legez arautzea ekarri zuen duela urte gutxi batzuk. Gaur egun, legez dago onartua emakume eta gizonen partaidetza alderdien zerrendatan nolakoa izan behar den. Jakin badakigu hobe dela borondateak irabaztea, baina arautzea ere zilegi dela esan beharra dago.

GARBIÑE MENDIZABAL

Agintariak ezinbestean elebidunak izan beharko lirateke. Eta, are gehiago, bere adierazpenak euskara hutsean egin beharko lituzkete komunikabideen aurrean, euskara prestigiatzeko modu pisuzkoena iruditzen zait. Konplexurik gabe egingo beharko lukete, gainera, agintari batzuk erreferente izan beharko lukete horretan. Efektu biderkatzailea izango luke horrek herritarrengan. Baina zail dela era badakit, botoak baitaude tarteko, eta ez dute agintari guztiek hori egiteko eskuzabaltasunik.

Ba al da gako zehatzik euskara agenda politikoetan sartzeko? Pako Aristik artikulu batean esan zuen bezala, “ojalá” politizatuko balitz euskara, ea nork eskaintzen duen euskara indartzeko ekintza edo programa hobea, zein baino zein azalduko balira alderdiak gai horrekiko!

MERTXE MUGIKA

- Euskaldunok pisu soziala izatea eta hura erabiltzea. Ez soilik aldarrikapenekin eta kexaka.
- Euskara politikatik banandu beharra dagoela azpimarratzen da behin eta berriz, baina hori esateko argudio guztiz politikoak erabiltzen dira. Bada garaia koherentziaz jokatzeko eta gizarte elebidun batean sinesten badugu, asmoetatik ekintzetara pasatzeko.

PEDRO OTXOA

Euskal hautesleek baloratu egiten dute oraindik politikarien erabile-
ra euskaraz. Ez dirudi horretan atzera egin dugunik. Dena den, hor
dago gakoa: hautesleen hizkuntza exijentziaren mailan.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Bai, politiko askok ez diote kasurik egiten euskararen aferari, hori
Kultura eta Hezkuntzako en ardura bailitz bakarrik. Nire ustez, ez
zen ongi egin Euskara Lehendakaritzatik kanporatu zenean eta
kulturara eraman zenean. Euskara ez da kultura, hizkuntza baizik,
komunikazio tresna baizik. Herri honen komunikazio tresna de-
nez, erabateko garrantzia du, kulturaren agerpen guztien gainerik.
Politiko guztiek eta gizarteko eragile orok, herri honetan, hori beti
aurrean eduki beharko lukete eta ahalegindu komunikazio tresna
horri laguntzen. Eta, esan bezala, aurreneko erabakia euskararen
erantzukizuna Lehendakaritzara itzultzea da, gako horretatik espre-
suki zintzilikatuz –ez orokorki, beste materiak bezala– Sail guztiak,
eta Lehendakariak kontzientzia osoz hartuz bere ardurapeko gairik
orohartzailleena euskara duela, eta horri ez diola ez ezerk ez inork
ihes egiterik.

Hala ere, bada beste gako bat, agian garrantzitsuagoa, aipatu
beharko litzatekeena: alderdi politikoek euskararekiko duten jarrera.

Euskara ahotan darabilte beti, baina ez dute ekintzetara eramaten. Ordua da aldatzen eta alderdi barruan eta karguetan betetzen has-teko, eurek eman behar baitute aurrena etsenplua.

ANA URKIZA

Agenda politikoak aztertzerakoan bi ikuspegi izan behar ditugu kon-tuan: forma eta edukia.

- 1. Formari edo erabilerari dagokionean:** kontsumitzaileen de-kretuarekin egin den bezala, hiritarrak ere beste dekretu an-tzeko bat beharko luke, agintari politikoengandik jasotzen duen informazioa euskaraz ere jaso ahal izateko, hau da, politikarien diskurtsoaren %50a, gutxienez, euskaraz jasotzea bermatzeko. Eta normalizazio egoera batean, euskaraz egiten den %50ak ez luke itzulpena izan behar.
- 2. Edukiari edo euskara gai bezala tratatzeari dagokionean:** Hizkuntza Politika Sailak agenda politikoetan euskara bultza-tzeko kanpainak txertatzeko ahalmena izan beharko luke, hau da, urtean lau aldiz, kasu, agenda politiko guztietan euskara in-dartzeko eta bultzatzeko mezua txertatzekoa.

5. HIZKUNTZA GAITASUNA

Urtetik urtera handitzen doan kolektiboa da lan mundura abiatzen diren profesional euskaldunena. Ikasle hauen gaitasun linguistikoa hamaika azterketa eta lan akademikotan frogatua izan da. Eta, paradoxikoa den arren, duten hizkuntza gaitasuna demostratu behar izaten dute lan munduan euskalduntzat hartuak izateko.

Nola zuzendu paradoxa hori?

KIKE AMONARRIZ

- Ez dut gaia sakonki ezagutzen baina iruditzen zait, gaur egun ikasketa guztiak D ereduan egin dituen ikasleak ez lukeela bere hizkuntza maila frogatzeko tituluen beharrik izan behar, hizkuntzarekin berarekin zerikusi zuzena duten funtzio jakin batzuetarako ez bada behintzat. Ikasketak euskaraz egin eta gainditu dituela egiaztatuta, euskararen oinarritzko ezagupenak suposatu egin behar zaizkio.
- Eta euskara erabiliko den lanpostuez ari bagara, lanposturako frogak euskaraz eginda konpontzen da arazoa.
- Ez baitut uste lanpostu jakinei begira, tituluek oro har, ikasketa osoak euskaraz egin izanak baino informazio baliagarriagorik eskaintzen digutenik, ondorengo erabilerari begira. Tituluen eskaerak, euskararen ezagupena beste moduren batean frogatu ezin den kasuetara murriztuko nituzke.

KOLDO BIGURI

Nire ustez, gehiegizko azterketa-zaletasuna daukagu euskararekin: euskalduna izatea hesi-lasterketa bat bezala da, eta horrek asko

nekatzen du. Begira zer gertatzen den EGAKo gainditze kopuruekin: oso baxua da, eta ikasle asko ikastoletatik pasatutakoak. Zer dago gaizki, ikasi duten euskara, ala erabiltzen dugun etengabeko probatu behar hori?

ANA EIZAGIRRE

Zuzenketa zuzena: Euskaraz 2 urtetik aurrera ikasi duena eta Goi mailako ikasketak euskaraz egin duenak hizkuntza gaitasuna du.

Eta ez badu, zer nolako ikasketak egin ditu ezer ulertu gabe?

J. IÑAKI ETXEZARRETA

ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ALDE

Lan merkatuaren garai bateko logikari erantzuten zion hizkuntz gaitasuna egiaztatzea euskarazko lan postuetan aritzeko.

Lan merkatuak bilakaera handia izan du azken bi hamarkada hauetan, eta langileen ezagutza, gaitasuna, kompetentzia ... ibilian ibiliz egiten joatea, hamar bat urtetik behin (eperik luzeenean) berritzea eta eguneratzea dira ildo eraginkorrenak.

Hizkuntz gaitasunari egiaztatzen duen diploma eskatu beharra utz dezagun oso kasu/lanbide partikularretarako, eta irabaz dezagun beste esparru bat: langileen etengabeko prestakuntza eremua, langile horien hizkuntz kompetentzia, komunikazio kompetentziarekin lotuz. Kantitatea eta kalitatea irabaziko genituzke.

ITZIAR IDIAZABAL

Agiriak baino askoz emankorragoak lirateke erabileraren jarraipen edo ziurtagiriak. Nola edo hala ahalegintzen dena interesgarriagoa da agiria izan eta inoiz euskara erabiltzen ez duena baino. Neurgarri aproposak asmatu beharko lirateke erabilera hori ziurtatu, babestu, txalotu eta indartzeko.

Behar bada euskaltegiak berak ere, edo irakasle berezituak, zenbait lantokietan, ikasle edo praktikatzaile asko legokeen tokietan bertan murgildu daitezke euskararen erabilera sustatu eta ahalegin horretan laguntzeko. Alegia, euskara ez dadila beti eskolara mugatu.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Paradoxatzat ez dut hartzen, izatekotan praxiari eta profesionaltasunari segiziorik ez egitean dago gakoa. Ezagutzen al da abokaturik “Aranzadirik” ez duenik, edota medikurik “Vademecumik” eguneratu gabe? Ostera, euskal irakasle edo profesional ugari EGA edo beste tituluren jabe eginez gero, euskal arau akademikoen eguneratzeaz, adibidez, ez dira asko arduratzen.

LUDGER MEES

Ez dakit oso ondo paradoxa hori ondo ulertu ote dudan. Honekin esan nahi bada ikasle batek, bere ikasketa guztietan euskaraz egin baditu, ez litzaiokeela gero EGA titulua eskatu beharko administrazioarako (edo bestelako) lanpostua bete nahi badu, tituluen baliokidetzaren arazoa da eta ez besterik. Nolabait frogatu beharko du ikasle ohi horrek euskaraz dakiela euskara eskatzen duen lanposturako bere burua aurkezten badu.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Irakaskuntzak euskararen ezagutza unibertsalduko balu, gaztelaniaz bezala hezkuntza-prozesuaren ondoren suposatutzat hartuko litzateke ezagutza maila hori. Baina, zoritxarrez, gure egoerak defizit handiegiak ditu. Eta gainera, hezkuntza-aldian euskara menderatzea lortu ez dutenek, ondoren euskaltegien laguntzat helburu hori lortu beharra dute.

Seguru asko, gauzak aztertu eta hobetu daitezke, baina egoera normaltzen ez den bitartean paradoxa hori ez da erabat desagertuko.

Baina epe batean urek beren bidera etorri beharko lukete. Dena den, eleaniztasunezko testuinguru batean, bakoitzaren “glotobiografia” bat izateak lagun dezake lan munduan murgiltzeko hizkuntza bakoitzaren egoera ezagutzeak, ezein hizkuntza salbuetsi gabe.

JASONE MENDIZABAL

Alde batetik, beharrezkoa da lan munduan sartzeko euskara perfilak arautzea, hezkuntzan euskararen alde egindako ahalegin ikaragarriak lan mundura heltzerakoan izan dezan jarraipena. Administrazioak erantzukizun berezia dauka honetan guztian eta enpresa pribatuak erabilera planetan sar daitezen sustapen lana egitea ere ezinbestekoa izango da. Lanpostu bakoitzaren izaera eta hizkuntzak lanbide horretan betetzen duen funtzioa, hartu beharko dira kontuan hizkuntza perfilak zehazteko. Besterik da hizkuntza gaitasuna demostratzeko zein den biderik egokiena. Zenbait kasutan ezin izango dira ekidin euskara frogak, baina hizkuntza gaitasuna froga horiek gabe erakusterik badago, euskara gaitasuna bide “normalago”-en bidez erakusteko moduak sustatu beharko lirateke. Adibidez, gazteen hizkuntza gaitasuna horrenbestetan frogatuta badago eta beraien curriculumean jasota, lanerako aukeraketa prozesuko froga arruntak normaltasunez euskaraz egiten badira kontrastatu daiteke curriculum hori eta euskara mailaren egokitasuna. Bestalde, lanean hasi den gazte horrek lan munduan euskara erabiltzeko helburua eta horretarako irizpideak ezarrita badauzka, horixe izango da murgiltze prozesurako bidea.

GARBIÑE MENDIZABAL

Bai, askotan entzun ohi izan da, gaztelerazko azterketak egin izango balira, erdiek baino gehiagok kale egingo luketela. Hezkuntza ereduak dira hor gakoak. Orain artekoak ez du lortu gazte elebidunak ateratzea eskoletatik eta eredu-sistema aldatu beharko litzateke hori

bermatu ahal izateko, hartara eskola-prozesua amaitzean ez lukete gazte horiek frogatu beharrik izango euskara edo gazteleraren gaitasunik.

Dena den, lan munduan euskarak ez du hainbeste tokirik, izan daiteke eremu euskalduneneko lantegi bat eta langile asko eta asko euskaldunak, baina lana erdaraz egiteko ohitura dago. Gakoa, besteak beste, lanbide-heziketa ere bada hemen. Lanbide-hezkuntza zaindu eta landu beharreko eremua dela iruditzen zait, aparte samar utzi izan delako eta hori gazteek hartzen dituzten ohiturak gero lan mundura eramaten dituzte.

MERTXE MUGIKA

- Hori horrela gertatzen da? Administrazioetik kanpo (eta ez beti) ez dut uste, izan ere eremu pribatuan hamaika azterketa gainditu behar dutenik ez da egia.
- Zelan zuzendu? Sarritan lan batean hasterakoan probaldia egoten da; gainontzeko gaitasunak baloratuak izaten diren moduan, hizkuntza ere horren barruan sartuko beharko litzateke.

PEDRO OTXOA

Bi gauza hartu behar dira kontuan arazo honi dagokionez: batetik, irakas-sisteman “ezagutza” irakasten dela gehienbat “erabilera” baino. Eta bestetik, ezberdina dela ebaluazio sumatiboa (curriculumaren edukiak ezagutzen direla neurtzen duena) eta performatiboa (benetan egiten dakizuna neurtzen duena). Ebaluazio sumatiboa curriculumak irakatsi duten irakasleek egiten dute. Performatiboa independenteagoa da: irakatsi ez duten aztertzaileek egiten dute.

Irtenbidea balio administratiboa izango luketen ebaluazio performatiboak egitea litzateke, maila ezberdinak bereiziz (16 urteko ikasle bati eska dakiokiena ez baita unibertsitateko katedradun bati eska dakiokien gauza bera).

TOMAS URIBETXEARRIA

“Hizkuntz gaitasuna demostratu” beharra ezinbestekoa da, beste edozein gaitasun eskatzen denean aurretik haren ezagutza praktikoa frogatu behar izaten den bezala. Horretatik ez dago inor libratu beharrik, ez ikasketak euskaraz egin dituenak, ez euskaldun petoena, eskatzen den mailarako berariazko titulua duena izan ezik.

Badira, ordea, inolako titulurik behar ez duten lanak eta postuak, atezain izateko, esaterako. Horretarako ere froga praktikoa, dagokien maila errespetatuz, aski izan beharko lukete, inolako titulurik eskatu gabe.

Horrek ez du esan nahi zuhurtasuna eta zentzu ona baztertu behar denik gaitasuna onartzean. Titulua edukitzeak eta euskara jakiteak ez du esan nahi erraztasun osoa izan behar dutenik, batez ere euskaldun berriak. Lagunduz eta arituz lortuko du erraztasuna, edozein postutan hasi berriek praktikarekin menperatzen duten bezala beren egitekoa.

Badira espezializazioa eskatzen duten lanak, itzultzaile, esaterako. Kasu hauetan ez dut uste euskarazko titulua aski izan behar duenik nahitaez.

ANA URKIZA

Ez dut egoera hau oso paradoxikotzat hartzen; izan ere, lanpostu asko eta askotan, ikasketa tituluarekin etorrira ere, sarrera-frogak egiten baitira, bai ingelesari dagokionean, eta baita ikasketei dagokienean ere (idazketa frogak, lege edo araudi-ezagutza, planifikaziorako gaitasuna, merkatu azterketa...).

Alde honetatik, euskara gaitasun frogak ere, “beste” froga bat gehiagotzat bezala hartuko nituzke, hau da, kontratazioa burutu behar duenak berme gisa ezarri nahi duelako (adibidea, eremu pribatukoa da).

6. EUSKARA ETA TITULITISA EDO “TITULU-GRINA”

Euskara-gaitasunaren eskaera *titulitisarekin* lotzeak eta titulua lortzeko zailtasunak onargarriak al dira?

KIKE AMONARRIZ

- Egoera honetan, ez genuke euskararen eskaera horren sistematikoki lotu behar tituluekin. Euskararen ezagupenaren eta erabilera eremuen hedapenaren ondorioz, egoera soziolinguistikoa aldatu egin da eta ez dut uste une honetan dugun sistema egokiena denik hizkuntzarekiko atxikimendua eta euskararen erabilera indartzeko. Helduen euskalduntze-alfabetatzean diharduten irakasle batzuk, gai honen inguruko hausnarketa interesgarriak plazaratu dituzte.
- Tituluen oraingo eskaera modua, gehiago dagokio euskararen ezagupena erabilerarekin lotzen ez zen garai bati.
- Euskara, erabil dadin eskatzen den kasuetan, lanposturako frogak berak ere euskaraz egin beharko dira, logikoa den bezala. Horrela, beste gaitasunen artean, hizkuntzarena ere neurtuko da.
- Tituluak lortzeko zailtasunen inguruan ezin dut hitz egin, tituluak lortzeko prozedurez ezer gutxi dakidalako, baina entzundakoaren arabera, badirudi berrikusketa sakona beharko luketela.

KOLDO BIGURI

Euskara-gaitasunaren eskaera *titulitisarekin* lotzeak eta titulua lortzeko zailtasunak onargarriak al dira? Gazte askok eskola sistematik atera eta berehala lortu nahi dute EGA, horretarako behar den

"heldutasuna" izan gabe, nire ustez. Gero, titulua lortzen dutenak "lasai" gelditzen omen dira, euskararekiko guztiak jada egin dituztelako. Ona al da hori?

ANA EIZAGIRRE

Tituluak egon behar dira. Beste gauza da zer motatako tituluak, zer lortzen den bakoitzarekin, zer nolako azterketa mota eta abar.

Komunikazio mailan tituluak egon beharko lirateke. Hain bat lanpostuetan ez baita besterik behar (ez horrenbeste gramatika...). Eta titulu guztietan komunikazioa maila orain baino askoz ere gehiago neurtu behar da.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

TITULUAK, ESKOLAN ETA UNIBERTSITATEETAN.

Euskaraz ikasketak egin dituenak, eskola zein unibertsitate eremuetan, ez du zertan bere euskara gaitasuna egiaztatu beharrik, aparteko zerbait bailitzen.

ITZIAR IDIAZABAL

Titulu guztiak, eta bereziki hizkuntza gaitasunarenak, dituzte zailtasunak, eta ez dut uste euskararen agiria besterik gabe erraztera joan behar denik.

Lan postu guztiak ere ez dira berdinak, eta irakaslea ezin da jendaurrean dagoen bulegari batekin alderatu. Euskarazko lanpostua lortu duenak eta euskara erabiltzen ez duenak ez du bere lana betetzen, beraz, isungarria beharko luke horrek. Halere, isuna baino eraginkorragoa da saria eta onarpena, beraz, era positiboan baloratu behar litzateke euskararen erabileraren alde egiten den ahalegin oro. Horrelako ekimenak lekuz leku hitzarmenez adostea zaila izango da, baina zenbait kasutan, tituluak baino eraginkorragoak seguruenik.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Ez. Honek, seguru asko, HPS, Hezkuntza Saila eta IVAPen arteko hausnarketa eta elkar lan gehiago dakarke.

LUDGER MEES

Titulitisa baino gehiago dagoena "nahasmenitis" edo antzeko zerbait da. Titulu gehiegi daukagu eta beste tokietan dagoen titulu-mapa normalago eta garbiagoa ez badugu, neurri handi batean Eusko Jaurlaritzan ardura hori daramaten bi sailak ados jarri ez direlako izan da (gogoratu, baliokidetzaren azken dekretutik EGA titulua oraingoz at gelditu da). Beraz, tituluaren mapa argitu behar da eta ez tituluak kendu, tituluak baitira gaitasun bat, kasu honetan hizkuntza baten ezagutza, egiaztatzen duten agiri bakarrak. Jakina, horrek ez du esan nahi kasu guztietan titulu bat daukanak, titulua atera eta gero, bere bizitzaren epe guztietan gaitasun hori maila berdinean gordeko duenik: erabiltzen ez denean, galdu egiten da eta. Baina hori beste arazo bat da.

JASONE MENDIZABAL

Euskara-gaitasunaren eskaera *titulitisarekin* lotzeak eta titulua lortzeko zailtasunak onargarriak al dira?

Kike Amonarriz, Andoni Egaña eta Joxerra Garziaren "Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako" txostenean esandakoak kontuan hartu beharrekoak direla esan daiteke puntu honetan.

GARBIÑE MENDIZABAL

Ez nago titulitisarekin konforme, baina nola bermatu, bestela, gaitasuna? Tituluaren jabe izanda ere, askotan ez baita bermatzen gaitasunik.

MERTXE MUGIKA

- Ez da onargarria praktikan ipiniko ez den gaitasun baterako tituluak eskatzea. Sarri askotan, titulua eskatuz euskararekin dagoen konpromisoa betetzen da, komunikazio tresna gisa guztiz baztertua.
- Duda asko daude titulueterako probek eskatzen dutenaren eta neurtzen dutenaren inguruan. Hausnarketa sakona egin beharra dago honetaz.

PEDRO OTXOA

Titulua lortzeko zailtasunak bi arrazoiengatik izan daitezke: hiztuna ez delako iristen gutxienezko mailara edo ebaluatzaileen irizpideak gogorregiak direlako (batik bat euskaldun berriekin). Biak aztertu beharko lirateke.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Titulitisarekin lotzea: Hizkuntzaren gaitasuna berariazko tituluren batekin lotzea da bidezkoena. Askoz okerrago litzateke titulurik eskatu gabe edo eskatzen den tituluaren mailako frogarik gabe erabakitzea zeinahi lanposturako hizkuntz gaitasuna. Eta ez dago zertan loturik tituluaren eskaera *titulitis*-arekin, hori ez baita gertatzen beste edozein espezialitateko postutan, eta ez hizkuntzarekikoetan ere hemendik at.

Euskarari dagokion titulu ofiziala aski da euskara maila egiaztatutzat emateko, inolako beste frogarik gabe.

Edonola ere, hizkuntzaren ezagupenaz, hau da komunikazio tresnarik orokorrenaz, ari garenez, titulurik gabe ere edozein onar daiteke eskatzen den kompetentzia maila frogatzen badu praktikoki.

Titulurik eskatu nahi ez balitz euskararen ezagutza arrunta eskatzen den posturen baterako, uste dut *hizkuntza ofizial bien* eza-

gutza eskatu beharko litzatekeela berdin eta horrela azalduz alde z aurretik, eta bien froga eginez, noski.

Titulua lortzeko zailtasunak: Nik uste dut titulua erdieste-ko frogak, maila apalenetan batez ere, komunikazio-kapazitatea erakustekoak izan beharko liratekeela batik bat, hutsegite formalei balorazio txikiagoa eskainiz.

Gainontzean, frogak zailegiak badira, aski litzateke irizpide berriak, eta biguntzaileagoak, ezartzea, beti ere non dautzan zailtasunak aztertu ondoren, eta frogen prestakuntzaren erantzukizuna irakasle bakoitzaren eskuetan utzi gabe.

ANA URKIZA

Euskara-gaitasuna ez du tituluak ematen baina titulua lortu ahal izateko gaitu egiten gara. Egun, oraindik, hezkuntza sistemak ez du bermatzen gaitasun oso hori.

Bermatuko duenean, tituluaren beharrik ez da egongo.

7. ELEANIZTASUNAREN AURKIA ETA IFRENTZUA

Gizarte elebiduna edo eleanitza egituratzeko orduan, erdal elebakarrak dira mugitu eta konpromisoa hartu behar dutenak, euskaraz dakitenak ez baitira horretarako oztupo. Gehiengo horren esku geratzen da, beraz, euskararen aukera egiten duenarekiko jokabidea: praktikan eragozteia edo ahalbidetzea.

Ba al da alor horretan helburu zehatzik finkatzerik, XXI. mende hasierarako?

KIKE AMONARRIZ

- Egoera horren eragina ahalik eta txikiena izan dadin, ezinbestekoa da euskararen ezagupena hedatzea, gutxienez ulermen maila lortzeraino.
- Erakunde egituratuetan (administrazioa, ikastetxeak, enpresak, etab.) protokolo moduko batzuk landu beharko lirateke, euskararen erabilera bermatze aldera: ikastetxeetako guraso-bilerak, enpresen edo erakundeen batzarrak, ikastaroak, etab. leku aproposak dira hizkuntzen arteko harremanak arautzeko eta praktika elebidunak bermatzeko.
- Bestalde, erdaldunei zuzenduriko informazio eta kontzientziazio kanpainak bideratu beharko lirateke euskararen erabilera sustatu eta errespetatze aldera. Oraindik ere, aurreiritzi, uste oker eta desinformazio handia dago gai honen inguruan.
- “Hizkuntza asertibitatearen” inguruko ekarpenak interesgarriak iruditzen zaizkit bide honetan.

KOLDO BIGURI

Bistan da erdaldun elebakarren aurkakotasunarekin ezin dela ezer askorik egin euskararen alde; haien atxikimendua ere beharrezkoa da, izan aktiboa nahiz pasiboa. Onartu beharko dugu gure gizartean egongo dela euskaratik aparte bizi nahi duenik; nolana, axolagabekeria hobe da etsaitasuna baino. Baina gizartean adostasun bat lortu beharko da, holako jarrerak zilegizkoak direla onartzeko bai, baina baita gizartearen zerbitzuan lan egin nahi duen edonorentzat oso onargarria ez dela argi uzteko.

ANA EIZAGIRRE

Creo que es muy difícil separar el tema del euskera del tema cultural. Y siento a mi alrededor que una de las dificultades para vincularse al euskara es la no identificación con la cultura vasca. La tendencia a la universalización de la cultura entre las y los jóvenes o la idea que lo internacional es mejor que lo propio entre otras generaciones provoca un cierto malestar cuando se ven manifestaciones de defensa de nuestra cultura, de la identificación de cultura propia.

Quitar la idea de que la defensa de lo propio no es cerrarse sino incluirse en una cultura universal que no plantea pérdidas sino enriquecimientos, es básico para que la población castellanoparlante se adhiera a la defensa del euskara.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

EUSKARAREN ALDEKO KULTURA KOLEKTIBOA

Misioa, bisioa, estrategia, helburuak, egitura, prozesuak eta rolak zuzen definituta edukita ere, gizarte elebidun edota eleanitzean euskararen normalizazioa eragin nahi duen politikak besterik behar du: portaerak estrategiarekin koherenteak izatea, Hori gabe, emaitzak ez ditugu izango, edo lor genitzakeenak baino eskasagoak izango ditugu, edota haiek lortzeko zailtasun handiagoak izango ditugu.

Emaizta eta Nolakotasuna elkarri lotuak dira. Portaeretan, lidergoa, ekipoa, komunikazioa ... besteak beste, guztiek elkarrekin, euskararen aldeko politikan geure konpetentzia agerian uzten dute, eta horren giblean baloreak dira, eta balore horiek “konpartituak”, “komunak”, sentitu eta bizi diren heinean, geure Kultura Kolektiboa eraikiko dute.

Eskolan, haur, langile eta familiekin, majo behatua dugu hori, bereziki ikastoletan. Gizarte zabalean, erdaldun sektore zabalean geure adimen emozionala frogatu beharrean gaude euskararen aldeko kultura kolektiboa eraikitzen. Horratx, bada, helburu zehatza.

ITZIAR IDIAZABAL

Behar bada elebakartasunaren gabeziak eta arazoak agerian jar-tzea bera ere ona litzateke, ez baita elebakar dominantea baino ere-du ezkorragorik eleaniztasunarentzat, eta oro har kulturarentzat.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Mereziko luke kapitulu honek hausnarketa propio bat eta beste gi-zarte elebidunetan zer gertatzen den sakonki ezagutzea, alde oker eta zuzenak konparatiboki aztertuz.

LUDGER MEES

Ez dut uste hemen helburu zehatzik (eta neurgarririk) finkatzerik badagoenik. Izatekotan, helburu zehatz bakarra legoke: oraindik euskaraz ez dakiten euskal hiritarren kopurua murrizten joatea er-daldunak euskaldun-berriak bihurtuz. Begi bistakoa da hori gertatu dadin erdaldun horien borondateak izan beharko lukeela oinarritzko abiapuntua, eta borondate hori bi aldagaik eragin ohi dute: bata, lan merkatuan norberaren egoera hobetzeko nahia, eta bestea, hiritartasuna deituko genukeen sentimendua (euskara kulturaren ardatz nagusietariko bat bezala duen herri batean bizi naiz, herri honen partaide sentitzen naiz eta bertako kulturaren aberastasuna

ez dut osorik nireganatuko ez badakit euskaraz). Hiritarron gehien-goak kontrakoa erabaki arte, lan munduan –batez ere lanpostu publikoetan, baina gero eta gehiago baita ere pribatuan– euskara jakiteak abantailak ekartzen jarraituko du. Hiritartasun sentimendua sustatzeko euskara aukera bezala aurkeztu behar da, ez mehatxu edo beharra bezala. Horretarako dagoen bide bakarra publizitate kanpainak antolatzea da, nahiz eta denok badakigun kanpaina horien eragina oso mugatua dela.

Gainerakoan, nik itxaropen gehiago daukat belaunaldi berriengan, horiek gero eta euskaldunagoak izango direlako eta horrela, etorkizunean, gauzak okertzen ez badira, goian aipaturiko arazoa gero eta murriztagoa izango delako.

JASONE MENDIZABAL

Gehiengo hori ez da hain gehiengo izango hemendik lasterrera. Ez behintzat EAEn.

Helburu zehatzen inguruan:

- Euskararik ez dutenei zuzendutako, euskararekiko sentiberatze bideak landu.
- Euskaradunak normaltasunez euskaraz bizi daitezen, kontzientzia eta praktika har dezaten, programak bultzatu (harreman sare euskaldunak egituratzeko programak, sentiberatze programak, erabilerarako aukerak) honek eragin biderkatzailea izango duelako.
- “Normaltasun” hori egiazkoa eta egunerokoa izan dadin baliabide publiko nahikoak eskaini, bai zuzenean bai euskararen aldeko dinamikak lagunduz.

Hortaz gain, gaur egun elebakar gehiago “produzitzea” ez litzatekeela onargarria izan behar ere esan daiteke. Gauza bat da beste herrialde batzuetan sortu eta bertara bizitzera datorren jende berria, baina ezin dena onartu da bertan jaio eta (arrazoia edozein dela ere) euskara ezagutzea bermatua ez duen gazteak egotea.

MERTXE MUGIKA

- Hainbat eta hainbat pertsona konturatzea euskaldunak ere existitzen direla.
- Euskara ikasteko konpromiso zehatzak hartzera bideratu behar dira elebakarrak.

PEDRO OTXOA

XXI. mendeko helburua XX. mendean adostutako bera da: derri-gorrezko eskolaldiaren bukaeran ziurtatzea euskara eta gaztelania ondo ezagutzen direla. Horrekin batera, beharrezkoa izango da hirugarren hizkuntza batean gutxienezko komunikazio mailara iristea.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Bai. Denei, etorkinak barne, eskaini behar zaizkie aukera onak eta erakargarriak euskara ikasteko. Eta eskoletan euskara eta euskaraz ikastea obligazio bezala ezarri denentzat.

ANA URKIZA

Ba al dago gizarte elebiduna edo eleanitza egituratzeko orduan, elebakarren konpromisoa lortzeko bidean XXI. mende hasierarako helburu zehatzik finkatzerik?

Bai. **Erantzukizun Sozialaren ideiarekin** lotu eta landu beharra dago. Gaur egun, oso hedatua eta barneratua dago Erantzukizun Sozialaren kontzeptua, bai kolektibo gisa (demagun, enpresen eta erakundeen aldetik lantzen dena), bai indibidualki (gizabanakoaren kontzientzia-indarra onura komun baten aurrean).

Kolektibo ezberdinok eta gizabanakook euskararen alorrean daukagun erantzukizunaren ideia landu behar da, beraz, beti ere, modu positiboan.

Adibide gisa:

Erakunde finantzario batek nire aurrezkiak direla-eta hirugarren munduko bi umek hilabeteko jana izango dutela esanez zo-

riontzen banau, zergatik euskaraz arituko den edo euskaraz aritzen utziko duen erdal elebakar bati ez diogu esango, keinu horri esker, eremu berri bat euskalduntzen lagundu duela?

8. ERABILERA: LEGEA, INPOSAKETA, KOERTZIOA

Ez da guztiz egia legeek ezin dutela erabilera bermatu. Legez bermatu behar da erabilera-saioak ez direla zapuztuko eta eskubideak ez direla urratuko, eta hori legez bakarrik egin liteke. Ardura politikoa saihesteko modua da hori argudiatzea.

Nahiz eta norbanakoaren borondatea eta guztion “integrazioa” helburu izan, hizkuntza politikak ezin izango du beti inposaketa eta koertzioa erabat ekitin. Are gehiago: hizkuntza politika neurri batean beti izango da inposatzailea eta koertzitiboa, baina inposatzen duenak gehiago demokratiko baten borondate kolektiboa izan behar du oinarri, eta gehiago demokratiko hori ahalik eta zabalena izan dadila ahalegin bereziak egin behar dituzte hizkuntza politikaren arduradunek.

Legea versus pertsuasio ahalmena?

KIKE AMONARRIZ

- “Versus” beharrean “eta” erabiliko nuke. Tabakoaren edo trafikolegeen adibideak hor ditugu, legearen eta pertsuasioaren osagarritasuna frogatzeko. Erretzearen edo alkohol-kontsumoaren inguruan gure gizartean gertatu den mentalitate-aldaketa eredu interesgarria da, hizkuntza normalizazioari begira.
- “Inposizio” hitza, berriz, ez nuke bere horretan eta modu horretan erabiliko. Matematikaren edo ingelesaren ikasketa ez da inposatzen... Matematikak eta ingelesa ikasi egin behar dira. Eta gure gizarte elebidunean, bi hizkuntza ofizialak ere ikasi edo/eta

erabili egin behar dira, elkarbizitza linguistikoa eta hizkuntzen erabilera aukerak bermatzeko.

- Baina lehen esan bezala, neurri horiek sozialki ulertuak eta ahalik eta onartuenak izan daitezen, informazio eta motibazio lan handia burutu behar da (pertsuasioa, alegia). Horiek guztiak, adimen emozionalaren inguruan urteotan ikasi ahal izan duguna aintzat hartuz bideratu beharko lirateke.

KOLDO BIGURI

Legearen inposizio hutsak aurkako jarrerak eragin ditzake. Pertsuasioa behar da, eta batez ere adostasun zabala edo ia erabatekoa.

ANA EIZAGIRRE

Legea: eskola esparruan eta administrazioan derrigorrezkoa ikastea, erabiltzea. Legeak bete behar du esaten duena, egun 25 urte dituztenak ez dute izan aukera osoa euskara ikasteko.

Pertsuasioa: Argi jakin behar da elebiduna izatea onurak dakarrela.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

IRABAZLE/IRABAZLE DINAMIKA

Legeek gehiegi arautzen dituzten gizarte-jardueretan ari garenok, oso sentiberak gara lege gaietan, ondo baino hobeto baitakigu lege batek sekulako ondorioak eragin ditzakeela, onerako zein kalterako.

Ibilbide luzeko Lege handien beharra aintzat harturik, Lege batek gizarte-arazotan irabazle/galtzaile bereizten badu, gehiengo "demokratikoa" baliatuta ere, gatazka eta inefikazia iraun arazi besterik ez du egiten. Hobe Legerik eza!

Legeak bere destinatarioak (bezeroak) eta hauen interesak kontuan izan behar ditu, eta Legea heldu aurretik zein Legea ku-

deatzean “euskararen aldeko kultura kolektiboa” islatu behar du, hartzten duen gizarte-arazoan irabazle/irabazle dinamika eraginez. Hizkuntz politikan ezinbestekoa den portaera.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Legea eta legeen garapenak, hots, dekretu, arau, ordenantza eta akordio gehiengo demokratikoz hartu behar dira. Beraz, Parlamentuetan, Batzar Nagusietan eta Udalbatzetan. Eskualdearen euskaldungoaren gehiengoa edo gutxiengoa izateak ere faktore garrantzitsua jokutzen dute, ez baita berdin eremu euskaldunear gaur egun ere jarraitzea, atzerakada historiko hurbila edo aspaldikoa izatea. Hiriburuen izaera, administrazio zerbitzu askoren kokagune izateaz landa ere, oso kontuan izan beharko litzateke.

LUDGER MEES

Bigarren paragrafoan dagoena nik neuk idatzi nuen eta harrez geroztik ez dut iritzia aldatu. Are gehiago: azken bolada honetan horren maiz entzuten diren euskara askatasunarekin lotzen duten aldarrikapenen aurrean, hauxe azpimarratu beharko genukeela iruditzen zait: alegia, hizkuntza politika orori ez badiogu uko egin nahi, —eta badago hizkuntza politika zakarrontzira bota nahi duen bat baino gehiago denok komuneko beste hizkuntza badaukagulakoan—legeak eta arauak behar ditugu, eta, definizioz, legeak eta arauak gehiengo demokratiko batek hartu behar izaten ditu alternatiba desberdinen arteko aukeraketa bat egin ondoren. Ez dezagun pentsatu, ordea, legeen bidez bakarrik gauza handirik lortuko dugunik. Beraz, hemen ere bi aldagaiak modu dialektiko batez elkarren artean lotuta daude: pertsuasiorik gabe, demokrazian nekez lortu liteke lege jakin bat babesten duen gehiengorik, eta, beste alde batetik, lege edo araurik gabe ez legoke pertsuasioa lantzeko azpiegitura eta testuinguru egokirik. Adibide bakar bat: Euskal Herriko Unibertsitatea elebiduna da, besteak beste, bere estatutuek horixe eskatzen

dutelako. Ikasleen euskarazko taldeak, ordea, ez dira osatzen estatutuek horretarako aukera ematen dutelako, baizik eta ikasleek hala nahi dutelako. Azpiegitura juridikoak eta ikasleen borondateak osatzen duten errealitate honetan egunero begi bistan geratzen da kazetaritza, fisika edota ingeniaritza euskaraz ederki ikasi daitekeela eta esperientzia honek, bere aldetik, etorriko diren ikasle belaunaldi berriengan pertsuasio-efektua eragiten du.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Legea eta pertsuasio ahalmena kontrajartzea ez dut onartzen, biak behar baitira. Legeak eskubidea bermatu behar du eta urraketak saihestu, eta ez utzi babes-gabezia hitz egiteko aukeren bila dabilen euskalduna. Edozein estatu neurri handi batean, bi osagai horien arteko orekan eta osagarritasunean oinarritzen da. Zergatik izan behar du bestela euskararen kasuan? Hemen, gaur gaurkoz, gaztelania eta frantsesa dira derrigor ezagutu eta erabili beharrekoak, zenbait auzitegitan frogatu denez. Euskara ofiziala da baina alde ederra dago koertzitibotasunean, besteekin erkatuta.

JASONE MENDIZABAL

Ez nago erabat ados galderaren formulazioarekin. Legeak asko egin dezake, baina ez dena. Inondik inora. Froga euskararen iraupena bera da, lege guztien kontra gaur eguneraino euskaldunon ahotan eutsi duena. Legea eta pertsuasioa behar ditugu. Biak dira ezinbesteko. Ez nago ados ere hizkuntza politika beti dela inposatzaile eta koertzitibo esaten den horrekin. Zergatik? Hala izan badaiteke ere, hizkuntza politika askatzailea behar dugu, guztiontzako askatzailea baina, ez soilik hizkuntza handiarentzako askatzailea. Argudio hori erabilia esan liteke emakumeen aldeko politika sozialak gizonen kontrakoak edo gizonaren zapalketa dakarrela eta hori ez da egia. Pribilegioen galera ekarriko du agian, baina hori ez da zapalketa, justizia baino. Hizkuntzekin berdin berdin.

Beharbada erabiltzen dugun terminologiari eman behar zaio buelta. Inposaketa eta koertzioa moduko terminoak erabiltzea, kontra dagoenaren hizkuntza moldea onartzea da. Trafiko arauak jartzen dira eta ez da inposizioaz hitz egiten, ba berdina izan beharko litzateke hizkuntzarekin ere.

GARBIÑE MENDIZABAL

Ados, baina gehiengo demokratiko hori izan daiteke hizkuntza politika horren kontrakoa eta hori bai izango litzatekeela kaltegarri hizkuntzarentzat.

MERTXE MUGIKA

- Oso arriskutsua da gehiengo-gutxiengo jokoa. Euskaldunok gutxiengoa gara azken batean.
- Euskararen biziak eta erabilera bermatzeak gehiengoaren borondatearen menpe egon behar dute soilik? Ez dut uste, izan ere borondate hutsez ez dugu ezer egingo; ez daukat zalantzarik esaterakoan hizkuntza politikak batzuetan inposatu behar duela, baldin eta denok onartzen badugu herri honetan bi hizkuntza daudela.

PEDRO OTXOA

Elkarbizitarako gutxienezko baldintzak adostu eta eskatzea ez da inposaketa, demokraziaren oinarriak jartzea baizik.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Bai, zenbat eta gehiengo demokratiko zabalagoa lortu, hainbat errazago garatuko da hizkuntz politika edo beste edozein politika. Galderak, beraz, alderantziz beharko lukeela dirudi aurretik egiten den burutapenak iradokitzen duenez: “Pertsuasio ahalmena *versus* legea?”

Dena den, alternatiba hori ez da egiazkoa: gehiengo demokratikorik gabe ez dago ezer aurrera ateratzerik, eta harekin bai, baina pertsuasioa ez da sekula baztertu behar, hori oso mesedegarri baitu euskarak. Gehiengoa bera lortzeko ere pertsuasioa ia beharrezkoa da. Halere, honek ez du ekidingo erabat inposizioa.

Euskararentzat ez da eredurik onena, baina ez dago gaizki gogoratzea zein errenta bikaina atera dion gaztelaniak inposaketa eta bortxaketa luzeei, eta ez du atzera egiteko asmo izpirik agertzen, alderantziz baizik.

ANA URKIZA

Legea versus pertsuasio ahalmena?

Biak.

Legeak bidea markatzen du eta pertsuasioak bidea egiten laguntzen. Bata eskua da eta bestea gerria. Biak dira beharrezko dantzan egiteko, biak dira beharrezko buruak eta bihotzak irabazteko.

9. PROGRESIBOTASUNA

Hizkuntza politika ezer izatekotan, epe ertain eta urrunerako sendabelarra izan beharko luke, erakundeetan politika posibilista eta demokratikoa adostuaz, errealitate soziolinguistiko bakoitzaren araberrako egokitzapena planifikatuaz, gizarte elkarteentz bidez ekimen orekatuz hornituaz.

Onargarriak lirateke lurralde edo sektorekako erritmo desberdinak ezartzea? Eta helburu desberdinak?

Ez ote lirateke gero eta gehiago urrunduko elebakarren eta elebidunen elkarreak?

Nola aplikatu behar da progresibotasuna? Progresibotasunak erritmo-apaltasuna eskatzen du ala hizkuntza ahulen den guneetan erritmoa bizkortzea eskatzen du?

KIKE AMONARRIZ

- Garbi dago, hizkuntza politikaren helburuak eta erritmoak errealitate soziolinguistiko desberdinen arabera planifikatu behar direla, beti ere, hizkuntza politika osoa norabide berean ezarriz.
- Norabidea bera baldin bada, eta hizkuntza politika eraginkorra baldin bada, euskararen ezagupena eta erabilera indartzen diren neurrian, elebakarren eta elebidunen arteko distantziak eta zonalde soziolinguistiko desberdinen arteko aldeak murrizten joango dira, azken urteotan gertatzen ari den bezala.
- Progresibotasunak, beraz, ez du erritmo-apaltasuna eskatzen, erritmo egokia baizik, eta hizkuntza ahulen dagoen guneetan

helburuak eta erritmoak egoerara egokitzea. Erritmoetan baino, helburuetan eta lehentasunez jorratu eta zaindu beharreko esparruetan dago alderik handiena, nire ustez.

KOLDO BIGURI

Eskariak markatu behar du neurria. Progresibotasuna ezinbestekoa da, baina beti ere adostasunean oinarrituta.

ANA EIZAGIRRE

Helburu ezberdinak ez, baina erritmo ezberdinak bai. Helburu berdinek ekitatea lortzen dute, baina helburu horiek lortzeko erritmo ezberdinak erabili behar dira. Gehienetan baliabideek laguntzen dute erritmoak arintzen eta hori aztertu behar da tokian tokiko erabakiak hartzeko.

Erritmo ezberdina aprobeztatzen bada, ditugun baliabideak kokatzeko elebidunen eremutan noski urrunduko direla.

Progresibotasunak eskatzen ditu baliabideak. Hauek jarriaz aztertu behar da zein den erritmo aproposena helburua lortzeko. Hizkuntza ahula den gunetan indartu behar da, baina norberaren edo inguruaren erritmoa kontutan izanik.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

NORBANAKO ETA GIZARTEAREN ERRITMOAK

Hizkuntz politikaren progresibotasuna ezinbestekoa dugu normal-kuntza xedetzat hartu denean. Baina, botere publikoak politika hori definitu eta kudeatzeko garaian bi eremu oso ondo bereizita jokatu beharrean dagoela uste dut: norbanakoaren esparrua eta norbanako hori harremanetan ari deneko esparru soziala. Azken honetan, bereziki bi seinalatuko nituzke: Administrazio publikoa eta honen menpeko zerbitzuak, eta Administrazio publikoak harreman juridikoak, ekonomikoak eta bestelakoak dituen enpresa, elkarte edota

erakundeen jarduerak. Hauetan, erritmo bizia behar da, normalizazioa gizarte-dinamikarekin lotuta, eta hizkuntz aukerak sortuz.

Norbanakoaren esparruan, hots, bizitza pertsonalean, familiarrean, lagunartekoan... hizkuntz politikak gizaki bakoitzak bere hautu propioak egiteko aukerak errespetatu behar ditu, eta botere publikoak esparru horretan zuzenean interbenitzeko tentazioari uko egin behar dio.

ITZIAR IDIAZABAL

Progresibotasuna, malgutasuna, lekuan lekuko beharretara egokitzea, guztiz beharrezkoa da. Nolanahi ere atzeraka ez egitea ziurta-tu behar da, gutxi bederen beti aurrera, ezinbesteko leloa. Eta hori lortzeko ebaluatu, eta neurtu, eta jakinarazi, ez dago besterik. Jakina, nola eta zer ebaluatu jakitea ez da kontu erraza. Hemen ere ikerketak zeresan handia du.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Kapitulu honen bigarren lerrokadan “lurralde” hitzak, “lurralde historiko” deitzen den hori esan nahi bada, ez da, inondik nora, niretzat onargarri. Euskararen Legearen filosofian ere “zonaldea” dago. Gauza bat da Gipuzkoa Probintzia legez eremu euskaldunekoa izatea –baina, kasu honetan ere, eskualde batetik eta besterako izaera eta egoera soziolinguistiko desberdintasunak arretaz begiratur– eta, bestea, Enkarterri historikoan (Ezkerraldea, barne) ezin dela gainontzeko Bizkaiko eskualdeetan bezalaxe joka. Araban, hiriburuaren kasuaz aparte, koadrilaka kudeatu beharko litzateke hizkuntza politika oro.

LUDGER MEES

Galdera horiek ezin dira gutxieneko zehaztasunez hemen ditugun erro gutxietan erantzun, oso egoera, testuinguru eta arlo desberdinak daudelako. Halere, ez daukat zalantzarik orain arte esandakoa lortu nahi bada, hau da, hiritarron adostasun zabala eta, horretan oinarritua, hiz-

kuntza politika garatuko duten legeak eta arauak, progresibotasunak eta erritmoen aniztasunak ezinbesteko baldintza izan behar dutenik. Helburua garbi badaukagu (gutxienez bertako bi hizkuntzak menperatzen dituen gizarte elebiduna edota eleanitza), harantz daramaten bideak desberdinak izan daitezke, hobeto: izan behar dute. Baieztapen hau oso teorikoa da eta baita ondorengoa ere: bide horretan aurrera egiteko aukera eskaini behar zaie guztiei, mantsoago joan nahi dutenei, zein azkarrago joan nahi dutenei, batzuk besteak oztopatu gabe. Mantso ibili nahi dutenek ezin diete azkarrago ibili nahi dutenei beraien abiadura inposatu, eta alderantziz. Ataunen egingo den hizkuntza politika ez da Barakaldon egingo denaren kopia izango. Herri administrazioak, beraz, bi eginbehar ditu: lehena, ziurtatu hartuko diren bideak helburura eramango dutela, mantso ala azkar joanez (eta hara ez daramaten bideak baztertu), eta bigarrenik, abiadura desberdinak erabili ahal izateko baliabideak jarri. Agian, hirugarren eginbeharra dago: abiadura bizkortzeko egiten diren ahaleginak saritu.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Barkatu, baina pellokeria bat iruditzen zait “progresibotasuna”. Izan ote daiteke beste modurik? Arazoa besterik da. Progresibotasun horretan epe arrazoizkoak ezartzea helburu jakin batzuk lortzeko eta hori gerta dadin behar adina bitarteko esleitzea. Hori egin ezean beti aurkituko ditugu arrazoiak helburuak zergatik ez diren betetzen zuri bidetzeko.

Onargarriak lirateke lurralde edo sektorekako erritmo desberdinak ezartzea? Eta helburu desberdinak? Nik uste baietz.

Ez ote lirateke gero eta gehiago urrunduko elebakarren eta elebidunen elkarreak? Ez, baldin eta elebakarrak ikusten badu gizarte honetan integratzeko eta aukera-berdintasun guztiak izateko euskara ere jakin behar dela.

Nola aplikatu behar da progresibotasuna? Progresibotasunak erritmo-apaltasuna eskatzen du ala hizkuntza ahulen den guneetan erritmoa bizkortzea eskatzen du? Nik uste erritmoa aldatzerik ez duela eskatzen, alderantzizkoa baizik, hizkuntza ahula indartzea oreka

lortzeko beste hizkuntzaren aukera bertsuak izan ditzan. Bestela, elebakarren ezjakintasuna eta pobrezia sozializatuko genituzke.

JASONE MENDIZABAL

Progresibotasunak eskatzen du gehiegikeriatik eta logikatik kanpo ez ibiltzea. Baina aldi berean eskatzen du hizkuntza ahulen dagoen lekuetan indar bereziak xahutzea, beti ere bertako solaskideekin adostasuna landuz. Ez dut uste ezer berezirik esaten ari naizenik. Praktikan Euskara Elkarte askotan egin dute eta egiten dute bide hori. Noski erritmo ezberdinak beharrezkoak direla, baina horren azpian askotan ezkutatu da erabateko interes gabezia, erabateko gogo falta eta erabateko euskarekiko erdeinua.

GARBIÑE MENDIZABAL

Hizkuntzak duen egoeraren arabera aplikatu beharko litzateke progresibotasuna, hizkuntza sendo dagoen guneeetan gauza gehiago egin daitezke erabat sendotzeko eta hizkuntza ahul dagoen guneeetan, berriz, gauza gehiago egin daitezke ez hain ahul egoteko.

MERTXE MUGIKA

Seguruenik, arlo eta leku guztietan ezin izango da erritmo bera ezarri, dena dela, joera elebakarren kopurua murriztea izan beharko luke lehenengo eta behin. Iruditzen zait erritmoaren izenean eta errealitate soziolinguistikoak aitzakia bezala hartuta, ezagutzan aurrerapausoak egiteari ere zenbait tokitan uko egiten ari zaiola

PEDRO OTXOA

Egoera soziolinguistikoa kontuan hartzeko aldagaia da euskara lanpostuetan eskatzen denean. Gainerakoetan, irakaskuntzaren kasuan esaterako, egoera soziolinguistikoak baino garrantzia handiagoa dauka ikasleen hezkuntza eskubidea.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Sarrerako azalpenarekin ados nago guztiz, baina *posibilista* hitza ez litzateke hizkuntz politikako elementu nagusien muga edo ukatzaile bezala ulertu behar.

Horrenbestez, onargarri dira helburu-maila desberdinak (helburu partzialak, alegia) egoera desberdinen arabera, eta, beraz, baita erritmo desberdinak ere, azken helburua, epe desberdinetan bada ere, beti bat eta bera delarik. Hezkuntzan egiten den bezala.

Eta ez dute zergatik urrunduz joan behar elebakarrak eta elebidunak. Urrunduz joango lirateke azken helburua ez balitz bera, horrek desberdintasuna betirako finkoa eta mugiezina egingo luke-elako gizartean.

ANA URKIZA

Nire ustez onargarriak ez ezik onuragarriak lirateke lurralde edo sektorekako erritmo eta helburu desberdinak ezartzea. Zergatik edo zertarako?

1. Indartzen diren sektore edo lurraldeak besteentzako erreferente izateko.
2. Indartzen diren edo indartzeko ahalmena duten sektore edo lurraldeak motibatzeke.
3. Indartzen diren sektore edo lurraldeen egoera egonkortzeke eta galera arriskuak ekiditeko.

Elebidunen elkarteak elebakarrena erakartzeko gaitasuna eta indarra izan beharko luke.

Nola aplikatu progresibotasuna? Nire ustez, lurralde edo sektore bakoitzari bere helburuak jarri behar zaizkio eta hizkuntza ahulen den guneeetan erritmoa bizkortzea eskatzen du.

10. EUSKARAREN BEREZKO GUNEA

Arrisku nagusia ez datorkio euskarari goi-mailako funtzioetan hain leku mehar-periferikoa izate-tik, eguneroko mintzajarduna arruntaren jardun-esparru eta harreman-sareetan “bere lekua” galtzetik baizik.

Bideragarriak ote dira esparru eta sare horiek, kopuruei begira?

KIKE AMONARRIZ

- Ez dut galdera ongi ulertu. Ingurune euskaldunetan gure-gureak genituen esparruak galtzen ari garela diogunean, familiak, lagunartek eta aisialdiak ari gara batez ere. Esparru eta funtzio horiek indartzea edo berreskuratzea, beraz, ez da kopuru arazoa, estrategia eta ahalmen arazoa baizik.
- Duela urte gutxi batzuk arte, ingurune eta esparru horietan apenas zegoen erdaren kanpo-eraginik. Euskararen mendetako bazterketa eta jazarpenak, giza-harremanen aldaketak eta teknologia berrien eta gizarte globalizatuaren hedadurak, ordea (faktore nagusienak aipatzearen), lehen euskara hutsez bizitzen ziren gune horietan ere, erdaren eragina gero eta handiago izatea ekarri dute.
- Aitzitik, duela oso gutxi arte erabat erdaldunak ziren hainbat eremu geografiko nahiz funtzionaletan, euskara hutsez edo nagusiki euskaraz funtzionatzen duten familiak, lagunartek, taldeak eta sareak sortu dira.
- Harreman-sare horietan, euskarak ohiko erabilera hizkuntza izaten jarrai dezan, hil ala bizikoa da; hizkuntzaren biziraupenari eta transmisioari begira.

- Eremu, gune eta sare horiek indartzea eta zabaltzea beraz, erabateko lehentasuna izan behar du, nire ustez.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

GOI ELIKAGAIEN BEHARRA

Egunerokoak, mintza jardun arruntean zein gizakiaren gainerako jardunetan, eragin nabaria dute goi mailako funtzioek. Euskarak “berrea” duen espazioari eutsi egingo dio, baldin eta goi mailako funtzioetan euskararen aldeko jardun eraginkorra bada, eta hau garatzen eta sakontzen jarraitzen bada, elikagai eginkizuna betetzen baitute goi mailako funtzio horiek.

ITZIAR IDIAZABAL

Eguneroko mintzajarduna euskaraz izateko hizkuntzarekiko atxikimena behar da eta, nola ez, erabiltzeko gaitasuna eta ahalmena. Hizkuntzarekiko atxikimena eta hizkuntzaren balio komunikatibo instrumentalak gauza ezberdinak dira. Gerta daiteke atxikimenik gabeko hizkuntzaren ezagutza, baina atxikimenak indarra har dezan hizkuntzaren erabilera arruntak eta landuak denak dira beharrezko. Hizkuntzaren izen ona, erakargarritasuna, erabiltzeko aukerak, prestigioa, horiek dira atxikimenaren sortzaile garrantzitsuak. Eta prestigiorako hizkuntza batek derrigorrezkoak ditu erabilera jasoak, goi-mailakoak. Eta jakina, nahiz eta erabilera goi-mailakoek soilik ez duten eguneroko jarduna ziurtatzen, oztopo ere ez dira, eta horiek gabe ez dago, gaur egun biziraungo duen hizkuntzarik, ez behintzat gure mendebaleko gizartean.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Berezko gune horien zentzua ez da ongi ulertzen. Ene ustez, hobeto zehaztu beharko lirateke eta kasuan kasuko bideragarritasuna aztertu.

LUDGER MEES

Hemen zehaztu beharko genuke ze nolako sare eta esparruei buruz ari garen. Hemen, funtsean, beste hainbat puntutan ere ageri den erabileraren arazoa dugu gakoa. Halere, ez nuke horren erraz baztertuko “goi-mailako funtzioetan” periferikoa izatetik datorren arazoa, gizartea sarri askotan goi-mailako funtzio horietan zer gertatzen den erne egoten delako eta hortik datorrenak biderkatzailearen papera egiten duelako (edo egin dezakeelako).

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Honetan ere ez nituzke kontrajarri nahiko biak. Bata eta bestea egin behar dira. Bistakoa da euskarak ahalegin guztiak egin behar dituela bere eguneroko mintzajardunean esparruak ez galtzeko eta berriak eskuratzeko. Horregatik, zirkuitu hutsunerik gabeak indartzen eta ugaltzen ahalegindu behar du. Hasieran gutxi eta ahulak izango dira baina gehituz eta indartuz joan behar dute, lehen esan dudan epekatze eta bitarteko egokiz hornitzearen bitartez. Esan beharrik ez dago hemen ere “mailakatzea” eta lehentasunak ezartzea beharrezkoa dela.

JASONE MENDIZABAL

Goi-mailako funtzioek eragin biderkatzailea dute eguneroko mintzajardun eta harreman-sareetan, beraz, bigarren hauetan eragin beharra ahaztu gabe (horretan ari gara Euskara Elkartean), iruditzen zait lehengoengan arduradun politikoez duten erantzukizuna gaitetik kendu nahia ere sumatu daiteke galderako esaldi horrekin.

MERTXE MUGIKA

- Ezinbestekoak. Euskara hizkuntza lagunartekoa ere bada, eta hor hasten da dena.

- Esparru horiek bereziki landu beharra dago, eta, apur batez pentsatuz gero, badira bideak horretarako (Mintzalagun edo Berbarri moduko egitasmoak, eskola kanpoko jarduerak, ludotekak...)

PEDRO OTXOA

Euskararen normalkuntza ez da etorriko diglosia egonkortzetik ezta funtzio berrietara irizpiderik gabe zabaltzetik ere. Euskararen bizitasun soziolinguistikoari gehien lotutako esparruak ondo identifikatze-tik baizik. Eta hori bi muturren arteko eztabaida baino zerbait konplexuagoa da.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Esango nuke 2 eta 3ari eman dizkiedan erantzunekin honi ere erantzun diodala oro har. Halere, kopuru txikiagoez bada galdera, familia, lagunartea eta antzekoez, zaindu egin beharko liratekeela uste dut, baina irudimena beharko da horiek laguntzeko eta horrelakoak sostengarri egiteko. Onuragarriak liratekeen zalantzarik ez dago.

ANA URKIZA

Bideragarriak ote dira esparru eta sare horiek, kopuruei begira?

Ez dut uste kopurua kontua denik. Kopuru kontua izanez gero, argi dago garrantzitsuagoa dela eguneroko mintzajardun arruntaren jardun-esparrua irabaztea, goi-mailako funtzioetakoa baino.

Baina nire ustez ez da kopuru kontua. Eguneroko mintzajardun arruntan euskararen erabilerari garrantzia emateko, goi-mailako funtzioetarako ere garrantzitsua dela ikusi eta frogatu behar dugu. Hemen ere, bada, sare biak dira osagarriak. Are gehiago esango nuke. Osagarriak eta elkarren elikagai direla esango nuke.

Gaur egun, oraindik, euskara “guai” eta “plus” dela sentitu eta erakutsi behar dugu. Eta goikoek hala dela pentsatzen eta sinesten badute, errazagoa da behekoek ere era berean pentsatzea eta sinestea.

II. GRAMATIKAKERIAKO MORRONTZAK

“Komisario linguistikoen” lana apur bat zokoratzeari ez lez gaitzeko gaizki. Informatikaren eraginez erabilera askoz askeagoak agertu dira, eta horiek bultzatzeak ere lehentasuna izan beharko luke euskararen erabilera areagotzeko ahalegin hauetan.

Nola definitu beharko litzateke, hortaz, hizkuntza kalitatearen eremua?

KIKE AMONARRIZ

- “Hizkuntza kalitatea”ri buruzko txostenean genion bezala, kalitatezko euskara da, gure ustez, ahalik eta egokiena, jatorrena eta behar denean, zuzenena dena. Alegia, hiztunaren premia komunikatibo guztiak asebetetzeko gai dena.
- Gure egoera soziolinguistikoan, pertsona, eremu eta egokiera bakoitzaren baldintza soziolinguistikoen arabera juzgatu behar da kalitatea. Goi-mailako funtzioetarako erabiltzen diren irizpideak, eremu informaletan mimetikoki aplikatu gabe, eta ahaztu gabe, normalizazio-prozesuan dagoen hizkuntza batez eta erabat elebidunduriko hizkuntza komunitate batez ari garela.
- Bestalde, bai irakaskuntzan eta baita hedabideetan ere, hizkuntza erregistroen eta erabilera-eremuen arabera euskalkien eta soziolektoen erabileraren inguruko hausnarketa eta praktikarako irizpideak jorratu beharko lirateke. Ikastolen Konfederazioak prestatu berri dituen orientabideak abiapuntu egokia dira.
- Teknologia berrien eraginez sortu diren hizkera modu berriak, testuinguru horretan ulertu behar dira. Gainera, sekulako aukera eskain dezakete euskararen alderdi ludikoa eta hizkuntza sorkuntza indartzeko.

- Euskararen gazte-hizkerentzat erreferentzialak izan daitezkeen eskaintzak sustatu behar dira: Telebista-saioak, Gaztea, Gaztezulo...

KOLDO BIGURI

5. eta 6. puntuetan esandakoa berritu beharko nuke hemen. Bestalde, hizkuntza guztietan daude hiztun on eta txarrak, beraz onartu beharko da euskaldun “txarrak” ere egotea; baina ahaleginak eginenez euskaldun “onak” gero eta gehiago izan daitezten. Eta horrek erabilera-erabilera-erabilera esan nahi du.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

ASKO ETA ONAREN ARTEKO SOKATIRA

Hiztun aktiboen kopurua handitzea eta hauen jarduna ona izatea denok batu egiten gaituen helburua dugula, ezin izango ekidin bi aspektu horien arteko sokatira, agian horrela izan behar duela onetsi behar dugu, sokatira horrek tentsioari eusten diola eta mutur batekoak bestekoa menpean izan gabe luze iraun beharko dugula aintzakotzat hartuz.

Euskarak hiztunak behar ditu eta horien artean eredu onak.

ITZIAR IDIAZABAL

Hizkuntza baten arauak (normatiba) erabaki, erakutsi, eta beteazterako ardura-eremuak nahiko ezagunak eta ugariak dira: Euskaltzaindia, eskola (unibertsitatea barne), hedabide idatzietako estilo liburuak...

Halere arauak, eta kalitate irizpideak gehiegi oinarritzen dira betiko gramatika legeetan. Eta (ohiko) gramatikak ez du (nahiko) baliorik erabilera gehieneko kalitatea neurtzeko. Baina mintzajardunak, ezta arruntenak ere, ez dira edonola, eredurik gabeak, molde bakoak. Molde horiek eten gabe aldatzen dira hizkuntza bizietan,

haiei lotutako ekintzak aldatzen diren bezala. Arazoa, eredu edo molde horiek ez dituela oraindik gure hizkuntzalaritzak behar bezala aztertu, eta ustea, zabaldu egia, (ohiko) gramatikak dena azaltzeko balio duela pentsatzea da. Hau egia ez da egia, beraz, kalitate eta ebaluaketa baieztapenak kontu handiarekin egin eta erabili behar dira. Ikerketa gehiagoren beharra nabarmena da hemen ere.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Zeintzuk dira “komisario linguistikoak”? Normatibizazioaz arduratzen direnak? Normalizazioaz? Gogora dakart, Anton Santamarina Real Academia Galegako Onomastika batzorde buruak kazetari batek galdetu zionean zergatik ez zegoen Real Academia Españolaren ordezkari gure bileran –Santiago de Compostelan zen eta hango, Euskaltzaindiko eta Institut d’Estudis Catalaneko Onomastika batzordetakook baiginen, gure toponimia eta seinalizazio arazo eta erasoak aztertzen– zer erantzun eman zion: *“es que la R.A.E. no tiene Comisión de Onomástica, porque no le hace falta, ya que ha dispuesto de todo un Estado centralista durante dos siglos para normalizarla”*. Hau argi izan beharko litzateke euskal gizartean, batez ere irakasleak, kazetaritzak, administrazio orok eta, batez ere, idazleak. Euskararen kalitatea, beste edozein hizkuntzatan bezalaxe, beste arazo bat da.

LUDGER MEES

Hizkuntza guztiak denboraren poderioz garatu eta aldatu egiten dira. Egun hiztegi ofizialeetan ez dauden hitzak bihar egongo dira, gramatika egitura berriak agertuko diren bezalaxe. Gaur egungo euskara, beraz, ez genuke sakralizatu beharko eta hiztun baten alboan eten gabe zuzentasunaren makila eragiteak segur aski ez dio erabilerari batere lagunduko. Halere, hemen ere ezin dugu onartu “denak balio du erabileraren mesetarako baldin bada” esaldia oinarritzat duen laissez-faire printzipioa. Nire ustez, hauxe litzateke kontua: oraindik euskara izan daitekeen eta dagoeneko euskara ez den hizkera edo

idazkeraren arteko muga definitu beharko genuke. Eta bestetik, erabilera esparru desberdinak definitu: Unibertsitateko idazlan batean eskatu behar den euskara maila batekoa da, eta lagun-talde batek bere blogean erabiltzen duena, beste mailako bat.

JASONE MENDIZABAL

Egokitasuna. Berriz ere “euskararen kalitatea” txostena.

GARBIÑE MENDIZABAL

Hizkuntzaren kalitatea zaindu egin behar da, hori inolako zalantzarik gabe.

Hizkuntzak informatikan eta horrelako esparruetan hartzen dituen bideak dinamikoagoak dira eta aldaketak azkar sortzen dira eta hori ezin da saihestu, berez ez da txarra nire ustetan, bizitasuna ematen dio hizkuntzari.

Kalitate hori gramatikara mugatzea baino beste alde batzuk landu beharko lirateke. Gazteari bizitzan aurre egiten uzten zaion bezala, hizkuntza kontuetan ere konfiantza hori eman beharko litzaioke.

MERTXE MUGIKA

- Kalitatea, seguruenik, hizkuntza komunikazio tresna eraginkorra, baliagarria eta erabilia izatea da.
- Hizkuntzaren garbitasunaren obsesioak eta hizkuntzari buruz berba egitea hainbeste maite dutenek askotan kalte gehiago egiten dute mesedea baino. Sarritan, ikasten ari direnek bul-tzadatxo bat behar izaten dute eta komisario linguistikoak beren inguruan izatea ez da batere lagungarria.
- Askotan hizkuntza kalitatearen irizpideak lar zorrotzak edo justifikatu gabeak izaten dira, komunikazioaren kaltetan. Honekin ez dut esaten kalitate eskaseko hizkuntzaren alde nagoenik, baina kontu askotan bezala, orekan dago gakoa.

PEDRO OTXOA

Errorerik egin gabe ezin da bizitzan aurrera egin. Eta erroreen konponbidea ez dator zigorretik, errorea gainditzeko estimulu positiboak eskaintzetik baizik.

Era berean, hizkuntza komunikatzeko tresna den heinean, komunikazio egoera ezberdinetan gaitu beharra dago. Gramatikaren funtzioa gehiago da egoera horiek aberasteko tresna determinatzeko baino.

Hizkuntza kalitatea bezain garrantzizkoa da hiztunen arteko harreman kalitatea.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Testuinguruak hizkuntzaren erabileraren kalitatea nola zehaztu eta mugatu behar den eskatzen duela iruditzen zait. Ikuspuntu horretatik ulertuz galdera, eta dokumentu honen helburua kontutan izanik, honela definituko nuke eremu hori:

Euskararen hizkuntz kalitatearen eremua da hiztunak euskaraz komunikatzeko kapazitatearena, lau hizkuntz gaitasunetan eta kasu bakoitzean eskatzen den hizkuntz erregistro mailaren arabera.

Azalpen gisa: Hizkuntza guztiak bezala, euskara ere beti ari da beharrei egokitzen, baina euskararen kasuan egokitze hori askoz ere larriagoa eta arinagoa da edozein alderditatik begiratzeko zaiola ere. Euskarak abiada biziz bete behar ditu hizkuntzen bilakabidean epe oso luzeak hartzen dituzten aldaketak. Baina hori hizkuntzak ez du lortuko erabiltzaileak forma hutseko arazoetan –ortografian, ahozko erabileran gertatzen diren zenbait erratan...– kateatuz gero. Definizioarako hiztunaren hizkuntz komunikazio kapazitatea hartu da ardatz bezala, ez darabilen hizkeraren kalitate osoa. Beraz, kalitatea neurtzeko irizpide eta adierazleak kapazitate horretan ezarri beharko liriateke, malguagoak beharko luketelarik izan formari dagokionez, behar bada garbitasun, jatorritasun eta korekzioarako joera gehiegiei kontu hartuz.

ANA URKIZA

Erabilera da lehenetsi behar dena eta kalitatea erabilerarekin batera joan dadin ahalegindu. Hala ere, teknologia berriek ahalbidetzen duten erabilera ezberdina dela kontuan hartuta, kalitate irizpideak ere bereizi egin beharko lirateke, erabilera mota edo kasu ezberdinetarako.

12. EUSKARAREN NORANAHIKOTASUNA

Noranhikoago izatera iritsi da euskara, beneran? Denerako edo ia denerako balio al du orain praktikan, ez teorian? Horrela al dira kontuak, justu-justu? Ez. Denerako edo ia denerako balio duena, orain eta hemen, gaztelania da. Errazegi “gainditu” uste ohi dugu diglosia.

Diglosia itotasun-iturri edo bizi-iturri ote zaio euskarari? Diglosiak arnasa eman ala kendu egiten/egingo dio euskarari?

KIKE AMONARRIZ

- Galderak planteatzen duenari, Joxerra Garziak maiz aipatu ohi duen beste hausnarketa hau erantsiko nioke: “Euskaraz dena esan daiteke, baina ez da dena esaten”.
- Mikel Zalbidek bere txostenean eskaini digun hausnarketa, eztabaida-prozesu honetako aspekturik berritzaile eta interesgarriena izan dela esango nuke. Oker ez banabil, Zalbidek adierazi nahi izan diguna da, diglosiari esker, euskarak belaunz-belaun erabilera-eremu batzuei eutsi egin diela eksklusibitatez, eta azken hamarkada hauetan, euskararenak bakarrik ziren eremu horiek murrizten ari direla.
- Nire irakurketaren arabera beraz, diglosia-egoera galtzeak, hizkuntza ahularen egoera okertzea dakar, eta beraz, hizkuntza normalizazioaren bidean lortu behar dugun lehen gauza, diglosia-egoera berreskuratzea da (euskara nagusi izango den erabilera-eremuak),

eta behin diglosia errekueratzerakoan, eta orduan bakarrik, esan ahal izango dugu egoera benetan ari dela hobetzen.

- Gakoa beraz, euskararen erabilera-eremu eta esparru propioak babestea eta berriak lortzea litzateke; eta elebitasun asimetriko horretan, hizkuntzen arteko banaketa funtzionala sortzea, euskararentzat funtzio batzuk modu eskusiboan gordez. Badugu zer hausnartua honen inguruan.

KOLDO BIGURI

Diglosian biziko da beti euskara; beraz, beti presente eduki beharko dugun zerbait da, neurrizko garrantzia emanaz, ez gehiago ez gutxiago.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

HIZKUNTZ KONPETENTZIA

Euskarak konpetentea izan behar du nonahi eta noranahi, gainerako hizkuntzei zor zaien konpetentzia mailarekin.

Hiztunok, kasu honetan euskaldunok, geure hizkuntz konpetentzia bermatu behar dugu, abagune, aukera eta eszenatoki berezietan geure hautuak egin ahal izateko komunikazio egoera desberdinetan.

Hala ere, botere publikotik urraturiko hizkuntz politikak bere arduraz zuzeneko eremuetatik at, egoera diglosikoen errealitatea kudeatu beharrean gaude, eskaintza pribatuak eragiten dituen hainbat espazio eta eremutan bereziki, hizkuntza bakoitzari bere konpetentzia espeziala aitortuz, ele askotariko etorkizunak ezinbestean hori baitakar.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Diglosia gaintzea, Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan, hots, hizkuntzei buruzkoan, sartzen utzi ez zigutenei, edota arduratu ez

zirenei galdetu behar. Dena dela, diglosia egoera gainditzea tentu handiz eta zehatz administratu behar den zerbait da, eskualdez eskualde, hiriz hiri, sektorez sektore eta, beti ere, koiuntura politikoa begi bistan izanda.

LUDGER MEES

Diglosia ez da gainditu, ez dakit nondik hartu den baieztapen hau. Gaztelaniarekiko egoera oraindik diglosia bezala definitu daiteke, nahiz eta azken hamarkadetan bata eta bestearen arteko desoreka edo diglosia-maila nabarmenki murriztu den. Beraz, nire ustez kontua ez da arnasa eman ala kendu, baizik eta errealitatea aztertu eta azterketa honen arabera neurriak hartu.

GARBIÑE MENDIZABAL

Denerako edo ia denerako balio duena, orain eta hemen, gaztelania da.

Euskarak denerako balio duen arren, beste ideia hori dago gaur egun bizi-bizirik eta militanteak biltzen ari den esaldia da, gainera.

MERTXE MUGIKA

Euskarak, hizkuntza bezala, teorikoki ez dauka oztoporik. Hala ere, noranahi ailegatzeko oztopoak bestelako faktoreetan daude: behar beste hiztunik ez egotea, hizkuntza-ohiturak sarri askotan gaztelania erabiltzera eramaten gaituela, arlo batzuetan euskararen normaltasun falta...

PEDRO OTXOA

Diglosia nahikoa da bizirauteko. Ez hizkuntza normaltzeko.

ANA URKIZA

Nire ustez, bai da noranahikoa euskara. Hau da, teorian, denerako balio du eta aski frogatu dela iruditzen zait. Baina, arazoa, erabileran dago. Balio arren, ez dela erabiltzen. Eta, beraz, diglosia ez dugu gainditu. Ez eta urritik ere.

Diglosia, gaur egun, itotasun-iturri eta bizi-iturri (biak) zaizkiola euskarari esango nuke. Ez dio bizitzen uzten baina bizi izan dugun egoerarik onenean gaudela uste dut. Diglosiak, etorkizunean, noski, arnasa kendu egingo dio euskarari eta gainditu beharreko egoera da.

13. ESKOLAREN LANA

Haur batek edo gazte batek, D ereduko eskolan dabilen urteetan, iratzarrik dagoen orduen %14 inguru egiten du euskarazko ingurumen formalean. Ordu horietan ere irakaslearen azalpenak entzuten edo testu-liburutik irakurtzen pasatzen du denbora gehiena, ez bere kasa idazten eta ez, batez ere, hitz egiten. Are gutxiago jarduten du, eta funtsezkoa da hori, eguneko mintzaira lasai informalean bere ikaskideekin. Eskolak bere hutsez eskain dezakeena mugatua da hortaz.

Euskararen erabilera ziurtatzeari dagokionez, mugak ditu, antza denez, eskolak. Gaindiezinak eta, beraz, onartu beharrekoak ote dira? Ala gaindigarriak ote dira?

KIKE AMONARRIZ

- Eskolaren mugak gainditzeko modukoak eta gainditu beharrekoak dira dudarik gabe; baina ahaztu gabe eskolak eskaini behar duena ezinbestekoa dela. Hortik abiatuta, norabide anitzeko estrategia landu beharko litzateke:
 - Lehen esan bezala, egokitasuna eta komunikazioa euskararen irakaskuntzaren ardatz bihurtu, zuzentasun gramatikalean oinarrituriko ikuspegi zurruna gaindituz.
 - Ikastetxe guztietan euskararen ikasketa bermatu eta hizkuntza normalizaziorako proiektuak landu.
 - Proiektu horietan berauetan eskolaren lau hormak gaindituko dituzten estrategiak eta auzo edo udalerriko beste

erakunde eta elkarrekin elkarlanean landu daitezkeen egitasmoak azaldu beharko lirateke. Horien artean, lehentasun osoa izan beharko luke eskola orduz kanpoko euskarazko eskaintza bermatu eta sustatzeak.

- Guraso euskaldun zein erdaldunekiko informazio, mobiltasun eta kontzientziario kanpainak landu behar dira, etxeetan eta ingurune familiarrean euskararen erabilera eta kontsumoak bermatze aldera.

KOLDO BIGURI

Tokian tokiko egoeraren arabera, noski. Hainbat lekutan ez dut uste gauza gehiegi egin ahal denik, inguruko hizkuntza nagusi/bakarra erdara denean. Horrek ez gaitu eraman behar etsipenera, onarpena baizik. Euskaldun direnei aukerak eman behar zaizkie euskara erabiltzeko eta ondo ikasteko; baina nola behartu euskaldun erabatekoa ez dena, erabateko euskalduna balitz bezala jokatzeko? Onuragarria al da, akaso?

ANA EIZAGIRRE

Gainditzeko edo hobetzeko neurriak har daitezke:

- Gure hezkuntza sisteman garrantzi handiagoa eman behar zaio komunikazioari, hitz egiteari... eta horrela ikusi da curriculum berria egiterakoan. Hau aldatzeko sistemen aldaketa nabaria agin beharko zen eta batez ere orain erabiltzen den metodologia aldatu. Posible da baina denbora behar da.
- Eskola ez da “burbuja” bat, komunikazio moduak aldatzen dira eskolako baliabideak aldatu behar dira: teknologi berriak eskoletan. Orain dagoena hurbilketa besterik ez da.
- Eskolako komunikazio tresna euskara izan behar du. Familiak paper garrantzitsua du honetan, defendatzaile papera hartuz, antolatzen diren ez-formal esparrua euskaratuz.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

EUSKAL ESKOLA ELEANIZTUNA

Eskolak asko egin, gehiago egiteko beta dauka eta egin behar du, eskola pertsonen gizarteratze, komunikazio, harreman eta elkar bizitzaren gune funtsezkoenatariko baita, ume eta gazteei dagokienean, familiek eskatzen eta ematen zaizkien zerbitzuei dagokienean, guraso eta irakasleen arteko harremanei dagokienean, ikastola edo eskola eta ingurune sozial eta instituzionalaren arteko interakzioari dagokienean, gurasoen euskalduntze, guraso prestakuntza eta eskola-kudeatzaile formazioari dagokienean, herri arteko ikastola edo eskola arteko sareari dagokienean... Osagai hauek guztiak eskolaren jardunean dira, pertsonen bitzita akademikora mugatzen ez direnak, alegia. Euskararen biziberritzearen ardatz den erabilera sustatu nahi duenak horiek guztiak kontuan hartu eta badu zer egina, alajaina.

XXI. mendearen lehen hamarkadetarako euskal hizkuntz politikak Eskolaren eginkizuna berretsi eta egunera ekarri behar du, euskara ardatz duen eskola eleaniztunean.

ITZIAR IDIAZABAL

Jakina, eskolak mugak ditu. Dena ezin du egin eskolak, ezta ere. Baina eskola batzuetan emaitza hobeak lortzen dira besteetan baino. Hizkuntza kontuetan asko ikasi daiteke eskolan, baina egin daitekeen guztia ez da beti egiten.

Emaitza onak txalotu eta jakinarazteko, eta ezinean dabilenari laguntzeko izugarritzko lana egin daiteke eskola mailan. Eta horretarako ez da lege berririk behar.

Hori bai, eskola elebidunak eta eleanitzak ez dira borondate on hutsez garatzen. Ikerketa, laguntza espezializatua, eta eskolaren prestigio soziala berreskuratzeko ekimenak ezinbestekoak dira eskolaren emaitzak hizkuntza kontuetan eta gainerako ikasketetan hobetzeko.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Eskolaren lana ezinbestekoa da, baina zama guztia ezin da bere bizkar utz. Adibidez, bikote euskaldunak D eredura edo ikastolara umeak igor eta beraien artean gaztelaniaz mintzatuz. Hori da euskal gizartearen drametariko bat.

LUDGER MEES

Bai, jakina, muga handiak dituela eskolak. Eskolak berak bakarrik ezin du gizartea erabat euskaldundu. Halere, beste alde batetik, ezin dugu ahaztu euskararen normalizazio-prozesuan hezkuntza sistema (eskola, unibertsitatea) izan dela azken bi hamarkadetan emandako aurrerapausoen parte handi bat eragin duena. Eskola euskaldunari esker eman da euskararen historian zehar inoiz ikusi ez den bilakaera bat: gazte euskaldunen kopuruaren igoera nabarmena. Esan genezake, beraz, eskola ezinbesteko tresna dela euskalduntze prozesurako azpiegitura sendotzen duelako. Azpiegitura izango litzateke kasu honetan teoriaraz euskaraz aritzeko gai diren gazteen multzo geroz eta zabalagoa. Azpiegitura horrekin gero zer egiten den, alegia, euskaldun horiek euskara erabiliko duten ala ez, beste kontu bat da. Garbi dago, halere, azpiegitura hori eduki ezean ezingo genuke erabileraren arazoari buruz hitz egin. Hori dela eta, ez daukat inongo zalantzarik azpimarratzeko etorkizunari begira hezkuntza sisteman egin behar dela apusturik handiena, euskaldundu ez diren helduak euskalduntzea askoz ere neketsuagoa da eta.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Planteamendua ez dut onartzen. Eskolak lor dezake bere mailan haurra edo gaztea euskalduntzea, horretarako bitartekoak ezartzen badira. Beste kontu bat da hori nahikoa al den gero gizartean haur edo gazte horrek euskaraz egin dezan. Aukerak behar dira. Eta horiek eskaini behar zaizkio. Ezin da onartu euskalduntzearen presioa

kanpoaren baitan bakarrik ezarri nahi izatea eta alderantzizkoa gizarteak eskolari erantzukizun guztia ezarri nahi izatea. Mugak garbi egon beharko luke bakoitzak bere egitekoari ihes egin ez diezaion.

Orain arteko tesiak uste zuen eskolaren lan soilaz gizartea euskaldundu zitekeela eta horrek porrot egin du neurri handi batean. Aitortu beharra dago. Baina egin zezakeena ere ez du egin, nahiz eta beti esan daitekeen beti ez ditugula bitarteko guztiak izan.

Horregatik, bolada batean, helduen euskalduntzea ere indargabetu egin zen, baina nire ustez, izaera estrategikoa duen zerbait da, eta oraindik zeregin luze eta esanguratsua du. Are gehiago, etorkin gaztelaniadun ugari gure artera datozen garai honetan.

JASONE MENDIZABAL

Eskolaren mugak ez onartzea ez dagokionari bere irismen esparrua baino haratagoko posibilitateak ematea da, eta horrela ez da inoiz benetan hizkuntz ohituretan eragingo. Eskolaren, erakundeen eta herriko euskararen aldeko eragileen arteko harremanak landu behar dira zuzen-zuzenean, esparru ez-formalean dinamika berriak sortzeko. Bereziki euskara kalean arrotz den eskualdeetan.

Jakin badakigu eskola ez dela nahikoa, ados. Baina horrek ez du esan nahi eskola beharrezkoa ez denik. Gaur egun ezin da planteatu eskola ezagutza-iturri izango ez duen eredurik.

GARBIÑE MENDIZABAL

Eskolak mugak ditu, noski, baina ez dira gaindiezinak. Bizitza honetan dena hobetu daitekeen bezala, eskoletakoa era gaindigarria da.

Esate baterako, irakasleek eskoletan, ikastoletan, institutuetan... norberak etxetik duen euskara egin beharko lukete, euskara batua alde batera utzita, askoz ere hizkuntza naturalagoa izango litzateke haurrek, gazteek entzungo luketena eta erakargarriago bihurtuko litzateke, ondorioz, erabilerrazagoa. Formalismo puntu horrek hizkuntzaren "kontrako" jarrera sortzen duela iruditzen zait.

Irakasleek euskaraz emango dituzte klaseak, baina beraien artean elkarrizketa guztiak izaten al dira euskaraz?

MERTXE MUGIKA

Eskola “ikasgela” modura ulertzen bada, mugak argiak dira, baina eskolak pertsonaren garapenean eta sozializazioan betetzen duen lekua zabalago ikusita, muga horietako asko gaindi litezke.

PEDRO OTXOA

Eskolak gaitasunetan hezi nahi badu (hizkuntza gaitasunetan eta Europak zehaztu dituen gainerako zazpi gaitasunetan) ezagutzaren transmisio eredutik ikaskuntza aktiboaren eredu batera pasa behar da pixkanaka. Gaitasunak ezin baitira garatu praktikatu edo erabili gabe.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Eskola gizartean dago, eta euskararen erabilera arruntaren azterketa gizarte horren zirkunstantzia eta baldintzetan kokatu behar da. Ez dut uste eskolari egotzi dakiokenik ikasiaren eta erabileraren arteko desoreka.

Galderei erantzunez, gaindiezinik ez dago, astiro bada ere. Nolanahi ere eta esan bezala, mugak eskolarenak ez diren arren, irakaskuntzaren aldaketa abian da eta kapazitate edo gaitasunen garapenean zentratzen da dagoeneko. Uste dut bide berri hori ona izan daitekeela euskararen erabilera laguntzeko, horrek indartuko baitu berez hizkuntzaren erabilera gaitasuna.

ANA URKIZA

Gaindigarriak izan daitezkeen zubiak eraikitzen badira. Eskola oso gune garrantzitsua da haur eta gazteen kasuan. Gune hori, halaber, preskriptore izan liteke euskararen eremua gordetzen eta zaintzen den beste eremu askotarikoetarako. Hala nola:

1. **Eskolaz kanpoko jardueretarako** zubiak eraiki ditzake: ikastolak berak kudeatutakoak zein kanpokoak.
2. **Kirolaren praktikarako** zubiak eraiki ditzake: ikastolak berak kudeatutakoak zein kanpokoak.
3. **Aisialdiko programa ezberdinekiko** zubiak eraiki ditzake: ikastolak berak kudeatutakoak zein kanpokoak.
4. **Kultur ekitaldietarako** zubiak eraiki ditzake: ikastolak berak kudeatutakoak zein kanpokoak.

14. ESPAZIOAK EUSKALDUNTZEA

Urte askotan ez zaio indarrez ekin gizarte-espazioen euskalduntzeari belaunaldi berrien inkorporazioak berez euskaldunduko zituela pentsatuz. Orain belaunaldi horiei leporatzen zaie ez dutela erabiltzen, eta, ondorioz, horiena da errua, baina politika diseinatu dutenena da nagusiki ardura, ez baitute aurreikusi norbanakoak euskalduntzearekin batera ezinbestekoa zela gizarte-espazioak euskalduntzea.

Hizkuntza formalari dagozkion esparruetan erabilera arautu daitekeela onartuko balitz ere, nola arautu erabilera ez formalei dagozkion guneak? Eta azken horiek araugarriak ez badira, zein da gune horretan erabilera sustatzeko tresnarik egokiena?

KIKE AMONARRIZ

- Ingurune formal eta egituratuetan burutu behar da lan nagusia. Ikastetxeetan (eskolordu barruan nahiz kanpo), elkarteetan, aisialdi eta gazte-talde egituratuetan, euskararen erabileraren aldeko dinamikak sortzen badira eta hizkuntzaren erabilera sustatzea lortzen bada; horien inertzia modu naturalean iritsiko da esparru ez formaletara.
- Helburu hau bi modutara landu daiteke:
 - (Batez ere) haurrak eta gazteak biltzen dituzten esparru egituratuetan euskararen erabilera sustatuz (hitzarmenak, begirale euskaldunak, etab.).
 - Euskarazko eskaintza berriak sortuz:

- > Ikastetxeetan (edo beste erakundeetan) sortzen diren talde berriak (kirola, dantza, musika...) jaiotzetik beretik euskaraz funtziona dezaten lortuz.
- > Esparru horietan, euskarazko eskaintza berriak sortuz.
- Estrategia hauek landu dituzten ikastetxe eta udalerrietako esperientziak hor daude.

KOLDO BIGURI

Pertsuasioa, adostasuna, laguntza eta pizgarriak.

ANA EIZAGIRRE

Gune erakargarriak jartzea.

Gazteentzako Kultur espazio merkeak.

Internet euskaraz guztion eskumenean.

Eskola eta bere ingurua zaindu, erabilera ez formala hasten da gehienetan eskolaren inguruan eta horrek baimentzen du beste esparruetara zabaltzea.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

ARAU ORDEZ, LANKIDETZA

Botere publikoaren hizkuntz politikari ezin zaio exijitu ez dagokiona, araei dagokienez. Botere publikoak nahikoa du bere ardua zuzenen menpean diren eremuetan saiatzearekin, eta hori ondo betetzearekin.

Gizarte-eragileek badute zeregina, amatxo Administrazioaren gonapetik kanpo, eta honek haiekin lankidetzan indarren bateratzaile lana egin dezake. Gaur arte egin dena baino haratago joan daiteke, zalantzarik gabe.

ITZIAR IDIAZABAL

Lekuan lekuko guneetan (administrazioan, lantokietan...) euskalduntze eta euskaraz (ahoz zein idatziz) egiten laguntzeko pertsonak, irakasleak izan edo ez, behar lirateke. Idatzirako baliabide elektronikoetan egin den aurrerakada ere gehiago aprobetxatzen erakutsi/lagundu behar litzateke. Bestalde, telebistan azpigituluak gehiago erabili, euskarazko saioetan erdarazkoak eta alderantziz, eta ahozkoan ere hizkuntzak gehiago nahastu. Alegia, ETB2an euskarak leku gehiago behar luke, eta erdarazko saioak azpigituluak euskaraz, ETB1ean azpigituluak erdaraz, eta beste hizkuntzak ere leku gehiago hartu behar lukete. Pelikulak bertsio originaletan eta azpigituluekin emateko ohitura garatu behar litzateke.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Zein espazioez ari gara? Banan-banan zehaztu ezik, nekez erantzun dezaket.

LUDGER MEES

Hemen erantzuna zaila da aurretik zehaztu beharko genukeelako zeintzuk liratekeen gune horiek: familia, tabernak, kiroldegiak...? Hemen araudiaren makila sartzeak, nire ustez behintzat, ezinezkoa izateaz gain, ondorio kaltegarriak ere sortuko lituzke. Hemen, persuasioaren bidea dugu bide bakarra.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Guk, Kontseiluak, ia hamar urte daramatzagu espazioak euskaldundu behar direla esaten, horretan saiatzen eta badirudi horretarako sortu ditugun bi tresnak, Ziurtagiria eta Behatokia, egokiak direla, zeren Administrazioak pareko Bikain eta Elebide sortu baititu, gure iritziauren aurka, bi horiek indartu beharrean. Gure ustez askoz politika indartsuagoak behar dira espazioak euskalduntzeko, aukerak

ugaltzeko eta urraketak saihesteko. Bestalde, lehen esan dut ez ditudala arautzea eta sustatzea kontrajartzen. Modu asko daude sustatze-lana egiteko.

JASONE MENDIZABAL

Eremu ez formaletan ez da erabilera arautu behar, ez baita posible. Adostasunetik abiatutako eremu berrien euskalduntzea da bidea. Hor ez da araurik egongo, baizik eta norberaren (izan elkarte, izan aisialdi eremu, izan norbanako) hautuaren aldaketa, behintzat esparru zehatz batzutan. Garrantzitsua izango da norbanakoengan eragina duten elkarte eta aisialdiko eragileei zuzendutako euskararen aldeko sentiberatze lana antolatzea, euskalduntzeko plangintzak bultzatzea eta mota askotariko laguntzak ematea. Eta horretarako baliabideak bideratu behar dira, zeregin horretan ari direnei babesa eskainiz. Hor badu zereginik administrazioak. Arautu ez, baina landu daitezke esparru hauek eta lehentasunez landu beharrekoak dira gainera.

GARBIÑE MENDIZABAL

Imajinazioa, horixe da errezeta. Gazteei hizkuntza prestigiatzen duten elementuen berri eman behar zaie. Esango nuke Kenzazpi musika taldeko Eñaut Elorrietak askoz ere gehiago lortu duela hizkuntza politikan bere abesti eta irudiarekin, egin diren beste hainbat ekintzekin baino.

MERTXE MUGIKA

Gune eta kasuistika desberdinez ari gara: familia, lagunartea, harreman sozial oinarritzekoak, lantokia... Tresna batzuk ari dira aplikatzen une honetan: praktika-taldeak, euskarazko jarduera sozialen eskaintza, euskaldunentzako guneak... Ez dakit zein izango den tresna egokiena, beharbada kontua pentsatzea, probatzea eta aztertzea da. Ez ezinezkotzat jo.

PEDRO OTXOA

Gizarte esparruetan ezin da erabilera arautu edo ezarri. Egin daitekeen gauza bakarra sustatzea da, euskararen aldeko politika positiboaren gizarte kontratua bultzatuz. Arazo soziopolitiko da, ez ingeniari-tza soziolinguistikoaren mailakoa.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Erabilera *ezformalez* lagun arteko, familiako eta ezagunen arteko konfiantzazko solasaldi laxoak hartzen badira, hori arautzerik ez dago, eta kaltegarri litzateke, edozein ikuspegiz begiratuta ere, arautuko balitz. Demokraziaz elementalenaren aurkakoa ez ote litzatekeen horrelako edozein arau esango nuke. Behar bada, beste garai tamalgarri batzuk ere ekarriko lituzke burura.

Lagundu egin behar dira espazio horiek ahalik hobekien, baina irudimena eta espezialistak jarri behar dira lanean ongi asmatu nahi bada.

ANA URKIZA

Nola arautu erabilera ez formalei dagozkien guneak?

Erabilera ez formala ezin da arautu. Probokatu egin daiteke.

Zein da gune ez formaletan erabilera sustatzeko tresnarik egokiena? Honakoak aipatuko nituzke:

1. **Teknologia berriak:** telefonia mugikorra eta internet.
2. **Fenomeno mediatiko ezberdinen ekoizpena:** gure gizarteak fenomeno mediatikoak behar ditu (edo eta eskertzen ditu). Fenomeno mediatikoak sortzeko gaitasuna bagenu (eta esan gabe doa, euskaraz jardungo luketena), jendeak normaltasunez kontsumituko eta jarraituko lituzke fenomenook (eta konturatu gabe euskarazko diskurtsoa berenganatuko lukete).

15. GIZARTE OSOKI ELEBIDUN BAT IMAJINATZEN

20/25 urteko perspektiban zer-nolako Euskal Herria irudikatzen duzu hizkuntzei dagokienez, hots, zer-nolakoa izango dela iruditzen zaizu euskara-gaztelaniaren arteko bizikidetza, hizkuntza bakoitzaren pisua... elebitasun orekatua, asimetrikoa... nolako elebitasuna, nolako eleaniztasuna?

Komenigarri da ahalegin bat egitea irudikatu ahal izateko nola funtzionatuko luken osoki elebidun den gizarte batek, hiritar guziak gaitasun berdinez bi hizkuntzetan jarduteko ahalmena izanik. Eta irudikapen ahalegin hori eginez gero, ez ote dago nahiko agerian elebakartasunerako joera?

KIKE AMONARRIZ

- 20 urteko eta Euskal Herri osoko perspektiba bati begira, hipotesi lorgarri eta erreal gisa, honako hau azalduko dut (desioak desio):
 - EAEn 40 urtetik beherako ia herritar guztiak gai izango dira euskara ulertzeko eta euskarazko oinarrizko elkarrizketa bat jarraitzeko.
 - Euskararen erabilera bikoiztu egingo da eta ez da arazo handirik izango nonahi erabili ahal izateko, gaur egungo zonalderik erdaldunenetan izan ezik.
 - Euskarazko kultur ekoizpena eta kontsumoa gaur egungoa baino handiagoa izango da, baina hala ere, erdarazkoa izango da nagusi (ingelesaren presentzia asko handituko delarik).

- Elebitasun asimetriko horretan, euskara nagusi izango den esparruak (geografikoak nahiz funtzionalak) handitu eta zabaldu egingo dira.
- Etorकिन presentzia handiagoak, beste hizkuntza batzuen erabilera-eremuak sortuko ditu.
- Nafarroan euskara ofiziala izango da lurralde osoan. Ezagupena eta erabileran aurrera egingo da (gaur egungo proportzioak bikoiztuz). Gaur egungo zonalde euskaldunean euskara izango da erabilera hizkuntza nagusia, ez ordea, Iruñerrian edo gaurko zonalde misto eta erdaldunean.
- Iparraldeko egoeraren inguruko hipotesiak lantzea zaila goa egiten zait, baina “erresistentzia” egoera batean irudikatzen dut egoera.

KOLDO BIGURI

Elebakartasuna gizarte moderno batean komenigarria ez dela asuminu behar du gizarte osoak, hasteko. Gero, ahaleginak egin behar dira hiztun gutxienez pasibo ahalik eta gehien edukitzen (aktiboak izanda, hobe, noski; baina nahikoa aurrerapausoa da berez pasiboa izatea: eta bere saria ere eduki behar luke sozialki, elebiduna izateak duen bezala).

J. IÑAKI ETXEZARRETA

ELE BIZIKIDETZA EUSKALDUNA

Ondorengo hogeita bost urteetarako gizarte-ibilbidean eragile eta aldagai asko aurreikus daitezke, baina beste asko ez. Ezagutza osoaren gabeziak eragin behar digun apaltasun eta errealismotik, euskal gizartearen adinen araberako banaketak bi norabide nagusitan aritzera behartzen gaitu: epe luzeetan egin beharreko inbertsioan, hots, haur eta gazte belaunaldietan, egungo emaitzak hobetzera joz (kantitatea eta kalitatea xedetzat hartuta), eta helduen

belaunaldietan, berriz, erdararen nagusigoarekin errespetuaz eta euskararen aldeko kultura kolektiboan sakonduz jokatzeko.

Komunikazioaren gizarte-konpetentziak ele bizikidetzak izan behar du helburu, eta horretan euskarak sostengu handiagoa jaso behar du.

Euskararen elebakartasunaren aldarriak ez du lekurik XXI. mendeko testuinguruan, gainerako elebakartasunek ez duten bezala. Etorkizuna euskal herritarren ele bizikidetzak euskaldunaren eskutik dator.

ITZIAR IDIAZABAL

Hiritar guztiak gaitasun berdinez bi hizkuntzetan jarduteko ahalmena izatea zer den ez dut uste inork dakienik, ez baita horrelakorik existitzen. Norbanakoarengan hizkuntza ezberdinetan jarduteko ahalmena eten gabe aldatzen den zerbait da, diakronian eta sinkronian aldatu ere, eta uneko jardunaren baitan gauzatzen da era batera edo bestera. Hizkuntza nagusi eta txikiaren arteko desorekak elebakartasunerako joera badu, baina beste giza maila askotan ere joera dominanteak egon arren ez da derrigorrez beste joeren desagertzea gertatzen. Nahasketak bai, eta agian ezin irudika ditzakegun aldaketak gertatuko dira. Garbiak, puruak, jatorrak (?) seguruenik ez dira izango molde berriak, baina ez dut uste ezta ere joera nagusia hizkuntza bakar nagusi eta homogeneorakoa denik.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Ez diot nire adinarekin imajinazioari denborarik gal arazterik opa. Guraso bezala nire egitekoa bete dut, euskalgintzan, urteetan nire ahaleginak egin ditut eta dihardut eta, hala jarraitzeko asmoa dut ahal dudan arte. "Irudipen ahalegin hori" hurrengo belaunaldientzat bego!

LUDGER MEES

Izatez baikorra naizenez gero, etorkizuneko Euskal Herria gizarte eleanitza bezala irudikatzen dut. Bertako bi hizkuntzei dagokienez, beraien arteko harremanak lasaiagoak izango dira. Gaztelaniaren nagusitasuna ez da desagertuko (gizarte eleanitzetan beti hierarkia bat izan ohi da), baina euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai diren pertsonak ere orain baino gehiago izango dira. Harremanak lasaia-
goak izango direla diodanean, euskara eta gaztelania (eta ingelesa) ren arteko mugak orain baino bigunagoak izango direla esan nahi dut. Muga ideologikoak muga praktikoak bihurtuko dira: normaltasun handiagoz onartuko baitugu egoera eta esparru desberdinetan hizkuntza desberdinak ere erabiliko ditugula: garagardoa eta ardoaren arteko bateraezintasunik ez dagoen bezala, gaztelania eta euskararen artekoa ere gero eta gutxiago izango da. (Gaztelaniaz-ko) elebakarrak ez dira desagertuko, baina gizarte gehiengoaren partetik gutxietsita izango dira. Euskararen nagusitasuna eta gaztelaniaren bazterketa aldarrikatzen dutenak ere ez dira desagertuko, baina 19. mendeko sekta baten oinorde xelebreak bezala hartuak izango dira.

JASONE MENDIZABAL

Irudikapenak irudikapen, elebitasun orekatua nekez lortuko da. Gaztelaraz zein euskaraz ulertzen duten gero eta biztanle gehiago izango direla espero dezakegu eta beraz hizkuntza bat zein bestea erabiltzeko askatasunean irabaziko dugula, besteak ulertuko digun berme gero eta handiagoa izango dugulakoan. Askatasunean irabazita ere, zein izango da erabiliko den hizkuntza? Batzuen joera euskaraz hitz egitekoa izango da eta besteena gaztelaraz. Hor badago lehia bat, eta euskararen etorkizuna euskaldunon komunitateak hegemonia esparruak eraikitzean dago, euskararen erabilera gauzatzekotan eta euskal hizkuntza komunitatea biziberritzekotan euskara nagusi izango diren esparruak beharko ditugulako. Egoera

hau lortu ahal izango da beti ere, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko eta euskararekiko atxikimendua handitzeko Hizkuntza Politika argiak aplikatuzten badira, ez baita berez emango den egoera bat.

GARBIÑE MENDIZABAL

Ez zait iruditzen euskarazko elebakartasuneko joerarik gailenduko denik, errazagoa iruditzen zait dut gaztelerazko elebakartasuna irudikatzea. Horregatik behar dugu hori ez gertatzeko hizkuntza politika.

MERTXE MUGIKA

Unean-unean dagoen Hizkuntz Politikaren arabera izan ahal da, baina posible ikusten dut egoki bideratuz gero. Eta irudikatzen hasita, horra hor nirea: ezagutza %90 bermatuta belaunaldi berrietan, gizarte osoaren %70ek ezagutza bermatuta, erabilera %50 inguruan, baina administrazioan eta publikoari begirako zerbitzuetan %80 bermatuta. Egoera horretan erabileraren aldeko apustu bat edo beste bat egiten hasiko litzateke jendartea.

PEDRO OTXOA

Badaukagu 25 urteko perspektiba, 1982-2007 urteetakoak. Hurrengo 25 urteetan joerak antzekoak izaten jarraituko dira, seguruenik, baldin eta politika aktiboak sustatzen ez badira, ez ezagutzen soilik, baita erabileran ere. Gehien alda daitezkeen aldagaiak politikoak dira (Iparraldeko, Nafarroako eta Euskal Autonomi Erkidegoko aldaketa politiko posibleak) eta etorkinei lotutakoak.

TOMAS URIBETXEARRIA

Oso asimetrikoa ikusten dut bi hizkuntzen bizikidetzeta 25 urte barru ere, gaztelaniak berez duelako eragin konparaezina euskarak izan dezakeenarekin. Ez dut uste gizarte bateko bi hizkuntza hain indar

desberdinetakoen bilakabidea 25 urtetan hainbesteraino alda daitekeenik, ahulenaren onerako esan nahi dut, bien pisua berdintzeraino, elebitasun orekatua lortzeraino.

Egoera idiliko hori ez da zaila gizarte baten irudikatzea, beste edozein baldintza alboratuz eta hizkuntzen berdintasuna kakotxen artean ezarriz, noski. Baina zergatik uzten du horrek agerian elebakartasunerako joera? Eta zergatik planteatzen da bai/ez erantzuneko galdera, “bai”ren aldeko erantzuna iradokiz aldez aurretik? Irudikapen hipotetiko batetik ondorio erreal bat onartutzat ematen da. Zer atera nahi da, gainera, ondorio sinple horrekin? Fikzio hutsa da, eta elebakartasunerako balizko joera horren bilakabide eta iraupena ezingo lituzke inork antzeman. Bestalde, egungo munduan, hirugarren hizkuntza batek ere har lezake *lingua franca*-ren antzeko egitekoren bat.

ANA URKIZA

20-25 urteko perspektiban, honela irudikatzen dut Euskal Herria hizkuntzei dagokienez: bi hizkuntza ofizial izango ditu eta gizarteak, oro har, hiru ezagutuko ditu. Hala nola:

1. Gaztelera: nagusiki erabiliko dena gizarteko eremu guztietan.
2. Euskara: hezkuntzaren oinarria izango da eta eremu publikoa irabaziko duena. Euskaradunen kasuan etxe-hizkuntza izaten jarraituko du eta eremu publiko guztietan euskaraz jarduteko aukera egongo da.
3. Ingelesa: lan-munduan, aisialdian, kultura-giroan, maila tekniko-teknologikoetan, ikerkuntzan, etab. ingelesa asko erabiliko da.

Hau da, euskara, gaur egun baino “ofizialago” izango dela iruditzen zait eta alderdi horretatik indarra eta espazioa irabaziko duela baina ez zait iruditzen erabilera arruntean eremurik irabaziko duenik.

Eta alor tekniko-teknologikoan ingelesa erabiliko da gazte-
raren pare.

Ez nuke esango elebakartasunerako joera aurreikusten denik
baina bai gaztelera izango dela hizkuntza nagusia.

16. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

Administrazio publikoetan jarduteko ezinbestekoa izan behar du euskara ezagutzeak? Non, zertarako, zein neurritan...? Hizkuntza-eskakizunen sistema egokia da?

KIKE AMONARRIZ

- Gauden egoeran eman beharreko hurrengo jauzia bi printzipioen inguruan ardaztuko nuke:
 - Administrazio publikoan lanpostu finkoa edo funtzionario postua lortzeko, lanpostuari dagokion hizkuntza maila izan behar da.
 - Bien bitartean, hizkuntza-eskakizunen sistema proporzionala aplikatzen jarraituko da, baina finkotasuna lortzeko hizkuntza ezagupenaren baldintzapean.
- Belaunaldi gazteen euskararen oinarritzko ezagupen-maila ia segurtaturik dagoenez, bi printzipio horiek EAE osoan aplikatu daitezke, errealitate soziolinguistikoak edo lanpostu jakin batzuen izaera bereziak sor ditzaketen salbuespenekin; baina beti ere, erabateko finkotasuna hizkuntza ezagupenaren baitan utziz.

KOLDO BIGURI

Lehen esan bezala, ez legoke gaizki sistema berrikustea. Nire ustez, ez ditu kontuan hartzen lehenago esandako “hiztun pasiboak”, euskarazko komunikazioa posible egin arren, euskaraz zuzentasun osoz hitz egin edo idazteko gai ez direnak. Eta lanpostu askotan baliagarriak izan daitezke era honetako pertsonak.

ANA EIZAGIRRE

Bai, ezagutza oso ezberdinak behar dira. Komunikazioa da garrantzitsuena, aztertu daiteke zein lan-postuetan ez da ezertarako komunikazioa erabiltzen eta horiei erritmo lasaiagoa jarri.

Ez dut uste hizkuntza eskakizunen sistema egokia denik, ez komunikazio maila lortzeari dagokiona behintzat.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

ADMINISTRAZIO PUBLIKO EUSKALDUNA

Administrazio publikoaren euskalduntze prozesuaren aldi bat bukatutzat eman behar dela uste dut, eta horren ondorioz gaztelania eta euskara dakiten profesionalak bakarrik dira euskal funtzio publikoan aritzeko hautagaiak.

Euskaraz ikasketak egin dituztenak (Oinarrizko Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Unibertsitatea edo antzekoak) bi hizkuntzetan (gaztelanian zein euskaran) gai direla onartu behar da.

Ikasketak egin ez dituztenek gaitasuna, bi hizkuntzetan, egiaztatu beharra izango dute.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Kritika bat egitekotan ez eraberritzea dela esango nuke eta orokorregia dela. Tokian tokiko edota zenbait alorreko administrazioetan: Nekazaritzan, udaletakoan, Euskaltzaindiak, Eusko Jaurlearitzaren eskariz aspaldi emandako gomendioak ez dira ongi garatu edo aplikatu: euskara batua, euskalki eta herri hizkerena, adibidez, eskualdearen arabera ezaguera neurtuz.

LUDGER MEES

Elebitasunean benetan sinesten badugu, administrazio publikoetan gizartearekiko harremanak dituzten lanpostuetan euskararen ezaguerara eskatu behar da, eta horretarako orain arte hizkuntza-eskakizunen

sistema baino sistema hobea ez dugu asmatu. Halere, oso eza-guna denez, titulua edukitzeak ez du inolaz ere bermatzen lanpostu horretaz jabetu den langileak bere egunetokasunean euskara erabiliko duenik. Sistema horretan zerbait aldatu nahi izanez gero zera planteatu liteke: agian lanpostu gutxiagori hizkuntza eskakizunaren bat esleitzea, baina estrategikotzat jotzen diren lanpostu elebidunetan euskararen erabilera gehiago kontrolatzea edo sustatzea. Honek, ordea, gogoeta prozesu sakona eskatzen du.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Nire ustez administrazio publikoetan jarduteko ezinbestekoa izan beharko luke euskara jakiteak, eta oro har, hizkuntza-eskakizunen sistema egokia delakoan nago ongi betetzen bada. Baina betiere euskarazko atal edo lan-zirkuituak sortu behar dira eta politiko erdaldunek ez lukete inolako trabarik sortu beharko ahalegin horri etekina ateratzeko orduan.

Hor ere beharrezkoa da epekatze arrazoizko bat egitea, bitarteko guztiak ematea eta zorrotz betetzen saiatzea. Horrela ez jokatzeak sistemaren sinesgarritasuna galtzea lekarke.

JASONE MENDIZABAL

Administrazioa euskaraz bizi nahi dugun komunitateari eta pertsoneri erantzuteko gai izan behar da eta hori administrazio euskaldun batek bakarrik egin dezake. Beraz, ezagutza behar beharrezkoa da Administrazioan. Baina ezagutzaz gain erabilera ere landu beharra dago. Administrazioak (edo administrazioaren parte handi batek behintzat) ez du euskaraz funtzionatzen. Izatekotan, gazteleraz sortutakoa euskaratu egiten du. Beraz, ezagutza eskatzen zaie hainbat erakundetan lan egiten duten lagunei, baina gero ez zaie erabiltzeko eskatzen. Joera hori aldatu behar da eta Administrazioan lan egitera sartzen den pertsonak ikusi behar du eskatu zaion hori (ezagutza frogatzea) erabili egingo duela gero, ez dela hutsean geldituko den

eskari bat. Erabilera planak beharrezkoak dira Administrazioan, bai maila formalean (eguneroko lanerako tresnetan) eta baita maila informalean ere (lantoki barneko harremanetan).

GARBIÑE MENDIZABAL

Hizkuntza eskakizunen sistema ondo funtzionatu duela iruditzen zait. Asentatuta dagoen sistema da eta ez litzateke zalantzan jarri behar, ez litzateke eztabaidagai izan behar.

Administrazio publikoan jarduteko ezinbestekoa da euskara ezagutzea, herritarrek dituzten hizkuntza eskubideak bermatu egin behar direlako beti, baina administrazio publiko osoan beharko luke ezinbesteko eta lanpostu guztietarako.

MERTXE MUGIKA

- Ez daukat zalantzarik: ezinbestekoa da euskara ezagutzea, ezinbestekoa den bezala zerbitzu on bat ematea. Kontzeptu hauek kontrajarriak bezala ikusten dira sektore batzuetan baina tranpa horretan ezin gara erori. Bestalde, hizkuntza-eskakizunak lan eginkizunekin lotu behar dira, hau da, hizkuntza benetan erabiltzeko izan behar da, hori bermatu beharra dago.
- Euskararen ezagutza frogatzeak erdararen ezagutza frogatzeak bezain sinplea izan beharko luke. Ikasketak euskaraz burutuz gero, bermatuta egon beharko lukete ezagutzak eta erabilera gutxienerako gaitasunak.

PEDRO OTXOA

Administrazio publikoetan euskara ezagutzea beharrezkoa da euskararen bizitasun soziolinguistikoa areagotzeko beharrezkoa den neurrian. Horixe izan beharko litzateke helburu nagusia, besteen ginetik.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

1. Administrazio publikoan **hizkuntza ofizial biak** ezagutzea ezinbesteko bezala bideratu behar da langile denentzat, aldez aurretiko egoera pertsonalak errespetatuz.
2. Galdera horietako bakoitzak bere erantzuna behar du, beti ere lehenengo puntua oinarri bezala hartuz.
3. Ez, sistema zein den ez dut zehazki ezagutzen, baina 25 urtetan ez baditu helburu oinarrikoenak erdietsi, desegokia dela bistakoa da.

ANA URKIZA

Jende-aurrean lan egiten duten administrariak euskaraz jakin behar dute eta euren hizkuntza-gaitasunak gorenekoa behar du izan. Hau da, euskaraz arreta eskaintzeko eta ondo erantzuteko gaitasuna izan behar dute.

17. ADMINISTRAZIO ETA HERRI-MUGIMENDUEN ARTEKO HARREMANA

Azken 25 urte hauetan, alor instituzionala maiz egon da herri-mugimenduarekin liskarretan, eta normalizazio-prozesuak alor instituzionala eta herri-mugimenduen artean eskatzen duen konplizitatea ez dugu ezagutu aldi osoan zehar. Euskararen normalizazioa Administrazioaren eta herri-ekimenaren lankidetzat estutik etorriko da. Etengabeko komunikaziotik, lankidetzat zintzotik, konplizitatetik eraiki behar da hizkuntza politika eraginkorra izango bada.

Ez al da posible administrazioaren eta euskara elkartearen arteko protokolo bat adostea non bakoitzaren funtzioak elkarri aitortzen zaizkion?

Nola zehaztu bataren eta bestearen jardun eremuak? Nola saihestu bikoiztasunak eta lehiak?

Euskararekin zerikusia duten lanetan jarduten duten elkarte guztiak al dira euskara-elkarte edo euskararen gizarte-mugimendu? Enpresa merkantilak eta gizarte-mugimenduak bereizi egin behar dira?

Euskararen izenean egiten den guztia ez da on eta egoki. Euskararen inguruko hainbat jardun kritikaztea ez da txar eta desagoki.

KIKE AMONARRIZ

- Euskara eztabaida politiko eta interes partidisten erdian gehiegitan kokatu izanak, muturreko bi joera indartu ditu: kritikak onartzeko gaitasunik eza edo biktimismoa batetik, eta euskararekiko

hiperkritizismo suntsitzailea bestetik. Etengabeko hobekuntza eta egokitzapenak dira ordea, euskarak eta euskararen mugimenduak ezinbestean behar dituen motoreak garai eta behar berrietara moldatzeko eta atxikimendu berriak lortzeko.

- Dinamika horrek, norabide berean joango diren diskurtsoak eta inizatibak behar ditu, eta ez euskararen alde ari diren indarren arteko konfrontazio sistematikoa.
- Gaur egun Euskal Herrian bizi dugun errealitate politikoak oso zail egiten du sektore euskaltzale desberdinen arteko elkarlana. Eta hala ere, premiazkoa da oso. Beharbada, Txepetxek planteatzen zuen bezala, alderantziz pentsatzen hasteko garaia heldu da: lehenetsi dezagun gure hizkuntzaren biziraupenak eta hizkuntza normalizazioak eskatzen dutena eta apika, gerturatze horrek ateak zabalduko dizkio formulazio politikoagoa izango duen adostasunari.
- Bide honetan, eztabaida honetako helburuetako bat, “protokolo” moduko bat adostea edo horretarako bideak zabaltzea izan behar harko litzateke. Kasu honetan ere, elkarrizketa da bidea, eta aurkeztu diren txostenetan bada horretarako zirrikiturik.

KOLDO BIGURI

Ados nago.

ANA EIZAGIRRE

Orokorrean ez da ezagutzen administrazioaren lana, ez da ongi plazaratzen. Protokoloak posible izan behar dira.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

PROIEKTUEN BAITAKO GIZARTE-LANKIDETZA

Euskararen aldeko kultura kolektiboa eginkizun dugun erronkari dagokionez, Euskal Autonomi Erkidegoan bide luzea dagoela argi dago.

Hizkuntz politikaren ardura duenak, bai ildoak ezartzean, baita horiek kudeatzean, badu zertan hobetzerik, azken 25 urteotan egindakoari so eginez gero.

Euskararen gizarte-erakundeen eremuan, berriz, bereizketa handiak egin beharko lirateke: euskararen aldeko kultura kolektiboan ideiak, ekarpenak, proiektuak, negozioak eta lorpenak agerian dituzten talde, enpresa eta elkarteekin batera, euskara lehia politikoaren aitzakia edota osagaitzat hartu dutenak ere baditugu. Denek, beraz ez dute balio bera. Euskararen izenean ari dena, soilik, ezin da aintzat hartu.

Administrazio publikoak etapa edo aldi berria ireki behar duen bezala, euskararen gizarte-erakundeek beste horrenbeste egin beharra dute, batzuen eta besteen proiektuak eta egitasmoak agerian jarritz, horien artean batera jarduteko ekimenak bultzatuz eta bakoitzak bere aldetik egin behar dituenak errespetatuz.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Herri Administrazioaren eta herri-mugimenduen arteko liskar horiek ba dute zer ikusia euskal gizartean, neurri handi batez, trantsizio garaian “ruptura politikoaz” apustu egitearekin. Autokritika bat eginaz, bada ordua, euskaltzale zintzo direnak, galdutako apustu horretatik, euskalgintza bederen ateratzeko unea. Euskararen gizarte-mugimenduetan lan egitea on da, ia mende erdi daramagu, baita “lobby” gisa Administrazioaren aurrean antolatzea ere, ez, ordea, “erakundetze paralelorako”.

LUDGER MEES

Oso garbi daukat administrazioa eta herri-mugimenduaren arteko elkarlana guztiz beharrezkoa dela normalizazio-prozesuan aurrera egin nahi badugu. Goiko testuan egiten diren galdera gehienak, ordea, ez ditut galderak bezala ikusten, bakoitzari eman beharreko erantzuna begi bistakoa baita. Begi bistakoa da, hain zuzen ere, demokra-

tikoki hautatutako administrazioa dela hizkuntza politikaren inguruko erabakiak har ditzaken instantzia bakarra. Berak definitu behar du, azken finean, hizkuntza politikaren nondik norakoak, berak jarri behar ditu baliabideak, eta berak bermatu behar du hartutako erabakien gauzapena. Horretan, “herri-mugimenduak” ez du zereginik. Gainera, ez dugu ahaztu behar historian zehar sortutako “herri-mugimendu” guztiakin gertatu den bezalaxe, euskararen aldeko mugimenduek ere herriaren sektore bat edo batzuk baino ez dituztela ordezkatzeko, nahiz eta beraien diskurtsoak herriaren kontzeptua kontzeptu holista bezala erabiltzen duen. Iraganeko arazoak gertatu badira, nire ustez, ez direla horrenbeste gertatu administrazioak “herri-mugimenduak” aintzat hartu ez dituelako, herri-mugimendu horiek bere burua para-administrazioa bihurtu nahi izan dutelako baizik, eta errealitateetik at dagoen helburu edo estrategia horrek mugimendu edo elkarte horien eragina murriztu egin du.

Orain arte esandakoa errespetatuko balitz, eta bakoitzak bere berezko funtzioa asumituko balu, dialektika emankorra sortuko litzaiteke. Izan ere, herri-mugimenduek normalizazio-prozesuan zeregin handia baitute: administrazioa kontrolatzea, proposamen berriak egitea, parlamentuetako ordezkarien artean proposamen berriak atera ahal izateko gehiengoak lantzea, erabakiak administrazioetatik kalera eramatea, sentsibilizazio-kanpainak antolatzea, eta abar. Eta beste alde batetik, administrazioak bere erabakien eraginkortasuna bermatu nahi badu, ezin du gizartean dauden ekimenen eta elkartearen *feed-back*ari bizkarra eman ez bizi.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Etxea eraikitzeko arkitektoa eta igeltseroa behar dira. Bata bestea gabe aritzen bada, ez da etxerik eraikiko. Bien arteko lankidetzak posible ez ezik beharrezkoa da.

Ahalegina egin beharko genuke tarteko garen guztiok mesfidantzak alde batera utzi eta diagnostiko eta lan-saio gero eta ba-

teratuagoak partekatzen. Egia da egiten den guztia agian ez dela egokia euskararentzat eta kritika onartu eta landu egin beharko genukeela, elkarrenganako errespetuan, baina ez dut uste tentsioak erabat ekidin daitezkeenik, gizarteko beste alorretan bezala.

Baina iraganari begira, bada zer hobetu eta irabazi alor honetan.

JASONE MENDIZABAL

Euskalgintza eta Euskara Elkarteak ez dira gauza bera. Euskalgintzaren definizio bat ematera ez nintzateke ausartuko baina argi dago euskalgintzan kokatzen diren gizarte ekimeneko erakundeak zein enpresa merkantilak oso anitzak direla. Erakunde/enpresa bakoitza bere esparruan dabil lanean (lan mundua euskalduntzeko planak lantzen, helduen euskalduntzen alfabetatze arloan lanean, itzulpengintzan, kultur arloan...), arazo bereziei erantzunez eta egiteko modu propioak landuz. Euskara Elkarteei dagokienez, orain 25 urte sortu zen Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak izan zen aitzindaria eta egun 100 Euskara Elkarte inguru izango dira Euskal Herrian, gehientsuenak Topagunea Euskara Elkarteen Federazioan biltzen direnak.

Labur esateko honakoa da Euskara Elkarteen egitekoa: tokian tokiko euskaldunak biltzea (euskal hizkuntza komunitatea trinkotzea estrategia anitzen bidez) eta euskararen erabileran eta motibazioan eragitea, euskararen normalizazioa lortzeko. Euskara Elkarteek egin eta eragin gakoetan lan egiten dute. Euskaldunok euskaraz bizitzeko behar ditugun aukerak eta zerbitzuak herriz-herri autogestioaren bidez antolatuz alde batetik eta bestetik, gizartean eraginez, sentiberatze lana antolatuz, euskararen aldeko borondateak irabazteko edota beharrezko ditugun neurriak exijitzeko. Hori guztia printzipio eta balore jakin batzuetan oinarrituta: elkarlana, borondatezko hitzarmengintza, erakargarritasuna, harreman erakitzaileak lantzea, hizkuntza eskubideen errespetua, hurbiltasuna, gertuko komunitatean lan egitea, sormena, parte hartzea...

Hori esanda, administrazioaren lana eta Gizarte Eragileena bereiztea komeniko litzateke. Azken urteotan Administrazioak Gizarte Eragileen hainbat funtzio hartu nahi izan dituela ematen du eta hori ez da sana (ez litzateke sana izango kontrakoa ere). Elkar-aitortza izan daiteke lehen urratsa eta horretarako gizarte eragileek Administrazioaren funtzioaren aitortza egiteaz gain, Administrazioak gizarte eragileena onartu beharra du, onartu eta egituratu. Horrez gain, gizarte eragileei parte-hartzerako bideak erraztu behar zaizkio. Administrazioaren funtzioa da sentiberatzea? Horrelako galderak planteatu beharko lirateke. Bikoiztasunak ere aitortzatik konpontzen has daitezke.

Galderan formulatuta dagoen modura, ematen du administrazioaren eta gizarte eragileen artean inoiz ez dela egon konpliziterik. Oro har sintonia giroa nagusi izan ez bada ere, uste dut sektore jakinetan eta leku jakinetan zalantzarik gabe elkarlana eman izan dela eta harreman eredugarriak izan direla. Esate baterako, Euskara Elkarte askok beraien herriko udalekin elkarlan eta konplizitate handia eduki izan dute sarri eta uste dut hori dela bidea. Besterik da, oro har, administrazioak euskalgintzako sektore bakoitzarekin elkarlanean aritzeko dituen mekanismoak, lan egiteko moduak edota gizarte eragileek bete beharreko funtzioen inguruko pertzepzio eta aitortza.

Bukatzeko enpresa merkantilak eta gizarte-mugimenduak bereizi behar diren galdetzen da eta nik zalantzarik ez dut baietz, bereizi behar direla. Enpresa merkantilak behar ditugu eta gizarte mugimenduak behar ditugu eta bakoitzak betetzen duen funtzioa ezberdina da. Erakunde bakoitzak duen eraginkortasuna bere misio eta helburuen arabera eraginkorrago da esparru batzuetan besteetan baino.

GARBIÑE MENDIZABAL

Protokolo hori egingo balitz, hor zehaztuko lirateke jardun eremuak eta, ondorioz, bikoiztasunak aldentuko genituzke, dena den herri-ekimenak behar du askatasun bat, beste esparruetan dutena bezalakoa,

eta ez da den-dena arautu beharrekoa azken muturreraino. Oinarrizko protokolo hori adostuz gero, pauso handia emango litzateke.

Euskararen izenean egiten den guztia ez da on eta egoki. Ados. Euskararen inguruko hainbat jardun kritikatzeari ez da txar eta desagoki. Ados, baina ez kritikatu kritikatzeari edo nori egiten duenari begiratuta kritikatzeari, izan Administrazioa, izan herri-ekimena.

MERTXE MUGIKA

- Protokoloa behar-beharrezkoa da, bakoitzaren funtzioak zehaztu, adostu eta elkarri aitortzeko. Bikoiztasunak ekidin behar direla ere argi daukat, baina orain arte sarri askotan bikoizketa hori egitera jo duena administrazioa izan da. Agian kudeaketa konpartituetara jo genezake, mokoka ibiltzea baino askoz egokiagoa baita. Argi dago euskararen izenean egiten den guztia ez dela ona, baina ekimenak egin-egin behar dira. Ekimenak ondo antolatzea, ebaluatzea eta abar lagungarria da eta horretara jo behar dugu. Baliagarria denari bide eman behar zaio. Sarritan ona edo txarra den esateko nori antolatzen duen begiratzen zaio eta hori ekidin beharra dago.

PEDRO OTXOA

Euskararen normalizazio prozesuan egon den zatiketa normalizazio politikoan egon den isla zuzena da. Gakoa elkarren errespetuan, onarpenean eta elkarlanean dago.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Galdera hauek ez dute erantzun laburrik, baina oso ontzat jo daiteke Administrazioaren eta herri-ekimenen arteko harreman estua eta elkarren artean ongi eramatea. Ez legoke batere gaizki erlazio horiek protokolo baten mamitzea, ez den arren izango malkarrik

gabeko bidea akordio on batera iristea eta are gutxiago gero aurrera eramatea.

ANA URKIZA

Administrazioaren eta euskara elkarten arteko protokoloa adostea eta bakoitzaren funtzioak elkarri aitortzea **beharrezkoa da**. Arrazoiak:

- a. Bikoizketak ekiditeko
- b. Errentagarriagoak eta efektiboagoak izateko
- c. Sinesgarritasunean irabazteko
- d. Alderdikeriarik ez sustatzeko
- e. Helburuak adosteko
- f. Ekonomia eskalak bultzatzeko
- g. Sinergieiei esker irabazteko

Nola zehaztu bataren eta bestearen jardun eremuak? Nola saihestu bikoiztasunak eta lehiak?

Helburu hedaketaren sistemari esker edo sistemaren bidez.

Euskararekin zerikusia duten lanetan jarduten duten euskara-
-elkarte, euskararen gizarte-mugimendu, enpresa merkantil eta
gizarte-mugimendu orok Euskararen Plan Orokorren baitan egon
beharko lukete eta arestian aipatu helburu hedaketaren sistemaren
barruan. Hartara, bakoitzari bere helburua eta eragin-esparrua ze-
haztuko litzaioke.

18. EUSKARAREKIKO AXOLAGABEKERIA ETA EUSKARAREN POLITIZAZIOA

Erdaldunen multzo handi bat (baita gazteen artean ere) euskararekiko ezaxola bizi da; edo are okerrago dena, aurkako jarreran. Ez dira gutxi euskara abertzaletasunarekin lotzen dutenak eta arrazoi horregatik (edo hori aitzakiatzat hartuta) euskararengandik urrundu direnak. Euskararen berreskuratze-mugimenduaren motorea abertzaletasuna izan bada ere, aurrerantzean, identifikazio hori gainditu eta euskararen irudia “zabaldu” egin beharko genuke denon ahalegin eta partaidetzarekin.

Bestalde, Euskal Herriko historia garaikidean nazionalismo eta hizkuntzaren arteko loturak bere alde ona eta txarra izan du: ona, hizkuntzarekiko interesa eta prestigioa piztu eta garatu duelako, eta txarra, sarri askotan propaganda politikoaren mesedetan –euskaltzale eta abertzale kontzeptuak berdinduz– hizkuntzaren aldeko aldarrikapena patriimonializatu egin duelako.

“Euskararen erabileraren aldeko” konpromisoa baldin bada gizarte osora zabaldu beharreko ideia, zein litzateke adostasun horren zutabe nagusia?

Eta, zentzu berean, zein oinarritan berma daiteke “euskaltzaleen” eta “erdaltzaleen” arteko konpromisoa?

KIKE AMONARRIZ

- Ahalegin horrek bi norabide ditu: batetik, orain arte euskaratik urrun egon diren sektore sozio-politikoek euskararen aldeko urrats praktikoak eman behar dituzte; ezin daiteke urtetan eta urtetan elebitasunaren alde hitz egiten jardun, elebakartasunetik mugitu gabe. Eta ezin daitekeena da, ezer egin ez eta egiten dutenen aurka hitz egin, proposamen praktikorik aurkeztu gabe. Egin ez duenak edo gutxi egin duenak, besteei eskatzen eta kritikatzten hasi baino lehen, aurrena egin egin behar du.
- Bestalde, administrazioetik eta mugimendu euskaltzaletik, euskarara erakarri nahi ditugun sektore horientzat erosoak eta egokiak izan daitezkeen eskaintzak bideratzen asmatu beharko dugu. Ahalegin berezia egin eta irudimena beharko dugu identitate ezberdineko hiztunentzat erakargarriak izan daitezkeen produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko irakaskuntzaren inguruan, hedabideetan, aisialdiko eta kultur eskaintzan edo festetan, esate baterako. Baina alde baten ahaleginak, bestearen erantzuna ere eskatzen du, dinamika honi eutsiko bazaio.
- Egoera hipotetiko bati buruz ari gara, eta uste dut, bide honetan urratsak emateko dauden aukerak testatu egin beharko liratekeela.

KOLDO BIGURI

Berdintasunak izan behar du gakoa, ez “eskubideak”. Nire ustez, euskararen inguruan, beti gabiltza eskubideak aldarrikatzen, berez oso gauza eztabaidagarria izanik. Hobe genuke berdintasuna aldarrikatuko bagenu.

ANA EIZAGIRRE

Adostasuna-konpromisoa:

- Euskara denona eta denontzat da, denok defendatu eta indartu behar dugu euskara.

Ez dakit oso ondo adostasuna esan behar dugun edo sentimenduari nola lotu euskara. Nerea, gurea edo ona bezala ikusten ez badut ez dut konpromisorik hartuko

J. IÑAKI ETXEZARRETA

EUSKARAREN NORTASUN POLITIKOA

Hizkuntzen balio sinbolikoa ezin da ezkutatu, eta euskara bezalako hizkuntza minorizatu baten normalizazioak zenbait etapa bizi behar ditu ele askotariko gizarte batean “leku orekatura” heldu arte. Hori kontuan izan behar da, ezinbestean.

Euskara, euskaltzaletasun eta abertzaletasuna batera joan direla, eta seguru asko hainbat urtez joango direla, bistakoa dugu, aurreikuspen errealista da, nire ustez. Besterik da, ordea, hiztun kopurua handitzearekin batera, dagoeneko behatu daitekeen fenomeno baia, euskal elebidun askoren nortasun politikoa ez dator abertzaletasun klasikoarekin bat. Identitate mistoak antzeman ditzakegu. Eta horrek euskararen alde jokutzen du, euskaren aldeko kultura kolektiboa sendotzea dakarrelako.

Euskararen aldeko egitasmoa setakeriaz bete nahi duenak ez dio mesede handirik egingo kultura kolektibo horri, ezta ele bizikidetzari ere. Euskararen aldeko jardunak, ordea, ausardia eta era guztietako ekimenak behar ditu, baita euskararen nortasun politikoa abertzale izaerarekin lotzen dutenena ere. Errespetua eta bizikidetzaren denen ondarea dugu-eta.

ITZIAR IDIAZABAL

Euskararekiko axolagabekeria abertzaleen eta ez abertzaleen (edo hobeto nazionalista espainolen) artean aurkitu daiteke, eta beti izan behar luke salagarri. Baina salaketak aldekotasan gutxi dakarrenez hobe aldeko jarrera eta batez ere erabiltzeko ahalegina (eta ikastekoa, jakina) egiten duena txalotzea eta indartzea. Agerian jarri eta goraiatzea, eta erabiltzeko aukerak eskaintzea. Konpromisoa, behar

bada, gauza konplexua da, baina, beste gauza batzuk ere ikasi baldin baditugu (biktimei zor zaien errespetua, adibidez), zergatik ez dugu hau ere ikasiko?

JOSE LUIS LIZUNDIA

Erdaltzale denarekin berma daiteke, ez ordea, nazionalista gaztelauekin, hauek gaztelaniaren hegemonismoa areagotzea baitute helburu eta praxia. Ikus, azken "Manifestua".

LUDGER MEES

Gai hau ere oso korapilatsua da eta ezin da ondo garatu bost leurretan. Nik uste dut hemen gakoa hizkuntza politikaren esparrutik harantzago dagoen esparru zabalago batean aurkitzen dela: nazio-kontzeptu berri baten esparruan, hain zuzen. Izan ere, hemen garatu behar den nazio-kontzeptua nazio plural eta zibil baten kontzeptua baita, ideologia eta baita identitate estu eta murriztatzaileen gainean dagoen nazio-kontzeptua hain zuzen. Horren barruan inork ez luke arazorik izan beharko onartzeko eta sentitzeko euskara (gaztelania eta frantsesa bezalaxe) hemen bertako hizkuntza dela, hemen bakarrik egiten dena (gaztelania eta frantsesarekin gertatzen ez den bezala) eta nazio honen ondare nagusienetarikoa dena. Nazio demokratiko eta zibil horren baitan hizkuntza bat edo bestearen erabilerak ez luke esanahi politiko zuzenik edukiko, egoera eta testuinguru desberdinetan hizkuntza desberdinak normaltasunez erabiliko lirakeelako. Bilakaera horrek egoera paradoxikora eramango gintuzke: euskara inork berea egingo ez lukeelako, euskara denona izateko oztopo gutxiago egongo lirakeke. Euskarari buruz inork pontifikatuko ez lukeelako, euskara denok normaltasunez eta nahi dugunean erabiltzeko baldintza egokiagoak sortuko lirakeke. Katalunian, adibide bat aipatzearren, historian zehar bide horretan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira. Euskadin ez dugu bide hori mimetizatu behar, bilakaera historikoa oso desberdina izan delako.

Halere, 21. mendearen hasiera honetan helburua berdina da Katalunian zein Euskadin: nazio plurala, demokratikoa eta zibila.

JASONE MENDIZABAL

Identifikazioak gainditzea garrantzitsua da, baina sarri abertzale-tasunari leporatu zaio lotura hori egotea eta beharbada arazoa ez da hizkuntzara hurbildu direnena, hurbildu ez direnena baizik. Patrimonializazioak ez dira onargarriak, baina horretatik baino gehiago egon da ukaziotik, beste sektore batzuen ukaziotik. Beraz, ez gaitezen ideia hauetan tematu. Euskaldunon komunitatea komunitate zabala da, anitza, ideologia guztietako jendea bizi da euskaraz eta euskarara hurbildu nahi duen jende orok du zabalik komunitateko partaide izateko aukera.

Errespetuzko konpromisoa behar da komunitateen artean (ez hainbeste euskaltzale eta erdaltzale, baizik eta euskaldun eta ez-euskaldunen artean) eta errespetu hori bestea onartzetik egiten da. Euskaldunok hizkuntza aldatzeko aukera dugu, gure parekoa ulertzekoa. Euskaldun ez-direnek hori ulertu beharko lukete eta euskaraz bizitzeko aukera egiten dugunonganako errespetuarengatik ulermenerako konpromisoa hartu, ikasteko modua egin. Ideia honen inguruko adostasuna zabaldu beharko litzateke.

GARBIÑE MENDIZABAL

Hemendik aurrera ere, euskararen berreskuratze-mugimenduaren motorea abertzaletasuna izango da, berekin duelako euskararekiko identitatea, euskalduna euskara duena delako eta hori ezin da banatu. Eta kontrako jarrera sortu izan badu, politikoki erabiltzea interesatu zaielako alde askori. Esajeratuz: Euskaltzalea – abertzalea – ia-ia terrorista – gauza txarra.

Nola erakarri abertzale ez direnak? Zutabe nagusia? Errespetua.

MERTXE MUGIKA

Konpromisoa norbanakoena, elkarreana, eragileena eta administrazioarena da. Aurrera egiteko denok eman behar ditugu pausoak ezagutzan eta erabileran. Bi hizkuntzak erabiltzeko eta ezagutzeko benetako aukera dagoenean bermatuko dira elkarren arteko bizikidetza, hizkuntza eskubideak eta normalizazioa. Erdal elebakarrek besteok dagoeneko emana dugun pausoa emateko prest egon behar dute; euskara gutxieneko batean ezagutu eta erabili, bestela berdintasun aukera ezinezkoa da.

PEDRO OTXOA

Abiapuntua hauxe da: erdal mundua, oro har, ez da etsai estrategikoa, gure arteko elkarbizitza aberasteko irabazi beharreko mundua baizik. Horrek ez du esan nahi arazoak edo gatazka puntualak sortuko ez direnik. Beraz, ez gaude bi klase sozialen artean: euskaldunak eta erdaldunak. Zerbait konplexuago baten aurrean baizik.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Sarreran esaten dena ez da inondik eta inola ere onargarria. Hori arrazoi bezala erabiltzen dutenek beren buruak zuritzeko eta, bide batez, euskara eta euskaldunak deskalifikatzeko erabiltzen dute. Azkenean, geuk ere sinetsi egiten dugu, baina horren azterketa beste bat da.

Dena den, ez dut erraza ikusten konpromiso bateratua lortzea, baina ez dut uste inoren aldetik uko egin dakiekeenik egiaztapen sinple hauei: “Euskal Herriaren hizkuntza euskara da”, eta “Erdara –Gaztelania– ere herri honen hizkuntza da”. Ondorioz, biak berdin eskatu behar dira eta biak berdín zaindu. Horiek onartuz, dena lor daiteke. Eta ez dago arrazoi funtsezkorik ez izateko onartuak, interes partikularrak salbu.

ANA URKIZA

“Euskararen erabileraren aldeko” konpromisoa baldin bada gizarte osora zabaldu beharreko ideia, zein litzateke adostasun horren zutabe nagusia?

Erantzukizun Soziala eta Ondare Kulturala.

Eta, zentzu berean, zein oinarritan berma daiteke “euskaltzaileen” eta “erdaltzaileen” arteko konpromisoa?

Erantzukizun Soziala eta Errespetua.

19. EUSKARA INDARBERRITZEKO BAKOITZAREN EGITEKOEZ

Nori dagokio hizkuntza indarberritzeko prozesuaren oinarri nagusiak definitzea? Euskal hiztunei bakarrik, euskaraz ez dakiten euskal herritar erdaldunei, euskaltzaleei, batzuei bakarrik, denei ?

KIKE AMONARRIZ

- Horrelako prozesu baten aitzindariak euskaltzaleek eramango dute, logikoa den bezala. Eraldaketa soziala erdietsi nahi duen edozein mugimendu, errebindikazio edo proiektutan, gizartearen sektorerik kontzienteena da beti prozesuaren motor eta bultzatzaile nagusia: emakumearen eskubideak, ekologia, ...
- Besterik da, oinarri horiek definitzeko momentuan ezinbestekoa izango dela euskal herritar erdaldunen jarrerak eta iritziak eza-gutu eta aintzat hartzea.
- Eta azken batean, denok dakigu hizkuntza politikaren azken onarpena, erdaldunen ahotsa ordezkaturik dagoen maila desberdinetako erakundeetan hartzen dela; askotan beraiek dire-larik gehiengoa.
- Ez dut uste, aspektu honi dagokionez, alde handirik izango denik aurrerantzean biziko dugun prozesuaren eta orain arte bizi-tutakoaren artean. Aldea, indar korrelazio sozio-politikoan gerta daitezkeen aldaketetatik etorriko da, izatez gerotan.

KOLDO BIGURI

Gizarte osoari.

ANA EIZAGIRRE

Denei, euskara ez jakin arren edozein hizkuntza indarberritzeko ideiak izan dezakete

J. IÑAKI ETXEZARRETA

BAKOITZARI BEREA

Euskal Autonomi Erkidegoak 25 urteotan ibilbidean, Iparraldean eta Nafarroan ez bezala, botere publikoaren euskaltzaletasuna agerian utzi du, oro har. Esan daiteke, beraz, Erkidego honetan hainbat ezaugarri badirela hizkuntza indarberritzeko prozesuaren gidaritzan botere publikoaren esku uzteko.

Baina, gidaritzak ez du monopolioa esan nahi, eta 25 urte horietan euskalgintzan jardun duten hamaika gizarte-erakundek ere beren emaitzak agerian dutenez, XXI. mendearen lehen hamarkadako hizkuntz politikak bi elementu horien konbinazioa behar du, bai oinarriak finkatzeko garaian elkarriketa eta adostasun mailak egiaztatzeko, baita oinarri horien gainean kudeatuko den planean elkarlana berresteko ere.

Eta eragile berriei ere atek zabaldu behar zaizkie, herritar erdaldunen eremutik euskararen aldeko kultura kolektibo horretan haien ekimenak lekua izan dezan.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Denei, modu desberdinetan.

LUDGER MEES

Horretarako legitimazio demokratikoa duten herri erakundeei, gizar-te sektore desberdinen (euskaldunon zein erdaldunen) laguntzaz.

JASONE MENDIZABAL

Hizkuntza indarberritzeko prozesuaren oinarrietaz edozein arlotan bezala adituek dakite gehien eta baita arituek ere. Horretarako daude soziolinguistikan, psikolinguistikan, jurilinguistikan... adituak eta jakintza horiek kontrastatzeko eguneroko jardunean dauden horrenbeste arituk (irakasle, euskara teknikari, hizkuntza eragile...). Kontua da horiek guztiak hizkuntza komunitate baten indarberritzea-ri begira jarri nahi baditugu, horretarako ardatza euskal hizkuntza komunitatea izan beharko dela, hizkuntza komunitate horrek behar duena definitu beharko da, ez beste inork. Besterik da, euskaldun komunitateak behar duen horrek beste hizkuntza komunitateari ere eragiten diola eta erdal komunitateak, komunitate honetako norbanako bakoitzak, erabaki beharko du bere ekarpena biziberritze horretan zein izango den: ez ikusiarena egin, aurka egin edo biziberritzearen alde bere ekarpena egin. Horretarako erdal komunitateari tresnak eskaini beharko zaizkio: erabaki horretarako behar duen informazioa, kontzientziazioa eta erabakitako hori betetzeko (adibidez euskalduntzeko) laguntza eman beharko zaio.

Aurrekoa kontuan hartuta, hizkuntza indarberritzeko oinarriak definitzea administrazioari bezala, euskaldun komunitate antolatuari ere badagokio eta bakoitzak bere mailan dituen erantzukizunak hartu behar ditu: administrazioak aditu eta arituen proposamenak jaso, aztertu eta politika zehatzak erabakitzen, eta euskararen normal-kuntzan ari diren gizarte eragileak euskaldun komunitatea trinkotzeko lanean. Administrazioa eta gizarte erakundeen artean ahalik eta elkarlan handiena egotea komenigarria litzateke.

Era berean euskararen aldeko neurriak gizarteko sektore batzuetan onartzen ez badira, horien aldeotasuna lantzeko erantzukizuna ere bada administrazioarena. Baina ez litzateke onargarria izango administrazioak euskara biziberritzeko eragozpen edo oztopo diren politikak onartzea, euskararen biziberritzearen aldeko ez diren eta biziberritze prozesurako gakoan jabe ez diren gizarte sektoreek hori eskatzen dutelako.

GARBIÑE MENDIZABAL

Euskara maite dutenei. Maitasunik gabe ez dago proiekturik, ez kemenik.

MERTXE MUGIKA

Definizioan denok hartu behar dugu parte, baina euskara erdararen pare jartzeko helburua denok onartu behar dugu, bestela ez dugu ezer lortuko.

PEDRO OTXOA

Gizarte bakarra gara eta gizarte bakar horretan talde ezberdinak daude: euskaldunak eta erdaldunak, gizonak eta emakumeak, heterosexualak eta homosexualak, e.a.

Nori dagokio emakumeen egoera normaltzea? Nori homosexualena? Nori euskaldunena? Gizarte osoari, jakina.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Galdera hau ez dago ongi formulatua, oinarri nagusiak ez dituelako jendeak definitzen, berdin da zein hizkuntzatakoa izan. Hori hizkuntza politika da, eta Jaurlearitzak Hizkuntza Politikarako duen departamentuak lideratu behar du.

ANA URKIZA

Denei dagokie euskara indarberritzeko prozesuaren oinarri nagusiak definitzea. Euskal herritar erdaldunak prozesu horretan txertatzen ez baditugu, ez dira sekula planaren parte sentituko eta, beraz, planak ez ditu erakarriko. Hasieratik, bertatik, planetik kanpo daudela sentituko baitute.

20. ESFORTZU HANDIA, SARI HERDOILA

Bizi garen inguruan, hizkuntzaren industrian sartuta izan ezik, euskararen gaitasunean erosio handia jasaten dute milaka euskaldunek. Egindako esfortzu handiaren ostean hartutako saria etengabe herdoildua ikusten eta sentitzen dute; eta ataka horretatik irteteko, beste esfortzu bat, eta beste bat eskatzen zaie? Oso zaila da horrela euskaltegitik –edo eskolatik– ateratako etekina eguneroko komunikazio tresna bihurtzea. Erabilera naturaletik gero eta urrutiago daude hauetako gehienak, bizimoduaren inertziak baldintzatuta. Irteera bat eskaini behar zaie, bikoitza. Batetik, duten gaitasun linguistikoa eguneroko harremanetan trebatu eta osatuko dien bermea. Eta, aldi berean, egin eta egiten duten esfortzua prestigiatuko duen onarpen eta prestigio sozial handiagoa.

Nola permeabilizatu, ordea, elebakarren elkarte onarpen eta ospe horrekiko?

KIKE AMONARRIZ

- Ez dut galdera ondoegi ulertu, baina gaizki ulertu ez badut beste era honetara ere formula daiteke: nola bermatu erabilera-eremuak eta euskaraz egiteko aukerak euskara ikasi duenari (batez ere ingurunerik erdaldunenetan?).
- Erabilera berriro ere. Ikasketa-prozesuarekin batera erabilera aukerak landu, planifikatu eta eskaini behar dira: hezkuntzan, aisialdian, administrazioan, enpresetan eta era guztietako elkarre eta erakundeetan. Mintza-lagunak, euskararen zirkuituak,

“Lehen hitza beti euskaraz”, “Euskararen ziurtagiriak”, UEMA, euskarazko kultur eskaintza... Horiek guztiak eta irudimena erabiliz sortu beharko ditugun berriak: Interneteko sare euskaldunak, hizkuntza boluntarioak, turismo linguistikoa...

- Bestalde, euskaldun-berriaren figura prestigiatzeko moduak aztertu behar dira. Ez dut uste merezi duen errekonozimendu sozialik aitortu zaionik oraino.
- Azkenik, euskaldunen artetik euskara erabiltzeko konplexu oro baztertzeko estrategia komunikatibo indartsua behar dugula iruditzen zait. Gutxiespen konplexu gehiegi dago oraindik euskararen inguruan eta horiek uxatu ezean, erabilerarako aukera asko galduko dugu.

KOLDO BIGURI

Euskararen erabilera-esparru pribatuak are gehiago zabaltzeko ahalegina egin beharko genuke. Biziaren zati handia ematen dugu besteekiko harremanetan, baina beste zati handi bat geure bakarrean, geure familian, geure girorik barnekoenean. Lortu al dugu hor ditugun hizkuntza-esparru guztietara iristea? Adibidez, bakarkako aisialdirako zer-nolako aukera “moderno” ditu gaurko euskaldun gazte batek? Zenbat NINTENDO jolas daude euskaraz?

J. IÑAKI ETXEZARRETA

Aurrekoetan adierazia.

ITZIAR IDIAZABAL

Bai, ideia hau oso garrantzitsua da eta gizarteari jakinarazteko adierazpen egokiak irudikatuko dituzten “esatariak” bilatu behar. Poesia, antzerkia, zinea, telebista bitarteko onak liriateke gauza horiek adierazteko. Nola egin asmatu egin behar.

Bestalde, lehen ere aipatu dudana adierazteko ikur-modu hori “ikasten ari naiz, elebiduna naiz” edo dena delakoa euskaraz ezin eginaren zenbait frustrazio gainditzeko modua ere izan daiteke.

JOSE LUIS LIZUNDIA

Herritarren esfortzu handiek, herri agintarien planifikazio zehatza behar dute eta medio oparoak jaso. Maila guztietako irakaskuntza, komunikabide, administrazio eta gizarte mugimenduen lan-sinergia oroz baliaturik.

LUDGER MEES

Nik uste dut erantzuna aurreko testuetan emanda daukadala, zatika baldin bada ere: euskara denona sentitzeko urratsak (ikus. nazio-kontzeptu berriari buruz esandakoa), sentsibilazio-kanpainak eta –etorkizunari begira– hezkuntza. Gogoratu behar dut, halere, aurreko nire ekarpenean idatzi nuena: kontsentsu zabala lortzea posible den bezala, erabatekoa lortzea utopikoa litzateke. Muturretan beti zenbait taliban geratuko dira –arrazoi desberdinak direla medio-kontsentsua baino beraien ikuspuntuen ezarpena nahi dutenak. Horiekin ez genuke denbora gehiegirik galdu beharko.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Dagoeneko esan dudana errepikatu beharko nuke: aukerak ugaltu eta gero eta euskararen mundua aberatsago eta zabalagoa dela sentiarazi era guztietako jardunen bitartez.

Kontzientziazte-kanpaina egokiak egitea ere ez dut baztertzen, gizarteko sektore esanguratsu bakoitzarentzat. Ez litzateke denbora-galtzea izango kanpainen leloak gizarteratu aurretik gizarte-eragile edo sektore desberdinekin kontrastatzea.

Irudimen guztia erabilia ere motz geratuko gara, seguru asko, baina aukerak gutxi direnean, eta urraketak sarri gertatzen diren tokian, zaila izango da kontrako giroa sustatzea.

Euskaldunok ere batzuetan huts egingo dugu, baina galdetu beharko genuke zer dagoen horren atzean. Inkesta Soziolinguistikoko datuek berek nahikoa balorazio positiboa egiten dute euskaldunon erabileraz, beraz beste nonbait saiatu beharko dugu gauzak aurrera eraman nahi baditugu. Diskurtso batzuk denok berrikusi beharko genituzke, agian.

JASONE MENDIZABAL

Elebakarren elkartea permeabilizatzeaz egiten da galdera eta uste dut ez dela galderarik egokiena. Euskara ikasteko ahalegina egin dutenen esfortzuaren onarpena eta prestigioa elebidunen, euskaldunen aldetik etortzea izango litzateke naturalena eta eraginkorra. Elebidunak baitira euskaraz ikasi dutenei euskaraz praktikatzeko, mintzatzeko aukera emango diotenak. Elebidunak baitira besteen ikasteko esfortzuaren onuradun nagusiak, azken finean ikasi duten hauei esker euskaraz aritzeko aukeratan eta askatasunean irabazten dutelako.

Elebakarren aldetik Euskara ikasteko ahalegina egin dutenen aitortzak zein eragin izan dezakeen ez dut argi ikusten. Akaso, euskara ikastea posible dela eta ez dela “hain zaila” ulertzea ekar diezaike euskaldundu direnen ezagutzak. Uste dut garrantzitsuagoa litzatekeela elebakarrek euskaldunon komunitatearen pertzepzio orokorrigo bat izatea, pertzepzio anitza, erakargarria eta irekia, non nahi izanez gero beraiek ere leku bat eduki ahal izango duten.

GARBIÑE MENDIZABAL

Mintzalaguna bezalako proiektuak on asko egin du alderdi horretatik. Gainera euskaldunak beti izan dira eskerroneko ez dakitenak ikasten ari direla jakiten dutenean edo gerora ikasi dutela esaten dutenean.

MERTXE MUGIKA

- Seguruenik esfortzu horren berri emanaz eta esfortzu horri ekin dionaren itzaropenak betez.
- Erabilera programen beharra dago, duda barik. Ez da sakon iker-tu den kontua, baina estrategia eta bide berrien beharrea dago.

PEDRO OTXOA

Irtenbidea ez dago konduktismoan: esfortzua eskatu, gero saritzeko. Barne motibazioa da motorra. Zailtasuna euskara malgutasunez erabiliko duten sare sozialak bultzatzean dago, hizkuntza ghettoak gaindituz. Zentzu honetan, teknologia berriek sareak sortzeko eskaintzen duten aukera jorratu beharko litzateke gehiago.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Nik uste dut gai honetan esaten denak baduela prestatzen ari garen dokumentu osoarekin zerikusi handia. Horregatik uste dut erabileran datzala laguntzarik bikainena, euskararen erabilerarako aukerak ugarituz eta lagunduz, euskararen atxikimendua eta harrotasuna garrantuz... Nola lortu hori, ordea? Nik 2. et 3. gaietara igorriko nuke honen erantzuna. Eta, agian, izango luke eraginik elebakarrengan ere.

ANA URKIZA

“Kasu” bidezko kanpainak jarriko nituzke abian (irradi eta telebistetan eta markesinetako karteldegietan). Urtean 6 kanpaina izan litezke (bihilabetekariak).

21. KONTSENTSUAZ

Kontsentsua zer da: desiragarria, ezinbestekoa? noren/nortzuen artekoa?, ze neurritakoa, zertan gorpuztua...?

KIKE AMONARRIZ

- Kontsentsua ez da beharrezkoa, baina hizkuntza minorizatu batentzat desiragarria da normalizazio-prozesuaren alde ahalik eta indar gehien biltzea. Eta gutxienez, euskara konfrontazio politikotik ateratzea.
- Epealdi luze samar baterako planteatu beharko litzatekeen adostasun berri honek, kontzeptu argitan formulatua beharko luke. Eztatanda honetan ikusi ahal izan dugun bezala, adostasun berri horretara iristeko ezinbestekoa izango zaigu lehenik eta behin erabiltzen ari garen terminologiaren inguruko zehaztapen eta argitze fase bat: bai bizi dugun egoera definitzeko garaian, hala nola, etorkizuneko eskenatokiaren definizioa egiteko garaian.
- Adostasun horretan bi maila bereziko nituzke:
 - Euskalgintzan eta euskararen aldeko dinamikan mugitzen garenon arteko adostasuna. Uste dut hau dela lehen tasun osokoa, premiazkoena eta lorgarriena.
 - Ondoren, ahalik eta adostasunik politiko handiena lortzera jo beharko litzateke, jakinik, adostasun honen posibilitatea guztiz mugatuko duela momentuko egoera politikoak eta indarren korrelazioak.

KOLDO BIGURI

Hasteko, adostasun politikoa; gero, soziala. Alderdi politiko eta eragile sozial guztiek onartu behar dute euskara guztiena dela, baita euskararekiko axolarik ez dutenena ere. Gure gizartearen ezaugarri

funtsezkoa dela, eta, beraz, zaindu behar dela, besteak beste gizarte horretako berdintasun esparru bat jokoan dagoelako.

ANA EIZAGIRRE

Ezinbestekoa – Gizartearen gehiengoa.

Legedia: Lege biltzarra.

Egun indarrean dagoen legeak kontsentsu handia izan zuen, gero praktikara eramaterakoan sortu ziren desadostasunak.

Legez erabakitzen dena aurrera eroan behar da. Euskarako legeak ezin izan du 25 urteetan ikasle guztien ezagutza bermatu. Ez da izan legean jartzen ez zelako, gero beste akordio batzuk egin direlako, prozesu, erritmo... nori begira? Ikasleei? Gizarteari? Edo euren lanpostua zegoen bezala mantendu nahi zutenei?

Orain hartzen diren erabakien epeak, prozesuak, erritmoak... azaldu behar dira. Argi jakin behar du bakoitzak administrazioak zer eskaintzen dion. Ez du balio moratoria bat edo epe bat amaitzen denean beste bat luzatzea..., noiz arte?

J. IÑAKI ETXEZARRETA

Aurrekoetan adierazia

JOSE LUIS LIZUNDIA

Desiragarria, baina, zoritxarrez, oso zaila, gure gatazka politikoaren katigatuegi egoten delako. Are okerrago, hauteskunder ez hauteskunder e tekinetarako, batzuek eta besteak, darabiltelako.

LUDGER MEES

Hau ere, aurreko erantzunetan zehaztuta gelditu dela iruditzen zait.

JASONE MENDIZABAL

Helburu ezberdinak dituztenen artean, kontsentsua ezinezkoa da. Beraz, lehenengo eta behin, kontsentsu bat lortu nahi baldin bada, bakoitzaren helburua zein den ikusi beharra dago. Sarri "euskara-

ren alde” aterki zabalaren pean sartzen ditugu pertsona eta erakunde asko, baina uste dut aterki zabal horrek oso buru ezberdinak estaltzen dituela. Beraz, lehenengo eta behin bakoitzak hizkuntza normalkuntzari dagokionez, bakoitzak egoera “ideala” zein duen zehaztu beharko litzateke eta ondoren ikusi kontsentsua posible den edo ez. Kontsentsu ezaren aitzakiapean mugak jartzeko prest egongo baita bestela jende asko.

Edozelan adostasuna bilatzeko ariketa interesgarria da jakinda aldez aurretik zer den bultzatu nahi dena eta bestearengandik espero ahal dena.

GARBIÑE MENDIZABAL

Kontsentsua desiragarria da, lortzen bada, hobe. Baina lortzen ez bada, horrek ez du esan nahi ezer egin gabe geratu behar garenik. Euskararen aldeko hizkuntza politika behar dela eta ez dela behar pentsatzen dutenen arteko kontsentsua behar da. Baina benetako kontsentsua, ez politikoki zuzeneko kontsentsua.

Hizkuntza politika eraginkorra martxan jartzeko adostasuna beharko litzateke, ez bakarrik horri baiezkoa ematekoa, baita egitekoa ere, edo egiten ari direnei oztopoak ez jartzekoa.

MERTXE MUGIKA

Inpresioa daukat kontsentsua euskaldunoi bakarrik eskatzen zaigula, hainbat eta hainbat elebakarrek kontsensu hitza zer den ere ez dakitela. Adostasuna desiragarria da, baina gaur egun, ezinezkoa da denok denean bat etortzea. Hala ere, zein den gutxiengoa adosten saiatu beharko lirateke, adostasuna euskararen ezagutza minimo bat denok bermatuta izatetik etor liteke. Erdara ezagutu beharra denok onartua dugu nahitaez, eta euskararen kasuan hori ez da beti horrela izaten. Erdararen kasuan adostasuna badago, euskararen kasuan berdin izan beharko litzateke.

PEDRO OTXOA

Kontsentsua politika demokratiko baten ezaugarria da. Beti ere hauxe eta hobeto gauza bera izango ez diren bitartean.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Alderdi politikoen arteko kontsentsua ezinbestekoa dela uste dut, baina 18. gaiaren erantzuneko ezinbesteko baldintza bien gainean. Dokumentuetan gorpuztua eta hizkuntza bien egoerak kontutan hartuz eta bakoitzak bere historia eta beharrianak dituela onartuz

ANA URKIZA

Kontsentsua ezinbestekoa da XXI. menderako Hizkuntza Politikan parte hartuko duten aktore guztien artean.

Kontsentsua ulertzen da, entzuna izateko, debatitzeko eta ekarpenak egiteko aukera eta oinarriak zehazteko ahalmen gisa.

Kontsentsua ulertuko da, bada, politika horren oinarri nagusiak zehazteko eta politika diseinatzeko **espazioa eta ahotsa izatea**.

Ondotik, politikaren letra eta neurria HPSk ezarri bide baitu.

22. EUSKARAREN ETORKIZUNeko ERRONKAK

Definitu/zehaztu etorkizuneko euskararen hiru erronka nagusiak.

KIKE AMONARRIZ

- Euskararen ezagupena bermatzea belaunaldi berrietan.
- Euskararen erabilera eta kontsumoa indartzea, euskara hizkuntza bakar edo nagusi izango den erabilera-esparruak sortuz eta hedatuz.
- Euskararen aldeko adostasun sozio-politikoak sustatu eta aragotzea, euskalgintza barruko elkarlanetik hasita.

KOLDO BIGURI

Familia barruko transmisioa ziurtatzen jarraitu; esparru pribatuko erabilera-aukerak ugaltu eta zabaldu; ikusizko eta entzutezko "hizkuntza paisaia" ahalik eta gehien elebidundu.

ANA EIZAGIRRE

- Profesionalen, batez ere hezkuntza esparruan edo gazteekin aritzen direnenen, euskara maila indartu, hobetu...Baliabideak eskaini euren lana hobetzeko.
- Teknologia berrien munduan murgildu.
- Euskara benetako komunikazio hizkuntza bihurtu.

J. IÑAKI ETXEZARRETA

Aurrekoetan adierazia

ITZIAR IDIAZABAL

- Gazte euskaldunentzat euskaraz egitea gauza erakargarria bihurtzea.
- Euskaraz ikasteko ahalegina egin duten guztiak euskaraz egin dezaten aukera, babesa eta onarpena izan dezatela.
- Erdaldun elebakarrak euskaldunen frustrazioaz (etsipenaz) konturatu daitezela.

JOSE LUIS LIZUNDIA

1. Euskal Herriaren gatazka nagusietatik libratzea.
2. Euskararekiko legeria kontu handiz garatzea, 1982/10 Oinarrizko Legea, oraingoz, ukitzeke. Nire txostenean markatzen dira zenbait ildo.
- 3.1 Euskararen erabilera eta transmisio naturala eskualde euskaldunetan bermatzea.
- 3.2 Hiri nagusi eta ertainetan diktadura egoeretan ere, familietako euskararen erabilera eta belaunaldi transmisioa eredutzat hartu praxi hori gaurko bizitza urbanoan hedatuz.
- 3.3 Euskarak historikoki atzerakada egin duen eskualdeetan, berreskuratze erakargarria planifikatuz, elebitasun aberasgarri liberalean oinarrituz.

LUDGER MEES

1. Kotsentsua, ahalik eta zabalena.
2. Nazio-kontzeptu berri baten baitan, eta hezkuntzak lagunduta, batez ere gazteengan euskararekiko atxikimendua sendotzea eta gizarte eleanitzean euskararen erabilera normalerako bidea erraztea.
3. Etorkinak euskararen kotsentsura hurbiltzea.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

- a) Hizkuntza-Politika egokiagoa, eraginkorragoa egitea.
- b) Kontseiluak “10 nagusiak” izendatzen duen eginbeharren zerrenda kontuan izatea.
- c) Institutuzioen eta herri-mugimenduen arteko harreman “konplizea” lortzea.

JASONE MENDIZABAL

1. MOTIBAZIOA: Sentiberatze kanpaina orokorretaz haratago, norbanakoei zuzendutako sentiberatze lana antolatzea eta bereziki euskaldunei zuzendutakoa lehenetsiz. Helburu nagusiak, euskal hizkuntza komunitatearen bizindarraren (osasuna, eza-gutza, erabilera...) egoerari buruz gogoeta egin eta euskaldun bakoitzak euskararen normalizazio prozesuan betetzen duen funtzioaz jabetzea lirateke eta egoera horietan aurrerapausoak eman ahal izateko aukeren eta tresna zehatzen berri ematea. Euskara normalizatzeko zereginean euskaldunak protagonista sentitu behar dira eta saihestu beharko litzateke euskaldunek euskararen berreskurapena nagusiki eskolaren edota administrazioaren zeregina den zerbait moduan bizitzea. Euskal hizkuntza komunitatea trinkotzea, egituratzea eta erakundetzea zeregin horretarako ezinbesteko tresna izango da. Motibazioarekin lotuta, euskal hizkuntza komunitatea ikusgai eta erakargarri egiten asmatu beharko litzateke, komunitate horren parte izatea prestigiatu dadin. Kalitatezko euskarazko sormen eta kultur adierazpideen bidez landu daiteke alde batetik hori eta baita hedabideen bidez ere.
2. ERABILERA: Euskaldunen harreman sareak ehuntzeko programak eta euskararen erabilerarako guneak, aukerak antolatzea lehentasunez hurbilenerako eremuetan: familian, lagun artean, aisialdian, auzoko/herriko ostalaritzan, merkataritzan, elkarteetan, lan munduan, hedabideetan... Eredugarri diren esparrue-

tan (kirolari ospetsuak, sortzaile ezagunak, politikariak, enpresa buruak...) euskararen erabilera areagotzea eta eredu horien gizarteratzea bultzatzea. Bukatzeko, euskararentzat arnagune diren eremu euskaldunak babestea.

3. EZAGUTZA: euskararen ezagutza bermatuko dituzten eskola ereduak bultzatzea eta ezagutzatik adierazkortasunera jotzeko ahozotasuna ahalik eta gehien lantzea. Helduen euskalduntze alfabetatzeari dagokionez, euskara ikasi nahi dutenei erraztasun ahalik eta gehien ematea.

GARBIÑE MENDIZABAL

1. Eskolari beste astindu bat eman, eredu-sistemaren bidez, ikasketxeak udalekin estu-estu lan eginez (EBPN). Lanbide Heziketako eskolak eta lan-munduarekiko duten lotura zaindu.
2. Gazteak erakartzeko imajinazioa erabili: teknologia berriak, telebista...
3. Euskaldun kopurua igotzeko ahaleginak egin eta, aldi berean, euskaldunen komunitatea trinkotu egin beharko litzateke, uste duguna baino gehiago garela agerian uzteko.

MERTXE MUGIKA

- Elebakarrak elebidun bihurtzea. Hau da, zerbait asmatu behar dugu euskaraz ez dakitenek gutxieneko maila eskuratzeko pausoa eman dezaten. Honekin batera, tarteko belaunaldiaren hutsunea gainditu behar dugu, honek baino ez baitu bermatuko euskara ez izatea soilik haur edota eskola hizkuntza izan; edozein une eta lekutan eta edozertarako balio duen hizkuntza izan dadin, helduak euskaldundu behar ditugu, beraz.
- 40-50. hamarkadetan gertatutakoa errepika ez dadin, orduko etorkinen kolektiboa zaindu beharra dago, euskara integrazio tresna bezala har dezan eta ez gainditu beharreko oztopotzat.

- Euskara leku eta arlo guztietan normaltasunez erabiltzea. Hau da, erabiltzea eta bizitzarako balio praktikoa izatea. Ezagutzetik erabiltzera dagoen urratsa erraztasunez eman ahal izatea lortu behar dugu.

PEDRO OTXOA

Hiru erroka nagusiak:

- Hizkuntza jarrera, ezagutza eta erabileran aurrera egitea.
- Gizarte esparru sinboliko aberatsa sortzea euskaraz.
- Hiri handienetan euskararen normalkuntza prozesua hedatzea.

TOMAS URIBEETXEBARRIA

Etorkizuneko hiru erroka, nire ustez, hauek izan daitezke:

1. Euskarak gaztelania ezartzen ari den ordezkatzeko prozesua gainditu beharra.
2. Euskararekiko atxikimendua eta euskararen harrotasuna gizartean hedatzea eta barneratzea.
3. Etorkinak euskarara erakartzea.

ANA URKIZA

Etorkizuneko euskararen hiru erroka nagusiak:

1. **Euskararen erabilera**-tasa igotzea.
2. **Kontsentsu eta erreferentzialtasun politikoa** euskararen politikaren inguruan
3. **Eremu publikoa euskalduntzea** eta zerbitzu oro euskaraz jasotzeko bermea eskaintzea.